


2020 MARTXOA



APIRILA



MAIATZA




EKAINA



UZTAILA



ABUZTUA




IRAILA



URRIA



AZAROA



ABENDUA



2021 URTARRILA



OTSAILA



MARTXOA



Urtebete izurritearen aurkako neurriekin

Martxoaren 15ean ezarri zuten lehenengo alarma egoera; ezohiko neurriek indarrean segitzen dute; 5.918 kutsatu eta 153 hildako Debagoienera / 4

SINADURAK

	OIER ZUMARRAGA / 22
	IÑAKI UGARTEBURU / 11
	CAROL PALACIO / 35
	ENERITZ URRUTIA / 16
	MIKEL IRIZAR / 48



Naturtzaindia: zaindu, miresten eta gozatzen segitzeko

Oskar Epelde kazetariari elkarriketa

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!


Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	49	34	2.476	112,13
Aretxabaleta	16	26	574	81,07
Oñati	15	30	912	79,53
Bergara	15	14	1.273	84,66
Eskoriatza	8	7	294	71,65
Antzuola	3	16	193	88,57
Aramaio	1	0	137	92,57
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
GUZTIRA	107	127	5.918	91,31

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Nahiz eta beheranzko joera nabarmendu, tasak altua izaten jarraitzen du

Azken zazpi egunetan 107 kutsatu berri izan dira, aurreko astean baino hoge gutxiago. Bestetik, Aste Santuan erkidegoak itxita egotea adostu dute autonomietako ordezkariak. Gipuzkoako suhiltzaileak —tartean, Oñatikoak— ari dira txertoa hartzen

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 107 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak, joan den astean baino hoge gutxiago —127 izan ziren—. Gauzak horrela, laugarren astez jarraian behera egin du kutsatu kopuruak, eta eskualdean da goeneko 5.918 pertsona harra-patu ditu birusak. Aipatzekoa da Osasun Sailak astero argitaratzen duen buletinean doitu egin dituela datuak, eta, hortaz, aldaketak daudela herrikako kutsatuen kopuruetan —16 pertsona aldea dago—.

Herrika, Arrasaten baieztatu ditu positibo gehien azken egunetan (49). Aretxabaletan joan den asteko erdiak zenbatu dituzte (16), eta hamabosna Bergaran eta Oñatin. Azken herri horretan ere erdira murriztu

dira kutsatu berriak, joan den astearekin alderatuta, eta Antzuolan ere nabarmena izan da beherakada, 3 kasu berriekin.

Osasun Sailaren semaforoaren sistemari jarraiki, 3.000 biztanletik gorako herrien artean Aretxabaleta zen eskualdean gorri zegoen bakarra; Oñati martitzenean irten baitzen eremu horretatik. Herri hori eta Arrasate laranjaz zeuden atzo, beraz, eta Bergara, horiz. Herri txikien artean, Antzuolak du intzidentzia-tasarik altuena (871,96 atzo), eta Eskoriatzak jarraitzen dio horri (365,59); as- teon jaitsi da 500etik behera.

Intzidentzia-tasei erreparatuta, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroarekin alderatuta Debagoienak jarraitzen du goren egoten, azken zazpi egunetan behera egin badu ere —atzo

361,06an kokatu zen—. Beste muturrean dago Gipuzkoa; izan ere, tasa baxuena duen lurraldea da (167,67) baina gertutik jarraitzen dio Nafarroak (118).

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, zortzi pertsona zeuden koronabirusak jota ingresatuta.

ASTE SANTURAKO NEURRIAK

ASTE SANTUAN ERKIDEGOAK ITXITA EGOTEA ADOSTU DUTE LURRALDEEN BILERAN

Espainiako Osasun Ministerioak eta erkidegoetako ordezkariak Lurraldeen arteko Osasun Batzordea egin zuten eguaztenean, eta adostu zuten San Jose zubian eta Aste Santuan erkidegoak itxita egotea. Hori horrela, mar-

txoaren 17tik 21erako zubian eta martxoaren 26tik apirilaren 9ra ezin izango da autonomia erkidego batetik bestera igaro.

Mugikortasunaz gain, beste-lako neurri batzuk ere zehaztu zituzten; etxeratze-agindua beranduenez 23:00etan ezarri behar-ko dute eta eremu publikoan lau eta sei pertsona artean elkartu ahalko dira, gehienez. Eremu pribatuetan bizikideak soilik elkartu ahalko dira. Hala ere, neurriak zorrozteko edo malgutzeko aukera autonomien esku utzi zuten.

Ildo horretatik, nabarmentzekoa da bilera hartan finkatutakoak baino neurri zorrotzagoak dituela, gaur-gaurkoz, EAEk. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak adierazi zuen hori izan dela neurriak onartzeko arrazoia.

MUGIKORTASUN-ARAUAK

MARTITZENA EZKERO LIBREA DA EAE BARRUKO MUGIKORTASUNA

Herrien arteko konfinamendu perimetrala bertan behera uztea erabaki zuen LABI Aholku Batzordeak joan den egubakoitzean egindako bileran, eta, hala, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia arteko mugimenduak baimenduta daude martitzena ezkero.

Iñigo Urkullu lehendakariak bileraren osteko agerraldian azaldukoaren arabera, "zuhurtziaz" jokatzeko unea da, eta, horregatik, gainerako prebentzio neurriek indarrean jarraituko dute. "Egoera hobera doa, baina beheranzko joera moteldu egin da eta ZIUen okupazioak altua

Hondakin-uretan birusaren arrastoa

Uraren Euskal Agentziatik eman dute aditzera EAEko hondakin-uren analisisen emaitzek erakusten dutela SARS-CoV-2aren material genetikoaren hondarrak atzematen jarraitzen dutela EAEko hondakin-uretan: "Ebidentzia zientifikoak baieztatu du giza irazketetan SARS-CoV-2 birusaren hondakin genomikoak daudela, eta, beraz, hiriko hondakin-uretan atzeman daitezkeela: SARS-CoV-2ak infektatutako pertsona baten irazketetan —sintomak izan edo ez—, batez beste, infekzioa gertatu eta bi egunera".


Hala ere, proba diagnostikoak zenbait egun geroago egin ohi dira. Horrek esan gura du test diagnostikoak egin baino zenbait egun lehenago hauteman daitezkeela biztanleriaren artean COVID-19aren arrastoak, hondakin-urei esker.

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA
100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



izaten jarraitzen du". Hala, "zantzak" aitortu zituen etorkizun hurbileko neurriei begira: birusaren aldaera berriek sortzen duten arriskua, beheranzko joeraren mantsotzea, Europako inguruko herrialdeetako kasuen gorakada eta konfinamendu arintzea azkarregi egitearen arriskuak izanik horretarako arrazoiak. Hala, etxeratzeko aginduak bere horretan jarraituko du, 22:00etatik 06:00etara, elkartzeko muga gehienez lau pertsonakoa izango da eta merkataritza eta kultur jarduerak gehienez ere 21:00etan bukatu beharko dira. Bestetik, ezabatu egingo da 500etik gorako intzidentzia-tasa metatuaren erreferentzia neurri murriztaileak zehazteko. Beraz, eskola-kiroleko entrenamenduak herri guztietan egin ahalko dira.

TXERTAKETA-PLANA

HEZKUNTZA ARLOKO
LANGILEEK TXERTOAK
HARTZEKO TXANDA
ONLINE HAR DEZAKETE

Eguaztenez hasi eta astelehen arte aukera dago Osakidetza webgunean AstraZenecaren txertoa hartzeko hitzordua eskatzeko; betiere, hezkuntza arloko langilea izanez gero, 55 urtetik behera edukiz gero eta sei hilabetearen koronabirusik igaro ez bada. Hezkuntza arloko langileak dira Lehen eta Bigarren

Hezkuntzako, batxilergoko, Lanbide Heziketako, jantokiko, sukaldeko, atezaintzako, administrazioiko, garraio eta garbiketa arloko langileak. Osakidetza SMS bidez bidali duen estekaren bitartez eskatzen dira txandak. Nolanahi ere, mezurik jaso ez bada, zuzenean sar daiteke aurretiko-zita zerbitzuan, Osakidetza webgunearan eta aplikazioaren bidez. Datuei dagokien, txertoa hartzea deituta dauden 35.000 profesionaletatik 11.600ek hartu zuten hitzordua lehen egunean, eta 1.717 pertsona txertatu zituzten.

Bestetik, Gipuzkoako suhiltzaileak eguaztenez hasi ziren txertoa hartzen, Tolosako Oria parkean. Aldundiak egindako aurreikuspenen arabera, 147 suhiltzailek jasoko dute AstraZenecaren txertoa datozen egunetan, eta, Oñatiko suhiltzaile parkekoen kasuan, eguaztenez hasi eta atzo hartu zuten lehen dosia.

Horretaz gain, zapatu goizean hartu zuten txertoa mugikortasun arazoak dituzten 80 urtetik gorako 60 lagunek. Autotik atera gabe jarri zieten Pfizerren txertoa, Debagoieneko Ospitalean egokitu duten gunean.

Azkenik, aipatzekoa da Gipuzkoan 31 puntu berri egokitu dituztela txertaketa-kanpaina aurrera eramateko; eta sei puntu daude ibarrean: Debagoieneko Ospitalea eta Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko osasun etxeak.

"Aste Santurako, bi gela bakarrik daude libre"

PILAR BELASTEGI IBARRE NEKAZARITZA TURISMOKO ARDURADUNA

lazko martxora arte "beteta" izaten zen ostaturia, baina azken hilabeteetan irauli egin da egoera, eta okupazioa %5era jaitsi. Okerrena pasa dela uste du Belastegik, halere

M.S. ANTZUOLA

Dagoeneko Aste Santura begira jarrita dago Ibarreko arduraduna. Erkidegoak itxita egongo dira, baina nekazaritza turismoa euskal jende bezala bete gura du.

Zein da egoera orain?

Ibarre nekazaritza turismoan bederatzi gela bikoitz ditugu, eta aitortu behar dut iazko martxora arte guztiak betetzen ginituela. Beharginei esker izan da hori; izan ere, hartzen ditugun gehienak enpresetako komertzialak izaten dira. Azken boladan, bezero bakarra izaten dugu, batez beste, gau bakoitzeko.

Okupazioa nabarmen jaitsi da, beraz...

Hala da; %5 inguruan ari gara esango nuke. Eta horrekin batera jaitsi da fakturazioa ere. Orain arte mugikortasuna mugatuta izan dugunez, astean zehar ez dugu bezero askorik hartu, baina asteburuetan ere ez. Jakina, ondoko herrietakoak etor litezke, baina horiek gertu dute euren etxea.

Nondik etortzen zaizkizue bezeroak?

Leku askotatik. Baina Estatukoak izaten dira asko. Asteon, adibidez, Valentziatik etorritako bi zapata-saltzaile hartu ditugu.

Martitzena ezker, mugi gaitzke EAE barruan. Asteburu honetan igarri egingo da hori?

Ez dugu aparteko erreserbarik. Agian, goizegi da oraindik, eta, gainera, laster dira San Jose eguna eta Aste Santua. Beste urteetan, martxoa hilabete ona izaten da. Iaztik, baina, abuztua izan da hilabete onena; orduan soilik izan genuen Ibarre beteta.

Nola dator San Jose zubia?

Lau erreserba ditugu, momentuz; beraz, etxe erdi daukagu beteta. Baina oraindik egin daitezke erreserbak.

Eta Aste Santua?

Erreserba dezente ditugu; are gehiago, soilik bi gela geratzen zaizkigu libre. Egutero jasotzen ditugu deiak etxe osoa alokatu



Pilar Belastegi, asteon, Ibarre nekazalturismoaren aurrekaldean. GOIZANE GABILONDO

"ASTE SANTURAKO
ERRESERBA BERTAN
BEHERA UTZI BEHAR
IZAN DUTE BATZUEK,
BIGARREN ALDIZ"

gura dutela esanez, baina hemen ez dugu horrelakorik onartzen, uste dugulako arriskutsua izan daitekeela bizi dugun egoeran talde handiak hartzea.

Edozelan ere, euskal bezeroak hartuko dituzue...

Bai, hala da. Bizkaitik edota Irun aldetik etorriko zaizkigu batzuk. Argi dago Estatutik ezin izango direla etorri. Ildo horretatik, aipatzekoa da iazko Aste Santuan etorri ez ziren bezeroek aurtengorako zutela erreserba egina, eta aurreko bigarren aldiz utzi behar izan dutela bertan behera. Pena handiz hartu dute berria, eta baita guk ere.

Mugak irekitzeko itxaropenik bazenuten?

Egia esan, bai, dagoeneko erreserbak eginda zituztelako. Baina ikusi dugu ez dela posible izango. Hala ere, bezero horien zain izango gara abuztuan.

Zer eskaintzen du Ibarrek?

Ibarren ostaturia eta gosariak eskaintzen ditugu; eguna hasteko otordu ezin hobeak, gainera. Afaririk ez dugu ematen, baina badugu jangela bat eta baita janaria berotzeko tokia ere. Etxeratzeko agindua 22:00etan betetzen denez, bezeroek erositako edo prestatutako janaria ekartzen dute sarri, eta hemen afaltzen dute. Hori gutxi balitz, inguru paregabea gaude: bezeroei sarri gomendatzen dizkiegu inguruetan egiteko ibilalditxoak, eta kostaldera ere joan daitezke.

Zu zeu nola zaude?

Animo aldetik nahiko ondo nago; okerrera pasa dugula uste dut. Inork ez zekien pandemia etorriko zitzaigunik; are gutxiago, tamaina honetako. Baina Ibarren 24 urte daramatzagu gogor lanean, eta horri esker egin ahal izan dugu aurrera. Gainera, seme-alabek badute euren lana, eta, beraz, nik dagoenarekin konformatu behar dut.

Uda nolakoa aurreikusten duzu?

Oraindik goiz da, baina jendea hasia zaigu galdetzen erreserbak egiteko. Txertoak ere ekarri digu itxaropena, eta hobeto egoitea espero dugu, jakina.

Jone Olabarria ARRASATE

Duela urtebete pandemiak ez-tanda egin zuenetik, 5.918 pertsona kutsatu ditu COVID-19ak Debagoienean, eguaztenera arteko datuak kontuan izanda. Horietatik 153 zendu dira gaitzak eraginda; hau da, kutsatu diren ehun laguneko, batez beste, 2,6 hil dira bailaran. Gaur-gaurkoz, Debagoienak 64.809 pertsonako biztanleria du, eta, positibo eman duten pertsonen datuari erreparatuta, %9,1ekoa da batez besteko positibotasun tasa metatua.

Azarokoa izan zen bereziki kutsakorra Debagoienean; orain arte kutsatu diren ia 6.000 lagunetatik 2.000 urriaren 31tik abenduaren 8ra arteko tarte hartan kutsatu ziren.

Gipuzkoako altuena

Gipuzkoako bailaren artean konparaketa eginez gero, Debagoienak du positiboekiko hilkortasun tasarik altuena, %2,5ekoa da; kutsatutako 100 laguneko 2,5 hil dira. Goierri eta Donostialdea dira Debagoienaren atzetik hilkortasun tasa altuena dutenak, %2,3koa, hain zuzen ere. Ostean datoz Debabarrena, %2,1eko tasarekin, Tolosaldea, %1,6rekin, eta Bidasoaldea, %1,4rekin.

Urola Kosta da zifra baxuena duena hilkortasun tasari dagokionez; hau da, kutsatu diren ehun hildako gutxien izan dituen eskualdea. Bertan kutsatu diren ehun pertsonako 1,2 zendu dira, batez beste. Gipuzkoako datu orokorreari erreparatuta ere, positiboekiko hilkortasun tasa altuagoa izaten jarraitzen du Debagoienak. Gipuzkoan 49.112 pertsona kutsatu dira, guztira, eta horietatik 1.077 hil dira, %2,2.


Datuok eskaintzen duten informazioa interpretatu eta, "zaila bada ere", ondorio jakin batzuk eskaintze aldera, Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saileko irakasle eta mikrobiologo Miren Basarasek hipotesi posible batzuk eskaini ditu.

Gehien kutsatu den bailara

Datuok irakurtzeko orduan, beharrezkoa da metaturiko positibotasun tasari ere erreparatzea; hau da, pandemia hasi zenetik biztanleriaren zer zati

Hilkortasun-tasa pandemia hasi zenetik

DATUEN ITURRIA: OSASUN SAILA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Debagoiena da Gipuzkoan hilkortasun handiena duen eskualdea

COVID-19ak Debagoienean kutsatu dituen ehun pertsonako, 2,6 zendu dira bailaran. Gipuzkoako daturik altuena da, eskualdeka aztertuz gero. Datu altu horien zergatia ulertzeko asmotan, Miren Basaras mikrobiologoak zenbait gako eskaini ditu

"Ez da aldaera hilkorrakoa"

Aldaera kutsakorragorik ez dela egon ziurtatu du Basaras mikrobiologoak, ez bailara, ezta eskualde jakin batean ere: "Argi dago ez dela aldaera berezirik egon, hori ondo aztertuta dago, eta orain arteko aldaera guztietan ez da ikusi leku batean edo bestean kutsakorragoa izan denik, ezta kaltegarri edo hilkorrakoa ere".

Gaur-gaurkoz, aldaerak birusaren eboluzio eta eraginean erabakigarriak ez direla dio, baina aitortu du etorkizunean "gertutik" jarraitu beharko direla.

hilkortasun tasan ez da horren besterako alderik nabarmentzen: %2,6. "Gehiago kutsatu zarete, baina heriotza tasarekin konparatuta baxuagoa izan da. Hilkortasun tasa altua duzue Debagoienean, baina egia da Donostialdean, gutxiago kutsatuta ere, pareko hilkortasun tasa dutela", azaldu du Miren Basarasek.

Adinekoak, "erabakigarriak"

Debagoienean hil diren 153 pertsonetatik 60 adinekoen egoitzetan zendu dira, hildako guztien %39 da. Debagoienean

KUTSATU DIREN 100 PERTSONATIK 22,3 HIL DIRA ADINEKOEN EGOITZETAN DEBAGOIENEA

daude Gipuzkoa osoko 65 egoitzetako zazpi, eta guztietan izan dituzte COVID-19 kasu positiboak. Gipuzkoako gainerako egoitzen artean, %65ean izan dituzte kasu positiboak. Miren Basaras epidemiologoaren arabera, adina izan daiteke, gaur-gaurkoz, Debagoienak duen kutsatze eta heriotza tasen eragile nagusia: "Biztanleriaren adina, adinekoen egoitzen kopurua eta horietan bizi den egoera bereziki erabakigarriak dira. Adinekoen egoitzak oso kolpatuak izan ziren lehen olatuetan, agerraldi epidemiko handiak eta kutsatze tasa altuak izan zituzten, eta horrek eragin dezake. Bailaren arteko ezberdintasuna zaharren egoitzen kopuruari eta egoiliarren kopuruari ere atxiki dakioke".


Biztanleria zaharkitua?

Hala ere, adinen egoitzetatik kanpo zendu diren herritarren nolakotasunari ere erreparatu behar zaiola azaldu du Basarasek: "Adinekoen egoitzetan soilik ez, ikusi da orain arte, behintzat, hiltzen zen populazioaren gehiengoa 65 urtetik gorakoa dela, ez bakarrik zaharren egoitzetakoak. Hortaz, biztanleriaren nolakotasunari erreparatu behar zaio; biztanleria zaharkituagoa du Debagoienak bestelako eskualdeekin alderatuz gero? Aukera bat izan daiteke".

Galdera horri tiraka, eta Eustatek eskaintzen dituen datuen arabera, 2020an Debagoieneko biztanleriaren %23,62k zuen 65 urte edo gehiago, 14.954 lagunek. Nahiz eta oraingoan ere bailarako datua probintziako batez bestekoaren gainetik dagoen, Gipuzkoa osoko datua parekoa da; gipuzkoarren %22,5 kokatzen da adin tarte horretan. EAEko datua, berriz, %22,8koa da.

Egoitzen egoerak, isla herrietan

Gipuzkoako Foru Aldunditik helarazitako datuen arabera, bailarako bost egoitzetan izan dituzte koronabirusagatik hildakoak iazko martxotik hona. Eskoriatzako Jose Arana, Oñatiko San Martin, Bergarako Mizpirualde, Arrasateko Iturbi-de eta Aretxabaletako GSR Debagoiena dira. Guztira, 545 plaza daude Debagoieneko egoitzetan, eta horietatik 269 egoiliar kutsatu dira. Heriotza tasa metatua kutsatuekiko %22,3an kokatzen da zentroetan; hau da,



egoitzetan kutsatu diren 100 egoiliarretik 22,3 zendu dira.

Jose Aranan egoiliar bat hil da pandemian zehar, baita San Martinen ere, baina Iturbide, Mizpiruade eta GSR Debagoiena egoitzak bereziki kolpatu ditu birusak; 26, zortzi eta 24 hildako izan dituzte, hurrenez hurren. Datuok, "zalanza barik", herriz herriko hilkortasunean eragina izan dutela azaldu du Basarasek: "Debagoienean hil diren pertsonen ia erdia egoiliarrek izan dira, kopuru altua da, eta horrek eragina du egoitza horiek dauden herrietako datuetan".

Basarasen hipotesiari jarraiki, egoitzetan kasu positibo eta hildako gehien izan dituzten herriek dute ere hilkortasun tasarik altuena: Arrasate, Aretxabaleta eta Bergara. Hala ere, egoitzen egoera "oso zaila" izan dela aitortu du Basarasek, eta egin-dako lanak azken hilabeteotako hilkortasuna jaistea eragin duela zehaztu du: "Babes neurri sendoak hartu dituzte egoitzetan, adinekoak beraiek ere kontzientzia berezi hartu dute, eta horrek eragina izan du".

Arrasate, kaltetuena

Aipatu moduan, bailarako herrietan koronabirusak utzi dituen hildakoei dagokienez, Arrasatek du kopururik altuena, 76 hildakorekin. Gipuzkoako eta Debagoieneko batez besteko datutik gora dago. Hala, bertan kutsatu diren ehun pertsonatik hiru zendu dira. Gogoratu behar da

kutsatuekiko hilkortasun tasak positibo eman duten pertsonen artean zenbat zendu diren jakitea ahalbidetzen duela.

Aretxabaleta eta Bergara dira hurrenak zerrendan, 17 lagun hil dira Aretxabaletan eta 37 Bergaran, guztira. Hala ere, kontuan izan behar da Bergarak bikoiztu egiten duela Aretxabaleta biztanleriarekiko, eta tasari dagokionez nahiko datu bertsua dute; kutsatuen %2,96 hil da Aretxabaletan eta %2,91 Bergaran.

Hilkortasun tasari erreparatuta ere, Eskoriatza eta Elgeta nahiko egoera berean izan dira pandemian; Eskoriatzan sei pertsona hil dira, eta bat Elgetan. Bi herriek, baina, antzerako tasa dute: %1,96 Elgetan eta %2,04 Eskoriatzan. Oñati, Aramaio eta Antzuola dira azkenak zerrendan. Oñatin hamalau lagun zendu dira, bat Antzuolan eta bat Aramaion. Kutsatu diren ehun pertsonako 1,5 hil dira Oñatin, 0,52 Antzuolan eta 0,73 Aramaion.

Leintz Gatzaga da pandemia hasi zenetik COVID-19ak kutsatutako hildakorik izan ez duen bailarako herri bakarra.

Ezberdintasunak, nabarmenak

Debagoieneko herriak Gipuzkoako beste bailara batzuetako udalerriekin alderatuz gero, ezberdintasun nabarmenak ikus daitezke. Adierazgarria da, esaterako, Bergararen eta Azpeitiaren arteko konparaketa; 15.100 biztanle inguru dituzte biek.

Azpeitiak 1.549 kutsatu izan ditu; Bergarak, aldiz, 1.273. Azken horrek, kutsatu gutxiago izanda ere, Azpeitiak baino 30 hildako gutxiago izan ditu. Zazpi lagun zendu dira Azpeitian, eta 37 Bergaran.

Beste adibide bat jartze aldera, konparaketa bera egin daiteke Urretxu eta Aretxabaletarekin ere; 7.000 biztanle inguru dituzte biek: Urretxun 409 lagun kutsatu dira, eta 574 Aretxabaletan. Hildakoei dagokienez, aldiz, handia da aldea: Urretxun baino

hamar pertsona gehiago hil dira Aretxabaletan. Urretxuk zazpi hildako izan ditu pandemian, eta hamazazpi Aretxabaletak.

Etorkizunerako itxaropentsu

Adinekoen egoitzen immunizazioarekin, birusaren hilkortasunak behera egitea espero dutela azaldu du Basarasek: "Adina bereziki erabakigarria izan dela uste dut. Egoiliarrek eta adinekoek txertoa jarrita dutela kontuan izanda, orain beste egoera batean gaude, per-

tsona horiek jada immunizatu daudelako. Hemendik aurrera espero dena da hilkortasun tasa hori jaistea".

Hala ere, birusak gazteengan ere eragina duela ezin dela ahaztu gogorarazi nahi izan du Miren Basara mikrobiologoak, eta hilkorra ere badela: "Hirugarren olatutik hasi eta orain arte ikusten ari garena da gero eta pertsona gazteagoak kutsatzen direla, larri pasatzen dutela gaitasuna, eta, zoritxarrez, hiltzen ere ari direla".

Hildakoak herriz herri			
	Biztanleria	Kutsatuak	Hildakoak
ARRASATE	22.082	2.476	76
BERGARA	15.036	1.273	37
OÑATI	11.468	912	14
ARETXABALETA	7.080	574	17
ESKORIATZA	4.103	294	6
ANTZUOLA	2.179	193	1
ARAMAIO	1.480	137	1
ELGETA	1.131	51	1
GATZAGA	250	8	0
DEBAGOIENA	64.809	5.918	153

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Enkargatu zure produktu freskoak

Ohiko dendan

➤ Azkar. lllararik egin gabe

➤ Zure gustura

➤ Seguru

Eta jaso puntu seguru batean, aukeratzen duzun egunean eta orduan

Egin zure enkargua!

100€-tan

baloratutako 50 orga zozketatuko ditugu*

EROSKI zurekin

*EROSKI club txartelaren eta EROSKI club urrezko txartelaren titularentzako sustapen eskusiboa. 2021eko martxoaren 11tik maiatzaren 5era, biak barne, 100 €-ko zenbatekoa EROSKI club-eko txartelean sartuko da.

Oinarrizko ezagutzeko, joan
eroski.es/sorteo-encargos helbidera



Maria Ubarretxena, bulegoko balkoian. GOIENA



Gorka Artola, Bergarako udaletxeko balkoian. GOIENA

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Egoera berrietara moldatzeko gaitasuna edukitzea eskatzen zaie politikariei, eta, alde horretatik, ikasgai handia izan da COVID-19a bailarako agintarien-tzat. Ez da urte atsegina izan agintean egoteko; bai, ordea, "zaila eta gogorra", eta Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako alkateen bizipen pertsonalak jaso ditu GOIENAK. Bitxikeria gisa, lau alkateetako inor ez da COVID-19arekin kutsatu, baina denei egokitu zaie etxean konfinatuta egotea, edo etxeko norbait konfinatzea.

Zailtasun ugari

Aurrez birusarekiko beldurra zabaldua zegoen arren, 2020ko martxoaren 15ean ezarri zen alarma egoera, eta horrek goitik behera aldatu zuen herritarren bizimodua. Ordutik hona, askotariko zailtasunei aurre egin behar izan diete herri agintariak, eta hauek gogoratzen ditu, bereziki, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak: "Asko izan dira momentu zailak, eta asko izan dira momentu zailak pasatu behar izan dituztenak ere. Hala ere, gogoan ditut senideak galdu zituztenak eta konfinamendua dela-eta horiek agurtzeko aukerarik izan ez zuten horiek. Badakit oso une zailak bizitzea tokatu zaiela, eta alkate bezala inopotentzia sentitzen duzu halako egoera baten aurrean".

Bergarako alkate Gorka Artolaren esanetan, lehen hilabeteetako "ezjakintasun egoeran erabakiak azkar hartu behar izatea" izan da pandemiari aurre

Urte pandemikoa, agintean jarduteko "gogorra" eta ezohikoa

Aurki beteko da urtebete alarma egoera ezarri eta orain arteko bizimodua hankaz gora jarri zela. Bailaran biztanle gehien dituzten lau herrietako alkateek bizitako zailtasunak azaldu dituzte, eta gehienek adierazi dute informazio falta izan dutela

egitearen alde gogorrena: "Zailena, akaso, pandemia hasi zenean erabakiak hartu behar izana, sekulako ezjakintasuna zegoenean. Guztion osasuna zegoen jokoan, eta informazio falta oso handiarekin hartu behar izan genituen erabakiak. Orain, ia urtebete pasa den honetan, atzera begiratu eta badugu sen-

tsazioa hartutako lehen neurriak gehiegizkoak zirela. Baina testuinguru nahasi hartan zehaziaz jokatzeko erabaki genuen, orduko egoerak hori eskatzen zuela ulertuta". Oñatiko alkate Izaro Elorzarentzat, "dekretu zaparradara egokitzea" eta "informazio falta" izan dira zailtasun handienak: "Hasieran, oso

azkar erantzun behar izan genuen: Zerbitzuak moldatu, langileak antolatu, herritarrei komunikatu... Dekretuen eguneroko zaparrada bizi izan genuen, eta moldatzeko gaitasun handia eskatu zigun instituzioei. Arreta berezia jarri genuen egoera zaurgarrietan zeudenean, pandemiak are zaurgarria-

go bihurtu dituelako. Informazio falta handia eduki dugu udalok, bai hasieran eta baita ostean ere. Hala ere, zerbitzu txukuna ematen ahalegindu gara: azokak mantenduz, zaintza zerbitzuak jarritz eta kultur ekimenak ahal zen neurrian eginez".

Aretxabaletako alkate Unai Elkorok oso garbi du zein izan den unerik kritikoena: "Aretxabaleta eremu gorriera pasatu zenean eta GSR egoitzan agerraldia izan zen momentua dut oso gogoan. Gabon inguruan zen, tabernak itxita zeuden, eta jendea nahiko haserre zegoen; egoerarekin etsita, nolabait esateko. Horrez gain, hainbat komunikabidek GSRko egoeran jarri zuten arreta, eta esango nuke, modu batera edo bestera, bertako langileen profesionaltasuna zalantzan jarri zutela. Baina urte honetan ikusi dugu egoera pandemikoa oso aldakorra dela: gaur zu zara okerrera, eta bihar beste bat. Igartzen duzu egoerarekiko jendeak duen etsipena eta nazka gorantz doazela, eta ez da atsegina une horietan erabakiak hartzea".

Kalteak herriko ekonomian

Herriko ehun ekonomikoan kalteak leuntzeko egin dute lan udalek, eta honako gogoeta hauek egin dituzte gaiari buruz. "Pandemiak gure egunerokoa aldatu zuen egun batetik bestera, eta horrek eragin nabariak izan zituen, hasieran, komertzioetan eta ostalaritza negazioetan. Baina ez eurengan bakarrik; enpresa txiki askoren jarduna ere asko baldintzatu zuen, koopera-


Ikasgaiak arlo pertsonalean

Zailtasunei aurre egitea ikasteko modu bat da, eta urte honetan irakasgai berriak barneratu dituzte. Maria Ubarretxenak zera aitortu du: "Ziurtzat jotzen genuena ez dela hain segurua ikasi dugu. Horrez gain, bestearekiko enpatiaren garrantziaz jabetzeko balioko duela uste dut. Garrantzitsua den zerbait da, berez, baina egoera zailetan, are gehiago".

Gorka Artolak zera barneratu du: "Erabakiak hartzeko gaitasuna eman dit. Zirt edo zart egiteko gaitasuna barneratzen duzu, egoerak hala eskatzen duelako. Hartzen dituzun erabaki guztiekin asmatzea ezinezkoa dela erakutsi dit pandemiak; hori barneratzen".

"Ikasketa prozesu ikaragarria izan da. Gure errealitatea eta gure gabeziak hobetu ikusteko

balio izan dit. Gobernuak kideen harremana sendotu egin da, eta baita beste udal batzuekin ditugun aliantzak", adierazi du Izaro Elorzak. "Alkate gisa zaila da alde guztiak pozik uztea. Berez, ia ezinezkoa da, eta halako egoera batean, are gehiago. Aipatzen zen pandemiak gizartearen alde onena azaleratuko zuela, baina onena eta txarra azaleratu direla uste dut", dio Unai Elkorok.



Izaro Elorza, Oñatiko udaletxean, bulegoan. GOIENA



Unai Elkorok, Aretxabaletako udaletxeko bulegoan. GOIENA

tibetan ordu negatiboen pilaketa... Hala ere, egia da ostalaritza beste edozein sektoreri baino neurri murriztaile gehiago aplikatu zaizkiola, eta oraindik ere aplikatzen ari zaizkiola. Arrasateko datu zehatzik ez daukagu, baina, Gipuzkoako ostalarien sektoreak aditzera eman duenez, euren negozio bolumenak %40 egin du behera. Hori dela eta, ahalegindu gara, ahal izan dugun heinean, behintzat, laguntza zuzenak ematen, eta zerga eta tasetan hobari bereziak aplikatzen", adierazi du Maria Ubarretxena.

Hona Gorka Artolaren gogoea: "Sektore eta pertsona askok sufritu dituzte pandemiaren eraginak. Komertzioek eta ostalariak, nola ez, baina baita lana galdu dutenek, ERTEan egon direnek, oraindik ERTEan jarraitzen dutenek... Akaso, komertzioek eta ostalaritzak ikusgarritasun handiagoa izan dute, baina ezin ditugu besteak ahaztu. Ahalegindu gara kalteak izan dituzten horiekin guztiekin harrimana izaten. Laguntzak eman genituen itxialdiaren ostean aktibitatea berrartzeko, eta 160 establezimendu inguruk jaso zituzten. Beste deialdi bat jarri genuen ostalari, banatzaile eta landetxeentzako, eta bi bonu kanpaina ere jarri ditugu martxan: itxialdi osteko eta udazkenekoa. 800.000 euroko injezio ekonomikoa ekarri du herrira. Hala ere, itxi egin behar izan duten aktibitateak izan dira herrian: bidaia agentziaren bat, atea berriz ireki ez dituen taternaren bat...".

"Arduratuta bizi izan dugu komertzioen eta ostalaritzaren egoera, nola ez. Negozio horien atzean familia asko daude, bertatik finantzatzen direnak. Azken finean, adituek erabakitzen badute ostalaritza kutsatze foku bat izan daitekeela, eta atea ixtea beharrezkoa dela, dirulaguntza batzuk eman behar zaizkie familia horiei, neurri horiek aplikatzen hasi orduko. Nire ustez, hori falta izan da. Gu euren batzartu gara, eta ahalegindu gara dirulaguntza horiek bideratzen. Komertzioekin ere bonuen kanpaina jarri dugu, eta ahalegindu gara eurei diru sarrera batzuk bermatzen. Ostalaritzara 72.000 euro bideratu ditugu eta bonuetara, aldiz, 150.000 euro", azaldu du Elorzak.

Itxiera perimetralen ondorioak

Ostalaritzaren egoera are lagarriagoa dela aitortu du Unai Elkorok: "Hasieran, industria arloan oso eragin handia izan zuen, baina, gerora, aktibitatea jarraitu dute eta kalteak ez dira komertzioetan eta ostalaritzan izandakoak bezain sakonak. Lehen konfinamenduak berdin eragin zien komertzioei eta os-

talariei, baina udazkenetik hona ostalarien egoera asko okertu da. Konfinamendu perimetralak, adibidez, eragin positiboa izan du komertzioetan, lagun asko herrian bertan erostera bultzatu dituelako. Baina ostalarien kasua ezberdina da: ixtera behartu dituzte, eta konfinamendu perimetralak ez die lagundu. Ez hori bakarrik: orain ere zabalik daude, baina ordutegi murriztuarekin, eta, adibidez, 20:00etan itxi beharrak eta afaririk zerbitzatzeko aukerarik ez izateak sarrerak gutxitzea eragiten die. Galera handiak eduki dituzte, eta, nire ustez, ulergarriak dira egin dituzten mobilizazioak".

Txaloak herritarrei

Pandemiari aurre egiteko agintarien neurriek eragin nabarmena izan dute. Baina neurriek soilik ez dute askorako balio, pertsonak ez badituzte horiek behar bezala betetzen, eta herritarren jokabidea txalotu dute alkateak. "Balioan jarri nahiko nuke hasiera-hasieratik herritarrek elkarri laguntzeko agertu duten jarrera hori. Maskara faltarekin, adibidez, herritar talde bat aritu zen maskarak

egiten eta banatzen, maskara donazioak jaso genituen... Herriak borondatea erakutsi du elkarlanerako eta elkarri laguntzeko, eta hori azpimarratzeko modukoa dela uste dut. Pandemiaren alde positiboa, nolabait esateko. Egon dira jokabide txarrak, noski. Baina gutxiengoa dira, eta onarekin geratzen naiz", azaldu du Maria Ubarretxena.

Jokaera desagokiak hauspotu

Hausnarketa hau egin du herritarren jokabideari buruz Gorka Artolak: "Saiakera moduko bat egon da herritarren jokaera desagokiengan arreta jartzeko. Gauza txarrek onak baino oihartzun handiagoa izan duten sentazioa dut. Gutxi batzuen ardura falta orokortzea oso arriskutsua da, eta, nire ustez, orokorrean, herritarrek modu arduratsuan erantzun dute. Ez da horrenbesteko arretarik jarri, adibidez, pandemia hasieran zaintza kolektiborako egindako elkarlan boluntarioan; bide batez, guztiz txalogarria dena. Ardura kolektibizatzeak gai izan gara, eta datozen urteetan gaitasun hori edukitzea asko eskertuko dugu".

Kutsatzeek gora egiterakoan herritarrek izandako portaera nabarmendu du Izaro Elorzak: "Herritarren jokabideari buruz hitz egiterakoan, esker ona eta txaloak besterik ez dut. Beti dago zer hobetu, baina ezin dugu testuingurua ahaztu: urtebete daramagu askotariko neurriak betetzen, amaiera non dagoen ez dugu oraindik ikusten, neurri asko oraindik indarrean daude... Baina nekea egon arren, neurriak betetzen jarraitzen dugu eta aurrera goaz. Berriki ikusi dugu olatua datorrenean herriak nola erantzun duen. Egoera lasaia denean denok dugu erlaxatzera jotzeko joera, baina une larrietan herriak ondo jokatu du".

Herritarren "zuhurtzia" gorai-patu du Unai Elkorok: "Gehien-go zabal batek oso zuhur jokatu du. COVID-19ak ez ditu adin tarte guztiak berdin kolpatzen. Batzuek ez du apenas eraginik, eta adin batetik gora eragin oso larriak ditu, eta horrek eragina du kolektibo horien jokabidean. Muturreko bi egoera horiek arduratzen naute, baina bi horien artean dagoen gehien-go zabal batek jokabide eredu-garria izan duela uste dut".

"SENIDEAK GALDU ETA EZ AGURTZEA OSO GOGORRA IZAN DA"

"ZIURTZAT JOTZEN GENUENA ZIURRA EZ DELA IKASI DUGU"

MARIA UBARRETXENA, ARRASATE

"ERABAKIAK %100EAN ZIUR EZIN DIRELA HARTU IKASI DUGU"

"INFORMAZIO FALTAK ASKO ZAILDU DIGU ARAUAK BETEARAZTEA"

GORKA ARTOLA, BERGARA

"INFORMAZIO FALTA HANDIAREKIN EGIN DUGU LAN UDALOK"

"IKUSI DUGU ZAINZTA ARLOAN BADUGULA ZER HOBETU"

IZARO ELORZA, OÑATI

"AGINTALDIKO URTE BAT GALTZEA EKARRI DIGU"

"OSTALARIEN EGOERA IKUSITA, ULERGARRIAK DIRA MOBILIZAZIOAK"

UNAI ELKOROK, ARETXABALETA

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Pasa duten urte gogorren ostean, etorkizunari "ilusioz eta itxaropentsu" begiratzeko aitzakiak dauzkate zaharren egoitzetako zuzendariek. Ezbairik gabe, COVID-19aren aurka txertaketa kanpaina giltzarria izan da jarrera baikor hori barneratzeko. Duela hilabete inguru jaso zuten erresidentzietako erabiltzaileek eta langileek bigarren dosia, eta eragin nabariak direla ez dute ezkutatzen; izan ere, 2021ean zehar positiborik ez dute atzeman koronabirusak gehien kopatu dituen Debagoieneko hiru egoitzetan: Bergarako Mizpirualden, Arrasateko Iturbiden eta Aretxabaletako GSRn "lasaiago" dabilta orain, bertako zuzendarien hitzetan. Egunerokotasunari "umore alaiagoarekin" heltzen diote, duela hilabete batzuk ez bezala.

Olatuen bilakaera

Lehenengo eta bigarren olatuek eragin zituzten kalte handienak erresidentzia horietan; Iturbide egoitzarena izan zen kasurik deigarriena. Besteetan ez bezala, martxoa eta maiatza artean sartu zen indarrez COVID-19a bertan, eta egoiliarren artean baja ugari sorrarazi. Olatz Etxabe zuzendariak gogoratu du aste haietan "une latzak" bizi izan zituztela, baina maiatzetik aurrera "egoera kontrolatzen" ikasi zutela: "Garai hartatik hona, egoiliarrek bizitza arrunta egin dute erresidentzia barruan, ez baitira guztiz isolatuta egon, beste egoitza batzuetan gertatu den bezala". Erabiltzaileek kanpora irtetea galarazita bazuten ere, barruan euren bizi kalitatea "askorik aldatu ez zela" nabarmendu du Etxabek.

Uda ostean hedatu zen koronabirusa, aldiz, Bergarako eta Aretxabaletako egoitzetan. Mizpirualdeko zuzendari Alazne Irazabalek "lehen olatutik bigarrena egon den aldea" nabarmendu nahi izan du: "Udaberrian ez geunden prest gaixotasunari aurre egiteko, ez baikenuen babes neurri eta informazio nahikorik. Udazkeneko agerraldian baliabide horien jabe ginen, eta, gainera, Foru Aldundiak Eibarren eta Ordizian egoiliarrak artatzeko errefortzuak jarri zituen; ondorioz, Bergaran bizi diren erabiltzaile batzuk herri horie-

Egoitzetako zuzendariek baikorrago begiratzendiote etor litekeenari

Txertaketa kanpainak "batez ere onurak" ekarri dituela azpimarratu dute Debagoiena GSRko, Iturbideko eta Mizpirualdeko zuzendariek. Nagusien egoitzetako egoerak hobera egin du azken hilabeteetan, positiborik ez baitute atzeman 2021ean zehar



Alazne Irazabal, Marije Zabaleta eta Olatz Etxabe, Mizpirualdeko, GSRko eta Iturbideko zuzendariak. GOIENA

tara eraman genituen, birusaren kutsapena ekiditeko".

Bereziki Aretxabaletako egoitzan abenduan gertatutako kutsatze masiboa izan du hizpide GSR kooperatibako zuzendari den Marije Zabaletak: "Oraindik ez dakigu zehazki zerk eragin zuen birusaren hedapen bizkor hura, adituek egindako ikuskaritza guztietan ondorioztatu baitute beharrezko baldintza guztiak betetzen genituela". Bajak egon zirela kontuan duen arren, gai-

xotasuna dozenaka egoiliarrek gainditu zutela mahaigaineratu du Zabaletak. Uste du jasotzen duten "zainketaren kalitatea" izan dela errekupeazio horien arrazoi nagusia: "Nagusientzako elikadura oso garrantzitsua da, eta guk bertako produktuekin eginiko jakiak ematen dizkiegu egunero". Bestalde, komunikatzeko erabiltzen duten lengoaia ere azpimarratu nahi izan du GSRko zuzendariak, eta Aretxabaletako egoitzara gerturatu izan

den bakoitzean erabiltzaileek mezu positiboa transmititzen ziela aipatu: "Egoiliarrek beti aipatzen zidaten ez ziotela zomorroari beldurrik, eurak indartsuagoak zirela, eta hori, hein batean, profesionalekin landu duten hizkera baikorraren ondorio izan da, mezu positiboen transmisioak zuzenean eragiten baitu adinekoaren mentalitatean". Animatzaileekin eginiko ariketek ere lagundu dute horretan, gainera.

Irakaspenak, "barra-barra"

Oso epe laburrean asko ikasi dutela aipatu dute hiru zuzendariak. Olatz Etxabek, esaterako, martxoa eta maiatza artean COVID-19aren inguruan "ia master bat" atera zutela dio, kontingentzia plana diseinatzeko "baliagarria" egin zitzaiena. Alazne Irazabalek, ostera, egoiliarrak talde txikietan egotearen garrantzia aipatu du: "Norberaren profilaren arabera, planta batean edo bestean daude egoiliarrak, eta, beste solairuetan daudenak aurrez aurre ikusten ez badituzte ere, karten edo Whatsappen bidez izaten dute elkarren berri". Marije Zabaletak uste du hartu dituzten babes-neurri batzuk finkatu egingo direla aurrerantz: "Musuko gabe aritzea baimentzen duten egunean, guk gertuko jardueretarako erabiltzen jarraituko dugu, gripea eta gastroenteritisa ez kutsatzeko asko laguntzen dutelako".

Hirurak datoz bat erabiltzaileak orain pozik daudela adierazteko orduan. Isolatuta egotetik kanpora irtetera eta bisitak jasotzera pasa dira, eta bizitzari "jarra- baikorrarekin" aurre egitea ahalbidetu du horrek. Egoitzetako langileek duela urtebete baino gehiago bizi zuten normalitatea berreskuratu nahi dute, nahiz eta pauso horiek poliki-poliki ematea komeni: "Familiek egoitzen egunerokotasunean parte hartzeko gogo handia daukagu, eta espero dugu berandu baino lehen gertatzea hori", dio Mizpirualdeko zuzendariak.

Txertoaren ikerketa

Egoera horretara iristeko, ordea, COVID-19aren aurkako txertoaren eragina eta immunitatea zehatz-mehatz jakitea beharrezkoa izango da. Olatz Etxabek aipatu du hilabete barru izango dituztela eskuetan datu berriak: "Dosiak hartzeko maiztasuna zein izango den finkatuko dute ikerketa epidemiologikoek; bali- liteke urtero hartu behar izatea txertoa, edo berriz ere gehiago hartu behar ez izatea. Mota horretako informazioa iristen zai- gunean erabakiko dugu indarrean dauden neurriak malgutu ahal ditzakegun, baina oraindik goi- zegi da horretarako". Populazio osoa txertatzen denean ere egon- go da normaltasun osoan pen- tsatzeko motiborik; ordura arte, pausoz pauso ibili behar.

"LASTER, PANDEMIA AURREKO ASMOEI HELDUKO DIEGU"

"LANGILEEK ONDO EZAGUTZEN DITUZTE EGOILIARRAK"

ALAZNE IRAZABAL, MIZPIRUALDE

"ADINEKOAK HOBETO MOLDATZEN DIRA ORAIN ELKARREKIN"

"DATUEK ERAKUSTEN DUTE EAE-N ZORROTZ ARI GARELA LANEAN"

MARIJE ZABALETA, GSR

"EGOITZON ARTEAN ETENGABEKO HARREMANA DUGU"

"GIZARTE MAILAN ERE HOBETUNTZAK ESPERO DITUGU"

OLATZ ETXABE, ITURBIDE

Hasier Larrea DEBAGOIENA

2000. urtean hasi zen Debagoieneko ESIn lan egiten, mediku, eta duela sei urtetik dabil osasun langileen interesak defendatzen. Uztailen izendatu zuten ESSko idazkari nagusi.

Espero zenuen COVID-19ak, gutxienez, urtebete irautea gure alboan?

Egia esateko, bai. Birus arrunta ez zela ikusi genuen hasieratik, kutsatzeko gaitasun handia zeukalako.

Jendea kontziente da kutsatzeko gaitasun horretaz?

Ez guztiz. Pertsona bakoitzak beste hiru pertsona kutsatu ditzake berehala; gripea baino askoz ere kutsakorragoa da, beraz. Pentsa, kasu bat atzematen ez bada, astebetean 200 kutsatze eragin ditzake.

Hala ere, orokorrean, gizartearen jarrera nolakoa izaten ari da?

Gizarte bezala birusarekin bizitzen ikasi dugu. Adibidez, orain, errazagoa da etxetik irten aurretik giltzak ahaztea musukoa ahaztea baino. Bestalde, osasun langileok ere prestatuago gaude orain, bai profesionalki eta baita baliabide aldetik ere.

Artatzeko orduan, zer ikasi duzue urtebetean?

Orain, badakigu ze zailtasun ematen dituen koronabirusak, eta nola tratatu zailtasunok. Esaterako, pneumoniak atzemateko orduan, lehen, zaila egiten zitzagun erradiografia batean halakorik identifikatzea, ez delako beste pneumoniak bezalakoa; orain, ordea, ia berehala dakigu pazienteak COVID-19ak eragindako pneumonia daukan edo ez.

Beharbada, pandemiak balio izan du betidanik izan dituzuen gabeziak bistaratzeko, ezta?

Hori da. Beti salatu izan dugu Osakidetzan pertsonala falta dela. Krisi garaiotan salbuespeneko erantzuna eman diogu gabezia horri, MIR formakuntza amaitu gabe duten ikasleak kontratatu ditugulako lan ez-asistentzialak egiteko; hau da, az-tarnari lanak egiteko edota telefonozko arreta zerbitzua emateko, baina inoiz ez pazienteekin aurrez aurre tratatzeko.

Zeintzuk izan dira osasun langileek urtebetean gehien partekatu dituzuen kezak?

Arazo handienak lehen asteetan gertatu ziren, musukoak eta halako baliabideak falta genituenean. Egun osoa ematen genuen maskara berarekin, eta horrek asko kezkatzen gintuen.



Mabel Artziniega medikua, Debagoieneko Ospitale nagusiko sarreran. H.L.

"Lasaiago lan egiten dugu orain, baina zuhurtziaz"

MABEL ARTZINIEGA EUSKADIKO SENDAGILEEN SINDIKATUKO IDAZKARI OROKORRA Osasun krisi bete-bete hartu zuen mediku bergararrak Osakidetza langileen interesak defendatzeko ardura. Gaizki pasa duela onartu arren, ikuspuntu baikorra du

Bestalde, orain greba egingo bagenu, zerbitzu minimoak eskainiko beharko genituzke, ezta? Ba, une honetan, teorikoki egoera normalean egonda, zerbitzu minimoak eskaintzen gabilta: larrialdi zerbitzuetako eraikinean

"ORAINDIK GOIZEGI DA TXERTOAREKIN KUTSATZEK BEHERA EGINGO OTE DUTEN BAI EZTATZEKO"

lau mediku gaude, eta sei egon beharko ginatke. Beste osasun zentroetan egoera berean daude. **Orain, aldarte hobea daukazu, behintzat.**

Egia da. Aste Santu ostean nola egongo garen ez dakigun arren, orokorrean, hobeto gaude. Batzuetan, egun txarrak izaten ditugu, lan askokoak, baina ez da lehengo sentsazioa, ez baike-nekien pazienteak non sartu: muturreko egoera zen. Asko oso grabe etortzen ziren, eta ez genekien zer egin.

Nola eragin dizue horrek pertsona bezala?

Oso nekagarria izan da, eta jarraitzen du izaten. Estres handia dugu, lan metaketagatik eta gauza berri bati aurre egin behar izan diogulako. Baina okerrean

"OSAKIDETZAK DEIALDI MASIBOAK DEITU BEHARKO LITUZKE, LANGILE GEHIAGO LORTZEKO"

konponbidea zein izan litekeen ez jakitea izan da, oposizioekin gertatu den bezala. Azken urte honetan ireki dira deialdiak, baina oso murrizak izan dira, plaza gutxiok.

Eta zer eragiten du horrek?

Prestatuta dagoen jendeak izenik ez ematea. Lanean hasi nahi dutenek euren espezialitatean egin nahi dute, ez dute onartzen gaur hemen, bihar hor eta etzi han egotea. Lanpostu aproposak nahi dituzte, eta horretarako plaza asko eskaini behar lituzke Osakidetza; hau da, deialdi masiboa deitu. Osakidetza ikerketa egin beharko luke, osasun langileen artean behar handiagoa non dagoen jakiteko.

LABik mugikortasuna baimendu du EAEn. Ondo deritzozu?

Gu sistema sanitarioaren kolapsoa ekiditeko edozein neurriren alde gaude. Badirudi txertoak kutsatzen beharakada ekarriko duela, baina hori oraindik ez dago frogatuta. Espero dut Aste Santuan ez edukitzea laugarren olaturik, ze orain arte joera hori nagusitu izan da: mugak irekitzeaz bat, positiboak hazi dira. Suposatzen dut LABik zentzuz hartu duela erabaki hori; hala ere, ez da samurra zer gertatuko den jakitea.

Txertoa aipatu duzula, Osakidetza langile guztiok jaso duzue?

Osakidetza datuen arabera, ia-ia guztiok jaso dugu lehen dosia, eta erdiek bigarrena. Horrek ez du esan nahi adituen gomendioak jarraitzen ez ditugunik, ezta EPI trajea janzten ez dugunik ere, babes neurri guztiak erabiltzen jarraitzen baitugu. Baina beste lasaitasun batekin ari gara orain, badakigu kutsatuz gero modu arinagoan pasako dugula gaitza.

Zer esan nahi zenioke gizarteari?

Itxaropena izateko, horixe esango nioke, orokorrean, gauzak ondo egiten gabiltzalako. Osasun egoera guztiz hobetzeko hilabete batzuk falta zaizkigun arren, txertoari esker eta jendearen kontzientziazioari esker udarako hobeto egongo garelakoan nago. Joan den udazkenean, adibidez, zailagoa egingo zatekeen halako mezu positiborik bidaltzea, eta hori pertsona baikorra naizela!

Eta oporrak, noizko?

Momentuz, ez zaigu tokatzen, baina, egoera hobetzen denean, eta ziur nago hobetuko dela, orduan bai, hartuko ditugu.

"Ipar eta hego sasimuga guk eraikitzen dugu"

LIBE GOÑI SEASKAKO SORTZAILEA ETA 'MONZON-GANUZA' SARIAREN IRABAZLEA 1969az geroztik buru-belarri aritu da Ipar Euskal Herriko haurrek euskaraz ikas dezaten lanean; isilpeko lan horri esker Olaso Dorrea Fundazioaren lehen saria jaso du

Xabi Gorostidi BERGARA

Asteartean jaso zuen saria, Bergarako Seminarixoa egindako ekitaldi hunkigarrian.

Isilpean eta foku mediatikoetatik kanpo lan handia egindakoa zara. Nola hartu zenuen saria jasotzeko zure izendapena?

Harriduraz hartu nuen, ez bainago batere ohituta era honetako omenaldietako erdigune izatera. Ikastolak nonahi zabaldu behar genituela oso garbi izan genuen garai hartako hainbat irakaslek, eta ni horietako bat gehiago besterik ez naiz izan. Nire ustez, ez dut ezer berezirik egin, nire gogo eta nire bihotza jarraitzea, besterik ez.

Nori eskaintzen diozu saria?

Beti alboan izan ditudan *galtzagorri* eskaintzen diet. Seaska sortzeko eta garatzeko ezinbestekoak izan diren guraso horiek izendatzeko erabiltzen dut *galtzagorri* hitza. Beti egon dira lanerako prest, beti nire alboan, eta euren bultzada hori gabe Seaskak ez luke aurrera egingo. **Monzon-Ganuzak hitzak entzutean zer datorkizu burura? Eduki zenuen eurekin harremanik?**

Urruñan ikusi nuen Telesforo Monzon lehen aldiz. Gogoan dut amarekin joan nintzela, eta Bertsolari Eguna zela. Hizlari handia zela gogoratzen dut, karisma



Libe Goñi, Seminarixoa egindako hitz hartzeko une batean. JOKIN BEREZIARTUA

handikoa. Diskurtso txiki bat eman zuen, eta oraindik gogoratzen dut. Euskal Herria arrainez beteriko erreka bat zela zioen, eta arrantzaleak genituela alde batean eta bestean amua botatzen. Saria jasoko nuela esan zidatenean, hori guztiori etorri zitzaidan burura.

Telesforo Monzonek hitzaldi famatu batean utopikoak hitza erabili zuen. Eta zure ibilbidean hainbat utopia egia bihurtu izan dituzu...

Bihurtu ditut, ez. Bihurtu ditugu. Sukalde batean haur gutxi batzuei eskolak ematen hasi eta

gaur egun martxan dagoen ikastolen sarea lortu izana utopia bat zen; baina lortu genuen. Olentzeroren kultura Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hedatzea utopia zen, eta lortu genuen. Gogoratzen dut Gallas-tegik, *galtzagorri* maitagarri horietako batek, bere poltsikotik erosten zituela opariak eta Olentzero moztorra jantzi, eta hark banatzen zizkiela haurrei. Eta horrela beste hainbat utopia.

Zein, adibidez?

Arrangoitzeko festetan inork ez zuen dantzarik egiten; pixkana,

euskal dantzak irakasten hasi ginen. Handik sortu zen Elaia taldea, eta haiek izan ziren eskola frantsesen barnean euskal dantzak irakasten hasi zirenak. **1969an heldu zinen Ipar Euskal Herria, Guardia Zibila atzetik zenuela. Zuen etxean errepresioa zer den bizi izan duzue...**

Gogoan dut txapeloker horiek etxera etorri zirela nire bila, eta amak esan zidan: "Alde hemendik, haien atzaparretan eroriz gero, torturak jasango dituzu eta". Nire lehengusu Mikel Zabalzak ez zuen horrenbesteko zorterik izan, eta, torturatzeaz gain, hil egin zuten. Baina badaude torturatuak izan arren bizirik irtetea lortu dutenak. Ezin dezakegu ahaztu horietako asko barnetik hilda daudela, eta torturak pairatzea heriotza bezalakoa dela askorentzat. *Errepresioa* hitzarekin oso perspektiba laburra dugula iruditzen zait. Eskoletan eta komunikabideetan badirudi dena ETArekin hasi zela, baina ez gaitzen engainatu. Nik 74 urte ditut eta ondo dakit askoz sorburu zaharragoa duela gatazka honek: 1936ko gerra, gerra osteko diktadura... Eurite haietatik, hala-ko lokatzak. Eta sentsazioa dut hori guztiori ahaztu egiten dugula. Sufrimenduak alde guztietan egon dira eta hori aitortu beharra dago. Baina historia ondo azaldu behar da.

Hitz hartzean, Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko muga bukatzeaz hitz egin zenuen. Badago zer egin?

Lan handiena euskaldun buruetan egin behar da, guk eraikitzen baitugu ipar-hego sasimuga hori. Hizkuntzena da horren adibide garbi bat. Hegoaldeko ikastolek, adibidez, euskara, gaztelera eta ingelesa erakusten dute, eta Iparraldekoek euskara, frantse-

Zaloe Ipiñak egindako saria

Monzon-Ganuzak sariaren oroigarria urtero ezberdina izango da, urtero artista berri bati esleituko diote hori egiteko ardura. Aurren, oroigarria Zaloe Ipiñak artista bilbotarrak egindako *Amnesia kolektiboa* artelana izan da. Ipiñak hitza hartu zuen ekitaldian, eta keinu polit eta goxoa izan zuen Libe Goñirekin: "Zu bezalako jendeagatik naiz euskalduna gaur egun. Ikastolan ikasi nuen, eta bertan jaso nuen gurasoengandik jaso ezin izan nuen: gure hizkuntza".

sa eta ingelesa. Baina Euskal Herriko hizkuntzak hiru dira, eta ingelesa ez da horietako bat. Hirurak irakatsi ezean ez gara nazio bat izango.

Ipar Euskal Herrian norbait euskaraz mintzatzen entzuten duzun bakoitzean zer sentitzen duzu?

Poz ikaragarria. Badaude txoferrak euskaldun aurpegia dutenak, baina "egun on!" esan eta "bonjour!" erantzuten dizute. Aldiz, kanpotar itxura duen bati "egun on!" esan eta "baita zuri ere!" erantzuten didanean, esaten dut nire barnean: "Biba zu!".

"EUSKAL HERRIAN HIRU HIZKUNTZA DITUGU, ETA HIRURAK IRAKATSI EZEAN EZ GARA NAZIO BAT"

Esne bilketa egingo du Zaporeak elkarteak asteburu honetan

Arrasaten, Aretxabaletan, Antzuolan eta Aramaion egingo dute, Lesbosko errefuxiatuei bidaltzeko

X.G. DEBAGOIENA

Zaporeak elkarteak, Europa iristen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmo gabeko elkarteak, Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuei laguntza ema-

ten jarraitu nahi du, eta, horretarako, esne bilketa antolatuko du, gaur eta bihar, bailarako lau herritan: Arrasaten, Aretxabaletan, Antzuolan eta baita Aramaion ere. Gaur, ostirala, 17:00etatik 21:00era bitartean

egingo dute bilketa. Bihar, zapatua, aldiz, 09:00etatik 14:00etara izango dute herritarrek esnea emateko aukera. Hauek izango dira bilketa egiteko guneak: Arrasaten, Musakola auzoko Hiper Eroskin egongo dira; Aretxabaletan, Eroskin; Aramaion, Kintelena dendan; eta Antzuolan, Amaia dendan, Aixa frutategian eta Eroskin.

Esne mota konkretu bat bakarrik batuko dute: osoa, brik formatuan eta iraungitze-data luzea duena.

Artzain Eskolako ikastaro amaiera ekitaldia gaur

Eskolak artzaintzako hogeita laugarren ikastaroari amaiera emango dio, eta, ohikoa den moduan, diplomak eta makilak emango dizkiete aurren ikasketak amaitu dituzten ikasleei. Diplomak banatzeaz gain, eskolaren prestakuntza ereduaz azaldu eta lehen sektoreko laneratzetasari buruzko datuak emango dituzte aditzera.

Mugikortasun elektrikoari buruzko online jardunaldia

Mondragon Unibertsitateak *streaming* bidez jarraitzeko jardunaldia egingo du asteartean, mugikortasun elektrikoaren erronkak sakon aztertzeko. Sektore horretan dabilen puntako euskal enpresa hauek hartuko dute parte: Mubil, CAF Power, EVE eta Ingeteam. 09:30etik 12:00era iraungo du, eta aurrez eman behar da izena.



Aramaioiko manifestazioa, plazara heltzen. ARANTZAZU EZKIBEL



Eskoriatzan, ekitaldia dantzan bukatu zuten. IMANOL BELOKI



Saharako Emakumeen Elkartaren ekintza, Arrasaten. JOSU BILBAO



Oñatin, pentsiodunek elkarretaratzea egin zuten. OIHANA ELORTZA



Aretxabaletako manifestazioa, pankarta baten aurrean. MIRARI ALTUBE



Bergaran, sokari helduta egin zuten manifestazioa. NEKANE MUÑOZ



Elgetako ludotekako neska-mutikoak, bi hezitzaileekin. LUDOTEKA



Andramanuelak Emakume Taldekoak, Antzuolako plazan. A.E.T.



Gatzagan, borobilean jarrita dantzan aritu ziren. SORGINAK TALDEA

Debagoieneko kaleak morez jantzi ziren Martxoaren 8an, neurri bereziekin izan bazen ere

Bailarako herri guztietan egin zituzten astelehenean aldarrikapen ekintzak, herri bakoitzak bere modura

Eneko Azurmendi ARRASATE
Elkarretaratzeak, manifestazioak, dantzak, poesia musikatuak... Askotariko ekintzak egin zituzten Debagoieneko herrietan astelehenean, baina helburua, berbera: Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira aldarrikapenak kalera ateratzea.

Mugimendu feministak azpimarratu du pandemiak agerian utzi duela gizarteak bizi duen "egoera sozial eta politiko latza", eta heteropatriarkatua jotzen dute horren erantzulez, besteak beste. "Krisi honek modu bortitzean kolpatu du zaintza sektorea eta baita beste hainbat

sektore feminizatu ere. Horrez gain, gehiegikeria poliziala edota arrazismoa ere geroz eta ageriago geratzen ari dira. Beraz, hau ez da bukatu, inondik inora, eta borrokan jarraituko dugu Euskal Herri burujabe, feminista, antikapitalista eta antiarrazista lortu arte".



Erronka hau ere irabaziko dugu.

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Labegaraieta eta Bergarako hitzarmena

Otsailaren 6an ekitaldi berezirik gabe inauguratu genuen kiroldegi berritua. 2016. urtean abiatu zen Labegaraieta auzoko kirol-gunea antolatzeko proiektua Udalean. Herritarrekin partaidetza-prozesua hasi zen, Emun enpresak gidatua; herritar askok eta kirol elkarteetako ordezkariak beren ekarpena egin zuten. Lan ederra egin zela esango nuke.

2017. urtean, Foru Aldundiak kirol ekipamenduen plana atera zuen, besteak beste, kiroldegiak berritzeko, eta horrek eraman gintuen lehentasuna ematera kiroldegiaren berritze-prozesuari. Uztaileko, buletinean argitaratu zen 589.720 euroko laguntza izango genuela; gehieneko kopurua 600.000 eurokoa zen. Berri bikaina! Proiektuak prestatzen hasteko unea. Sestra enpresa arduratuko zen idazketaz.

2018. urtean, berriz ere herritarrekin eta elkarteekin batera, proiektua definitzen joan ginen.

BOST URTE IZAN DIRA: BI UDAL GOBERNU, HERRITAR ETA ELKARTE ASKOREN PARTAIDETZA...

2019. urtean, alboko biltegia bota eta handitze-lanekin hasi ginen, aldagelak, piraguismoko biltegia eta makina-gela eraikitzen.

2020. urteko udarako, eraikin berria amaituta zegoen eta kiroldegia berritzeko lanak hasita.

Eta 2021. urteko otsailean, martxan! Oraindik ere lanak geratzen dira, baina instalazioa berrituta eta martxan dugu.

Bost urte izan dira: bi udal gobernu, herritar eta elkarte askoren partaidetza une guztietan, behargin askoren lana, bilera zenbait ezinak... Denborak esango digu asmatu ote dugun, eta Bergarako behar zuen instalazioa prestatu dugun ala ez, baina prozesua ederra izan da, aberasgarria, eta asko irakatsi dit.

Aurreko astean jakin nuen 1839an Esparteroren eta Marotoren artean adostutako hitzarmena hemen gertatu zela, egun Labegaraieta kiroldegia dagoen tokian. Poztu egin nintzen jakiterakoan.

Bost urteko prozesu honetan egindako lana giro onean eta jende askoren laguntzari eta jarrera irekiari esker egin da. Hitzarmenaren espiritua ote inguruan?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bakoitza bere zoroak

BLANCA URGELL

[HTTPS://LABUR.EUS/ZC5SX](https://labur.eus/ZC5SX)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Igel-auria ikusi zen 1873an Kansas Cityn, ekaitzaren erdian, eta arrainak, armiarmak eta bestelakoak ere jausi dira zerutik han-hemen. Halako 25.000 gertakari bildu izanagatik da ezagun Charles Fort (1874-1932). Batzuei zientziak azalpena eman die, baina lanak izango ditu besteak azaltzen.

Yonaguniko egiturak artifizialki zizelkatuak dira, ala naturak moldatuak? Baltikoaren zolan 60 metro diametroko OHE bat ote dago, ala labak sortu du?

Hizkuntzalaritzak ez dauka exoarkeologiarekin lehiatzerik. [...]

Bere buruari "Bera'tar Erroman Mirena aba" izen moloia ipini zion hiztegiilea (1878-1959) bide da *erail* hitzaren aita. Berak mundura ekarri, eta Kepa Enbeita bertsolariak (1878-1942) plazan aurkeztu. Hau aitabitxia! Bazuen besterik alde *erail* berriak: ordukoek *hil* eta *asesinatu* bereizi nahi, mailegu gabe hobeto, eta *eraile*-ren erroa ahazturik izatea, *ero* aditz zaharra, *hil*-ek non-nahi baztertua, Zuberoan izan ezik (egun *eho*). Alferrik esan zuen Azkuek *eraile* oker zatikatuaz sortua zela *erail*: iratxo-hitza zela.

Behinola baziren *eman/ emaiten-emaile* erako txandakatzeak ugari; horietarik da *ero/eraiten-eraile*.

Axularrek badakar sinonimo pareak: *arima hiltzen eta erhaiten dutenak* (1643).

Ero-ren jokoaren hondarrak baino ez ditugu: *Jak, emak, erak!* oihukatu zuten Bizkaian (1596), eta honela jo zuten erronka Altsasun (1568): *Doilor zitalorrec il bear zinduke eta daragun guztiok!* 'hil dezagun'.

Ero 'hil' eta *ero* 'zoroa' bat dira, gainera: italieraz ere *matto* baita zoroa, *matar* erdal hitzaren jatorri berekoa: lat. *mattus* 'mozkorra', 'ergela'. 25.000 mila agian ez, baina...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarteak
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO****KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Herri inklusiboagoa eraiki nahi dugu, alaitasunetik"

LEIRE ELIZEGI BIZIPOZA ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA
Martxoan zehar Bizipoza jaialdia egingo dute Bergaran, eta asteburu hau ekintzaz josita dator.
Asteburuan hitzordu ugari izango dira. Horietako lehena, jaki senegaldar goxo batekin lotuta...
Bazkari birtuala egingo dugu zapatuan, Senegalgo *yassa guinaar* jaki tipikoa oinarri hartuta. Alde batetik, Ndank Ndank elkarteak bideo bat sortu dute, jaki hori prestatzeko urrats guztiak azalduz. Hala, jaialdira modu presentzialean etorri ezin diren lagunek parte har dezakete, etxean jaki goxo hori prestatuz eta gurekin argazkiak eta bideoak partekatuz. Bideoa zabalpena izaten ari da, eta erantzun polita izango dugulakoan gaude. Baina, horrez gain, Bergarako bi tabernatan plater hori alde aurretik eskatzeko aukera jarri dugu eta harrera oso ona izan du, plater pila bat eskatu direlako jada. Esan behar da



Leire Elizegi, Bizipoza elkartearen koordinatzailea. L.E.

Bergarako aplikazioaren bidez ere egin daitekeela eskaria.
Eta zapatuan, baita ere, *Mundu berri bat guztiontzat* jaialdia. Zein osagai izango ditu?
Bizipozako elkartearen lana gizarteratzeko modu berezia

izango da jaialdia. Urtarrilean, hamaika bideoklip eta hamabi kanta aurkeztu genituen elkartearen partaideok, eta bideo horietako batzuk proiektatuko ditugu. Elkartearen kide diren

Bergarako eta bailarako kide batzuen testigantzak ere jasoko ditugu, elkartearen egunerokotasunean egiten dutena lehen pertsona kontatzeko. Aroa Elortzak zapaturako propio sortutako poesia batzuk ere entzungo dira eta Indai musika taldeak zuzeneko kanta batzuk ere taularatuko ditu. Hori guztiori gutxi ez, eta Ndank Ndank elkartearen dokumentaltxo bat ikusiko dugu lehen aldiz.
Egitariau aurkeztu ostean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan zehar mugitzeko baimena jarri da martxan. Ezer aldatu duzue?
Ez. Egoera zein zen ikusita, jaialdia online bidez jarraitzeko prestatu genuen, eta hala egingo dugu. Ekitaldi presentzialetan plazak mugatuak dira, eta domekan Pirritx, Porrotx eta Marimototsek egingo duten ikuskizunerako sarrerak jada agortuta daude.
Bizipoza elkarte barruan askotariko 35 elkarte zaudete, baina balio asko partekatzen dituzue...
Bakoitzak bere esparruan dihardu, baina denok dugu helburu herri inklusiboagoa sortzea; alaitasunetik eta jarrera positiboagotik, betiere. Jaialdia gure jarduna plazaratzeko asmoz egingo dugu, eta ea lortzen dugun.

HAU BE BADOGU!

Euskararen presentzia Goya sarietan



Sartu euskaldunei esker presentzia handia izan zuen euskarak Goya sarietan:
@zineuskadi: "Zorionak saridun guztiei eta baita atarian geratu zaretenei ere! Gure zinemas harro!".
@icambembo: "Goya Sariak, euskal zinemaren jaia!".
@inaki_olalde: "7. artea. Goya sariak. Zenbat euskaldun eta euskara entzun dogun. Pozik!".

'Dardara' dokumentala berbagai sarean

Berri Txarrak taldearen gaineko lana martxoan estreinatuko dute:
@berritxarrak: "#Dardara-n hainbat pertsonaiaren bizitza txatalak erakusten dizkigu, BTX-en musikaren irismenaren erakusgarri".
@aterafilms: "Era askotako oztipoak gainditu ditzakeen arte boteretsua da musika".

Telesforo Monzon, txiolarien oroimenean

@DorreaOlaso: "Gaurko egunez 1981ean zendu zen Olaso'tar Monzon Telesforo. "Izar berri bat piztutzeroa noa, Euskal Herriko zeru gainean" #Monzon40urteurrena.
@iruinxo: "40 urte betetzen dira gaur Monzon Baionan hil zenetik. Iragana beti oroitu, nondik gatozen ez ahazteko".

'Trending topic' izan da '#Martxoak8'

@aneirazabal: "Azken urtetan behin eta berriz aguantatu behar izan duen esaldia: "Ze ondo zabilzan leku batetik bestera bidaiatzen, baina, umeak daukazunean, bizimodua aldatu eta kazetaritza 'egonkorragoa' egin beharko duzu". Joan eta esan hori gizonezko bati. #Martxoak8 #m82021".

ITURRI ONETIK

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak, diskoa grabatzen

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldea Andoaingo Garate estudioan izan da joan den astean, hamar kantuz osatutako disko berria grabatzen. Iker Martinezek alboan izan ditu Jimmy Irizar (bateria-jolea), Iñigo Ugarte (gitarra-jolea), Joseba Aranburu (gitarra-jolea) eta Iñigo Biain (baxu-jolea). Iñaki Zubia oñatiarra eta Martxel Arkarazo aritu dira soinu teknikari, eta Kaki Arkarazo ere izan dute bidelagun. Iker Martinezek 2019an argitaratu zuen *Lurralde berriak* izenburuko lana.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-03-11 Bagara prozesua aurkeztu zuten Amaia antzokian

800 lagun batu ziren Amaia antzokian Bagara prozesua aurkezteko. Gizarte eragileak, kooperatibistak, erakunde publikoetako buruak... batu ziren. *Mugarri bat jartzeraz goaz leloa* jarri zioten aurkezpenari eta balorazio oso positiboa egin zuten bultzagileek. Oholtza gainetik esan zuten Bagarak, "gizarte-antolakuntzaren bidez, Debagoienean gizarte eredu hobea" lortu nahi zuela, "herritarrak protagonista" izanda.

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

H-Enea Living Lab-eko koordinatzailea da Eukene Barrenetxea, bai eta Birgaitzen proiektuko arduraduna ere. Azken hori H-Eneak eta Debagoiena 2030 ekimenak elkarlanean garatuko dute. **H-Eneako langile zaitugu. Zer da H-Enea Living Lab?**

H-Enea Living Lab ACEDE Etxe Kluster-en barne dagoen ekimen bat da. Etxeko eremuan gertatzen diren berrikuntzak eta hobekuntzak aztertu eta gizarteratzen ditugu.

Egiten dituzuen gauzen artean baduzue etxeen birgaitzearekin loturiko proiektu bat, D2030ekin elkarlanean landuko dena. Zertan datza?

Birgaitzen proiektuaren helburua, etxeetako konforta prezio eskuragarrien truke hobetu daitekeela gizarteratzea da.

Eta beraz, zertan datza proiektuak?

Etxebizitzetan gertatzen diren CO2 isurketen parte esanguratsu bat etxeko berokuntzan gertatzen da. Izan ere, etxea berotzea etxeko energia kontsumoaren %47 da. Hala, proiektu honekin, herritarrek animatu gura ditugu prezio eskuragarrietan efizientzia energetiko hori hobetzera.

Zein onura izango litzuke erabiltzaileak? Zertan eta nola igarriko luke?

80ko hamarkada hasierara arte eraikitako etxeek ez daukate isolamendurik. Etxeak arinago hozten dira neguan, abrigoa falta zaielako. Hormaren erdian aire-ganbera bat dutenek barnean isolamendua sartzeko aukera ematen dute, eta, horrela, etxeko beroa hobeto mantentzen da neguan, eta freskoa udan. Isolamendu hau banakako etxebizitzetan egin daiteke; hortaz, bizilagun erkidegoaren baimenik gabe egin daiteke. Hamar etxebizitzako erosketa kolektibo bat antolatzen badugu, prezioak dezente jaisten dira. Bestalde, inbertsioa egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenentzat –pentsio baxudun alargunak, adibidez– finantzaketa

"Kultura berriak eta eraldaketak ez dira soilik goi mailako politiketatik suspertzen"

EUKENE BARRENETXEA LARRAÑAGA H-ENEAKO KOORDINATZAILEA

Debagoiena 2030 ekimenarekin eskutik, etxebizitzetan CO2a murrizteko proiektu bat jarri du H-Eneak abian; etxeko konforta prezio eskuragarrietan hobetzeko aukera



Eukene Barrenetxea Larrañaga. E.B

formulak aztertuko ditugu eta ahalbideratzen ahaleginduko gara.

Bergaran eta Antzuolan hasiko duzue proiektua. Zertan datza martxan jarriko duzuen hau?

"CO2A MURRIZTEKO KULTURA BEHAR DA, D2030 EKIMENAK ALDARRIKATZEN DUEN BEZALA"

Bai, Bergaran hasiko gara, Bolua auzoan; martxoaren 24an lehen saio informatiboa egingo dugu eta Aste Santu ostean Antzuolan jarriko gara martxan. Arrasaten hasi genuen lehenengoz proiektua,

"ETXEBIZITZETAKO ISURKETEN ZATI HANDI BAT BEROKUNTZAN GERTATZEN DA"

eta hiru urtean zehar Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eskoriatzako biztanleek hartu dute parte.

Zergatik Boluan?

Bolua auzoak 2.000 biztanle ditu, gutxi gorabehera. Etxebizitza asko 1976 eta 1980 artean eraiki ziren. Hormetan ganbera bat daukate; hortaz, isolamendua sartzeko aukera. Baina garrantzitsuena auzo elkarte bat daukatela da, prozesu honetan aktiboki parte hartzen ari dena.

Zein baldintza behar ditu etxebizitzak?

Erdian ganbera hutsa duten hormak edukitzea, isolamendua sartu ahal izateko. Obra egiteko ez da etxebizitzako bizilagunen erkidegoko baimenik eskatu behar.

Zenbat animatzea da zuen helburua?

Hogei bat pertsona hurbiltzen badira bilerara eta horietako hamar animatzen badira, erosketa kolektiboa antolatu daiteke, prezio ona lortzeko. Zailtasun ekonomikoak dituztenentzako aukerak bilatu nahi ditugu; beraz, egoera honetan daudenak etortzera animatzen ditugu. Joan den urtean, adibidez, hiru alargunentzako %100eko finantzaketa lortu genuen. **Beraz, zer egin behar luke interesatuak?**

Martxoaren 24an, Bergarako Boluko frontoian, arratsaldeko seieta elkartuko gara. Animatu gura nituzke

auzotarrak bertan parte hartzera.

Gizartea –herritarrek, enpresak...– ari dira trantsizio energetiko honen kontzientzia hartzen? Zertan igartzen duzue?

Egoera aldatzen ari da.

Jasangarritasun energetikoaren legeak energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak jarri ditu eta erakunde publikoak eta enpresak martxan jarri dira. Baina, horretaz gain, CO2a murrizteko kultura suspertu egin behar da, D2030 Plataformak aldarrikatzen duen bezala.

D2030 ekimenaren laguntzarekin garatuko den proiektu bat da Birgaitzen. Zein garrantzi du geroz eta eragile gehiago izatea norabide berean lanean dabiltzanak?

Garrantzi handia dauka honek. Kultura berriak, ekintza berritzaileak eta eraldaketak ez dira bakarrik goi mailako politiketatik suspertzen. Ekintza komunitarioetatik ere bai. D2030 ekimenak berrikuntza inklusiboa kontuan hartzen du, Birgaitzen proiektuak bezala.

Bestelako zein lanekin ari zarete H-Eneatik?

Etxebizitzetan energia kontsumitzaile izateaz gain, energia garbiak ekoiztera joan behar dugula uste dugu. Energia fotovoltaiakoaren bidez energia produzitzeko aukera daukagu. Norberaren etxeko edo etxebizitza bizilagun erkidegoko kontsumoak produzitzeko aukera dagoela gizarteratu nahi dugu.

Martxoaren 24an, Boluan

H-Enea Living Lab ekimenak Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean garatuko duen Birgaitzen proiektuaren nondik norakoak azaltzeko bilera egingo da martxoaren 24an, 18:00retan, Boluko frontoian.

Zapalduak eta zapaltzaileak

LARRAITZ ARANDO ILARDUIA, ORREAGA ZUBIZARRETA GARAI, OIHANA JAUSORO AGIRRE ETA JASONE GORROÑO ALDAI

ERDU ARETXABALETAKO TALDE FEMINISTA ARETXABALETA

Aurtengo Martxoaren 8a antolatzeko, Aretxabaletan hainbat emakume* batu gara. Diskurtsotik herrira jaitsi eta denon Martxoaren 8a egitea zen gure desira.

Aitortu behar dugu ez dela erraza izan. Batu garenon ahots guztiak entzun nahi genituen. Entzute kontzientea egiten saiatu gara, eta, halere, denetariko bizipenak izan ditugu: bidelagunak mindu ditugu batzuetan; euskara nahikoa ez babesteagatik ezinegona ere sentitu dugu hainbatetan; eta zuriok behin baino gehiagotan hanka sartu dugu. Entzun dugu, ikasten saiatu gara, berriz hanka sartu dugu eta berriz ikasi. Bidean hazi egin gara, bideak heldu egin gaitu.

Emakume* izanak batu gaitu, zapaltzen gaituen horri buelta emateko, baina, teorian bagenekien arren, M8 egunaren antolakuntzaren ibilbide honetan agerian geratu da zapaltzaileak ere bagarela. Gure mugekin tril egin dugu eta hauek gainditzeko zubiak eraikitzen hasi gara. Ez dakigu oso ongi nola egiten den, baina saiatzen jarraitu nahi dugu. Ikasten eta hazten jarraitu nahi baitugu, eta horrekin sistema printzatu.

Hobetzekoak egon diren arren, lasai eta pozik amaitu

genuen eguna. Guretzat plazera izan da antolakuntzan elkarlanean aritzea. Eskerrik asko Martxoaren 8ko antolakuntzara gerturatu zareten emakume* guztioi!

Eguzki-energia Arrasaten: bai, baina eraikinaren arabera?

AITOR ANTIXIA

ARRASATE

2020ko azaroan aztertu genuen gure etxean – Altamira baserria– plaka fotovoltaikoak ipintzearen ideia. Proiektua prestatu eta tramitazioak burutzen hasi ginen. Horietako bat Udalaren baimena lortzea da, eta, gure harridurarako, Arrasateko Udalak ezezkoa eman zion gure proiektuari. Zer dela eta?

Egun indarrean dagoen Arrasateko udalerrian eguzki-energia biltzeko sistemak instalatzea arautzen duen ordenantza-n 12. artikulua dioenez, ez da onargarria Udalerriko Egitamu Orokorrean baserri bezala katalogatuta dagoen eraikin nagusian eguzkia hartzeko sistema fotovoltaikoa jartzea. Eraikin horietan eguzkia hartzeko sistema termikoak bakarrik ezarri ahal izango dira.

Ordenantzaren azalpenean jasotzen denez, ez dela joan behar hiri eta landa paisaien kaltetan... elkartu nahi ditugu instalazioak jartzea eta paisaiari egindako eragina zaintzea edo gutxitzea.

Honen aurrean, araua guztiz diskriminatzailea dela iruditzen zaigu:

etxebizitzaren arabera

eskubide desberdinak daude. Baserrian bizi garenok ez ditugu arlo honetan kalean bizi direnen aukera berdinak. Paisaiari dagokionez, zer diferentzia dago plaka termikoen eta fotovoltaikoen artean?

Aurkeztutako errekurtsioan, goian aipaturiko arrazoiez gain, eskaera bat egin genion Udalari: ordenantzaren artikulua hori berraztertzea eta aldatzea, denon eskubideak bermatu ahal izateko.

Hau guztia Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko zinegotziari, Ibon Arrupe jaunari, ere adierazi genion. Adi entzun zituen gure arrazoiak eta Udalean gaia planteatuko zuela adierazi zigun. Udaletik jaso dugun erantzunean esaten dute: Errekurtsogileak adierazitakoa aztertu beharko da, badagokio, etorkizunean ordenantza berrikusiko denean. Udalari eskatzen diogu berrazterketa hau ahalik eta lasterren egiteko.

Baserriek bizirik jarraituko dute bertan pertsonak bizi direlako, eta erakunde publikoen zeregina eraikin eta inguru horiek bizirik mantentzen dituzten pertsonak laguntzea da.

Arrizuriaga parkea zabalik!

IZASKUN ARROYO

BERGARAKO GURASO TALDE BATEN IZENEAN BERGARA

Jakinaren gainean gaude naturak pertsonengan eragiten dituen onurez.

Bergarako erdigunean ditugun lau parke zoragarrietan –Usondo, Errotalde, Errekalde eta Arrizuriaga– naturaz disfrutatzeko aukera paregabea dugu, edo, hobeto esanda, bagenuen.

Bagenuen esaten dugu, Bergarako Udalak joan zen otsailean Arrizuriaga parke osoa itxi baitzuen. Urtebete pasa da.

Arrizuriaga eraikina egonkortzeko eta parkea

zabaldu ahal izateko, aurrekontuetan 300.000 euro inguru aurreikusita daude. Otsailaren 11n, Udal Gobernuak Seminarixoan aipatu zuen 2021ean martxan ipiniko den proiektuen artean Arrizuriagako jauregia egonkortzea eta bertan kultura proiektu bat garatzea izango dela. Hau dena egoki ikusten dugu. Baina parkea ez zabaltzearen arrazoiak Arrizuriaga eraikinaren teiltuaren egoera kaskarra omen da, eta haizea dabilenean teilak hainbat metrotara dispartuta irteten direla; eta parke osoa ixtea erabaki zen.

Eraikinaren aurrealdean Espoloia kalea dago. Handik egunero jende pila pasatzen da, eta kalea ez da sekula itxi, ezta haizea dabilenean ere. Parke osoa itxi da arriskua ekiditeko eta Espoloia kalea ez da ixten? Nola da posible? Handik pasatzen den jendea ere arriskuan egongo da, ba, haizea dabilenean!

Haizea dabilenean, parkeak ixten dira arriskuak ekiditeko.

Espoloiko jolas parke ondoan dagoen eraikin zaharra oso egoera kaskarrean dago. Eraikinaren ondoan dagoen haurren jolas parkearen zati bat itxita dago, eta haizea dabilenean jolas parke osoa ixten da.

Zergatik ez da neurri bera hartzen Arrizuriaga parkean, parke osoa itxi beharrean? Eraikinaren inguruko perimetro bat itxi ahal da, eraikinetik eta arriskutik urruntzeko; hala, herritarrok parkearen, naturaren, zati handi batez disfrutatzeko aukera ederra izango genuke.

Bergarako Udalari, mesedez, eskatzen diogu Arrizuriaga parkea zabaltzeko, arriskurik gabe ibiltzeko lekua baitago. Ez dugu uste eraikinaren perimetro jakin bat ixteak dakarren lanak gastu handirik eragingo duenik.

Mesedez, buelta batzuk eman gai honi. Udaberria ate joka dago; ea Bergarako

erdigunean dugun parke zoragarri honetan naturaz disfrutatzeko aukera izaten dugun.

Potoloa, oraindik, hor

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Fukushimako istripua gertatu zenetik hona, robotak bidaltzen dituzte, erreaktorean dagoen uranioa nola dagoen ikusteko, baina lehenengoak bertan gelditzen ziren erradioaktibitatearen eraginez. Robot batek lortu du nahiko gertu heldzea eta argazki batzuk ateratzea, beste batek ukitzea lortu du, baina oraindik kontrolatu ezinda dabilta; beste lur-ikara edo tsunami bat gertatuko balitz ez dago batere seguru planeta osoa; izan ere, aurtten, otsailaren 13an, lur-ikara bat gertatu zen, 7 gradukoa, baina, zorionez, oraingoak ez du tsunamirik sortu.

Hamar urte hauetan, urarekin hozten dabilta erreaktorea, eta ur erradioaktibo asko sortzen dute hondakin moduan; depositu handietan gordetzen dute, baina ikusirik gaia luzerako doala eta inguru osoa deposituz beteta dutela milioika ur tona erradioaktiborekin, erabaki dute itsasora isurtzea. Hori bai, esaten dute "depuratuta" botako dutela eta bakarrik tritioa edukiko duela ur hondakinak, esanez oraindik zientziak ez duela asmatu tritioa kenduko duen teknikarik eta ez duela gizakientzat kalterik sortuko.

Ez dakit zu, baina ni ez nago lasai, eta Japonia inguruko beste estatuak ere ez, eta, artean, batzuek esaten dute merkea dela energia nuklearra; noski, arazoak ondorengo belaunaldikoei pasatzen badizkiegu, bai.

Oraindik energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezula argindarra?

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

'Ekobulebar'-aren lehen fasea eginda dago jada

Etxaluze eta Maala arteko 'Ekobulebar'-a egiteko lanen lehen fasea bukatuta dago, Udal Gobernuak azaldu duenez; Nafarroa etorbideko autobus geltokia, Mondragon hotelaren ondokoa, ia amaituta dago eta Zalduspeko geltokia egiten ere hasiak dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

2020ko azaroaren 18an hasi ziztuzten *Ekobulebar*-a egiteko lanak, eta, Udal Gobernuak jakinarazi duenez, lehen fasea bukatuta dago dagoeneko. Gaur-gaurkoz, Garibai eta Nafarroa etorbideetan eta Grupo San Juanen eta ibaiaren arteko eremuan ari dira lanean.

Udal Gobernuak dio proiektu estrategikoa dela *Ekobulebar*-aren egokitzapena, herritarren ongizateari zuzenki eragingo diola argudiatuz: "Arrasatearren mugikortasuna errazteaz gainera, irisgarritasuna hobetuko du. Gainera, efizientzia energetikoa barneratua du proiektuak, herri jasangarriago eta atsegin baterantz aurrerapausoak emanaz".

Ur-parkea, ekainerako martxan Garibai etorbideko 16. atarte inguruan (Villa Amparo), urbanizazioa berritu eta bi ur-jolas eremu egokitu dituzte, eta lan horien oinarriak eginda daude. Hala, eremu hori ekainerako bukatzea aurreikusten dute.

Horrez gain, Garibai etorbideko 16. atartearen eta errepidearen arteko tartea oinezkoentzako erabilgarri dago, Aldai parketik jaisten diren eskaileretako zebra-bideraino (Garibai, 21). Era berean, Grupo San Juan eta ibaiaren arteko kaleko lanak ere ekainerako bukatuko dituzte, "eta jarraian helduko zaio Zaldibar aldera doan kalea berritzeari".

2022ko maiatzeko, bukatuta

Nafarroa etorbideko bus geltokia egokitzeko lanak amaitzeaz dira, "hiri-altzarien faltan", eta, otsailaren 24az geroztik, Zalduspeko bus geltokia egiteko lanak ere martxan daude. "Esparru berriak behin-behineko bus geltokia izango du aurrealdean, eta atzeko aldean parking bat egokitu da gaur egungo aparkaleku kopurua bermatzeko". Lanek bi hilabete inguru iraungo dute



Maalako biribilgune ondoko bidegorria eginda dago dagoeneko. E.A.

1.555.739 EUROKO AURREKONTUA IZANGO DUTE LANEK, EGOKITZAPENEN PREZIOA ALDATUTA

eta, Zaldusperi amaiera ematearekin batera, Maalako biribilgunearen eta Biteri kalearen arteko lanak hasiko dituzte, baita Kontzezin-Garibai-Biteri eremuak ere. Lanak 2022ko maiatzeko amaitzea aurreikusten du Gobernuak.

Aldaketekin, %10 merkeago

Hasierako proiektuan "hainbat hobekuntza-lan" txertatu ditu Gobernuak, "hala nola, Biteriko estatua ez da tokiz aldatuko, Grupo San Juango eraldaketa auzotarrek adostuko da aurrerago, Jose Maria Eguren plaza kanpoaldeko kalea berritu egingo da eta Zalduspeko behin-behineko autobus geltokiaren kokapena" eta proiektua egokitzeak lanen kostua %10,03 merkatu duela azpimarratu du. "2020ko azaroaren 5ean osoko bilkurak 1.729.079,97 euroko prezioan es-

leitu zizkion lanak Construcciones Moyua SL enpresari -BEZik gabe-. Orain, kontratuan barneratutako egokitzapen lanekin, 1.555.739,34 euroko prezioa onartu da -BEZik gabe-".

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailak 80.000 euroko dirulaguntza eman dio Arrasateko Udalari proiektua teknika osatzeko.

"Ezjakintasun handia dago"

EH Bilduk berretsi du proiektu "zaharkitua" dela eta esparru publikoa pertsonentzat berreskuratu behar dela, hirigintza horren zerbitzura jarritz. "Ezjakintasuna" ere azpimarratu du. "Oraindik ez dakigu *Ekobulebar*-a zein den ere. Garibai etorbidea eta Biteri kalea autobus-dako biribilgune erraldoiaren parte izango dira ala oinezkoentzat berreskuratuko genituzke? Autobus geltoki moderno estaliaren gaia landu behar du Udal Gobernuak? Gurekin? Iturbide egoitzarentzat espazioa irabaziko genuke, lorategi batekin? Asfalto-gorri zati bakanduetatik harago, ganorazko bidegorri sare osoa atonduko litzateke?".



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Morez jantzitako egunak

Pasa berri den Martxoaren 8a bueltaka darabilkigu aste osoan zehar eta, gaur egun ere, urdin zein berde direnak ez direlako more jarraitzen dugu egun hau ospatzen. Nork bere arlotik margotuko ditu koloreak, noski.

Emakume, kirolari eta, gainera, euskalduna, dena batera. Inguruan jende askok laguntzen nau, apustu egiten du eta maitatua sentiarazten naute maite dudana egiten dudalako. Baina errealitatek haratago dagoen zerbait da hau guztia.

Hutsune asko dauden arlo bat da kirola, txikitatik hasi eta aukera kontutik hasita nagusitzen joan eta ateak ixten dizkiguten arte. Errazena kanpora begiratu eta errua beste batzuei botatzea da, baina gu izan behar gara lehenengo pausoa eman behar dugunak eta, beldurrak beldur eta oztupoak oztupo, ateak ireki eta zirrikitu txiki batetik begiratuta, bideari hasiera emango diogunak.

Beste barik, gustuko duzuna egiteko aukerarik ez baduzu, zuk bilatu, arriskatu eta jokatu, jokatzeko ez duenak ez duelako inoiz partida irabaziko.

Liztor asiarra harrapatzeko 39 tranpa jarri dituzte Arrasaten

Aldundiak abiatutako kanpainaren baitan, iaz jasotako datuetan oinarrituta jarri dituzte tranpak udal langileek

E.A. ARRASATE

Martxoa hastearekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Vespa velutina* espezie inbasorearen aurkako kanpaina jarri du abian, eta apirilaren 30era iraungo du. Urtero moduan, garrantzitsutzat jo dute herri-tarren parte-hartzea bultzatzea; arazoren bat izan edo habiaren bat ikusiz gero udal arduraduekin harremanetan jartzeko dei egin dute. Hiru bide daude: BAZ (943 25 20 00), Udaltzaingoa (943 25 20 10) eta udal teknikaria (628 11 56 73).

Xabier Herrarte udal teknikariak astero jarraipena egiten die tranpei, hildako liztorrak kontatuz eta Diputazioari jakinaraziz. Izan ere, kanpaina jasotako datuek estatistikak osatzeko balioko dute aurrera begira, azaldu duenez, datu horiei esker ondorioztatu baitezakete zein gune edo toki dituzten gustuko liztorrek, eta baita udaberria aurreratuta edo atzeratuta datorren ere.

Iaz, esaterako, 3.773 liztor harrapatu zituzten, orotara, Arrasaten jarritako 70 tranpetan.

Adimen emozionala lantzeko tailerretan izena eman daiteke

13-18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoentzako tailerrek apiriletik aurrera egingo dituzte eta izen-ematea zabalik dago, *arrasate.eus*-en. Bost saio egingo dituzte, apirilaren 28an, maiatzaren 12an eta 26an eta ekainaren 9an eta 16an, 17:00etan hasita, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, Dona Apellaniz Nieto adituaren eskutik.

OHARRAK

Webgunean arazoak

San Felipe Elkarlaguntzako webgunea ez dago erabilgarri, sute baten ondorioz. Zerbitzua hilaren 15ean berreskuratzea aurreikusten dute.

Irantsube elkarte

Martxoaren 20an, batzar nagusia egingo dute, 11:00etan hasita, Etxaluzeko adinekoen egoitzako lokaletan. Joateko dei egin diete bazkideei.

Harrera eta gizarteratzea bermatuta egon daitezen

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren gidaritzapean Arrasateko Udalak osatu duen 2020-2023 Bizikidetza Planak "diskriminaziorik eza bermatzeko eta benetako berdintasuna sustatzeko" helburua dauka; atzerritarren tasa %8 ingurukoa da herrian

Atzerritarren bilakaera Arrasaten

	Guztira 2018	Bertakoak 2018	Atzerritarrak 2018	Atzerritarrak 2008	Atzerritarrak 1998
ESPAINIA	46.722.980	41.988.289	4.734.691 %10,1	5.268.762 %11,4	637.085 %1,6
EAE	2.199.088	2.047.569	151.519 %6,9	117.337 %5,4	15.198 %0,7
ARABA	328.868	300.597	28.271 %8,6	22.840 %7,4	2.460 %0,9
BIZKAIA	1.149.628	1.077.614	72.014 %6,3	58.562 %5,1	7.437 %0,7
GIPUZKOA	720.592	669.358	51.234 %7,1	35.562 %5,1	5.301 %0,8
ARRASATE	22.019	20.531	1.488 %6,8	720 %3,3	101 %0,4

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Eneko Azurmendi ARRASATE
"Gizarte kohesioaren aurkako erasoak zein aurreiritzi eta estereotipoek elikatzen dituzten diskriminazio eta xenofobia amaitzea" da planaren helburua.
Maitane Muñoz Gizarte Ongizate zinegotziak azaldu du plana "errealista" dela, gauzatu daitekeena: "Baliabideak baditugulako". Zera gaineratu du: "Etor-kizunean gizarte justuago, kohesionatuago eta desberdintasun sozial gutxiagokoa irudikatu eta bide horretan aurrera egiteko, berau osatzen duten kideen arteko mugikortasun bertikala sustatu behar dugu".

Etengabe hazten doa tasa
2018an Arrasaten 1.488 pertsona zeuden jatorriz atzerritarrak zirenak, eta kopuru horrek bilakaera "esanguratsua" izan du azkeneko urteetan. "Izan ere, 1998an soilik 101 ziren, 2008rako 720ra igo zen horien kopurua eta 2018ra bitartean bikoiztu egin zen". Atzerritartasun tasa, gaur egun, %8 inguruan dagoela gaineratu dute.
Jatorrirei erreparatuta, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika

dira jatorri nagusiak; nagusiki, Kolonbia eta Honduras -atzerrian jaioetakoen %46,6 osatzen dute horiek-. Bestalde, magrebtarrak %17,8 dira eta asiarrak, %16,3. Lehen multzoko gehienak marokoarrak eta Mendebaldeko Saharakoak dira eta bigarreneko gehienak, pakistandarrek.

Ekintzak, hiru esparrutan
Hiru esparrutan bereizi dituzte planak dituen 22 ekintzak, "diskriminazio instituzionala, estukturala edota interpersoneala" jasotzen dutenaren arabera.

Elkarlanean osaturiko plana
Planaren garapenean parte hartu dute Arrasateko Udaleko Aniztasun teknikariak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, gizarte langileak, Arizmendi Ikastolako irakasleak eta Lanbide Heziketako zuzendariak, Erguin Herri Eskolako ikasketaburuak, Lanbideko orientatzaile zein langileriak, Gurutze Gorriko gizarte langileak, Caritaseko apaizak, Ekin Emakumeak Elkartek, IMMEk, Activos Por un Mundo Solidario elkarteak eta SOS Arrazakeriak-ek.

URIBESALGOKO OBRA HASITA!!

28 etxe libre eta 21 etxe tasatu (San Andres - ARRASATE)

AZKEN 10 ETXE LIBREAK SALGAI!

EZ GALDU AUKERA!



SUSTATZAILEA



SALTZAILEA



BIBAI



943 253 821

info@inmobibai.com

www.inmobibai.com



"Beteranoetan, gozatzea da karateken helburua"

CARLOS SANCHEZ KARATEKA

Kata estiloan, beteranoen 35-39 urte arteko kategorian, Euskadiko txapeldun berria da Saioa Karate Taldeko arrasatearra; lehen txapelketa izan du beteranoen mailan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Karatean, Beteranoen Euskadiko IV. Kopa jokatu zuten joan den asteburuan Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Kopa izena duen arren, txapelketa formatuan jokatzen dute, egun bakarrean. Kata estiloko txapelketa da eta adinaren arabera kategoriak dituzte: 35-39 urte artekoak; 40-49 urte artekoak; 50-59 urte artekoak; eta 60 urte baino gehiagokoak. Arrasatearrak lehenengo kategorian hartu zuen parte, eta urrezko domina lortu. Bere kategorian bospasei karatekak hartu zuten parte, eta, guztira, 30 inguruk.

Beteranoen kategorian berria zara. Espero zenuen irabaztea?

Egia esan, ez. 35 urte bete berri ditudanez, esan zidaten beteranoen txapelketan parte hartzeko aukera neukala, eta probatzeko gogoia sartu zitzaidan. Ez naiz damutu; izan ere, irabazteaz gain, oso txapelketa polita izan zen, ondo antolatutakoa.

Lehen garaipena duzu Euskadi mailan?

Bai. Kata estiloan, aurrez lehia-tu izan naiz, baina lehenengo garaipena dut Euskadi mailan. Kumite estiloan, aldiz, gazteagoa nintzen irabazi nuen. Beraz, kategoria ezberdinetan baina bi estiloetan irabazi dut.

Gazte edo senior mailako tentsiorik ez da egongo beteranoen kategorian... ala bai?

Ez dago, ez. Gazteek askoz ere lehiakortasun handiagoa dute txapelketetan eta tentsioa eta presioa ere handiagoa da, guztiek irabazteko helburua dutelako. Giroan asko nabaritzen da hori. Beteranoen kategorian, aldiz, gozatzea ateratzen zara, zure karatea erakustera, baina presiorik gabe.

Maila ona egongo da txapelketa horietan, ezta? Karatean urte asko daraman jendea...

Oso ona, bai. 60 urtetik gorakoen kategorian, teknikoki gu baino hobek ziren karatekak aritu ziren. Ederra da karateka horiek aurrez aurre ikustea.

Ze formatu zeukan txapelketak?

Gure kategorian, karateka gutxi ginenez, bi kata bakarrik egin genituen, eta bien batez besteko puntuazioa batuta puntuazio altuena lortzea zen helburua. Besteek, aldiz, kanporaketa zuzenak egin zituzten.

"GAZTEEK ASKOZ ERE LEHIAKORTASUN HANDIAGO DUTE; BETERANOETAN, GIROA LASAIAGO DA"

Zer baloratzen da, zehazki, kata bat ona izan dadin?

Alor teknikoak puntuazioaren %70 balio du eta alor fisikoak, berriz, %30. Kategoria guztietan berdina puntuatzen da, kadete mailan zein beteranoetan. Eta exekuzioari dagokionez, teknikoki ondo egindakoa izan behar du, akatsik gabea, eta trantsizioak modu egokian egin behar dira. **Euskadikoaren ostean, Espainiako Txapelketa jokatuko da. Baduzu parte hartzeko intentziorik?**

Euskadi mailan, kata estiloko txapelketa bakarrik egiten da, baina Espainia mailan, kumite zein kata estilokoak, biak. Ekainean jokatuko da, eta badaukat parte hartzeko gogoia. Horretarako entrenatuko naiz datozen hilabeteetan, baina selekzioak erabakiko du parte hartuko dudana edo ez. Aukera izanez gero, bi estiloetan parte hartu gurako nuke.

Saioa Karate Taldeari dagokionez, karateka gazteek ba al dute txapelketarik udaberrian?

Bai. Martxoaren 20an, autonomia arteko txapelketa dauka, Toledon, eta kadete eta junior mailetakoa ariko dira hor. Gero, apirilaren lehen, Espainiako Kopa dago, estilo ezberdinetan, Leganesen (Madril), eta bost karateka joango dira gure tal-



Carlos Sanchez karateka arrasatearra. SAIOA KARATE TALDEA

detik. Ni entrenatzaile moduan joango naiz.

Hamar karateka berri dituzue taldean. Ze bilakaera izaten ari dira?

Badirudi gustura ari direla, eta badoaz, apurka-apurka, euren maila hobetzen. Gainera, hila-bete batzuk gelditu egon ostean, bueltatzeko aukera izan dute, eta pozik ari dira orain.

Nola moldatu zarete azken hilabete hauetan, neurriei dagokienez?

Ahal izan dugun moduan. Azaro erdi inguruan eten zuten eskola-kirola, eta ordutik urtarrril erdialdera arte gelditu egon gara. Norbere aldetik egiteko moduko ariketa batzuk bidali genizkien guztiei, baina entrenamendu saiorik ez genuen egin bi hilabete haietan. Dena den, denboraldi hasierako taldea mantendu egin dugu, eta pozik gaude horrekin.

Plateretik baratzerak

Nafar hegaldetako urrezko eskutik eskura

Eskatu Nafarroa hegaldetako oliu-olio birjina extra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika-ekoizlearen jatorrizko prezioan.

MARTXOAK 4 - 24

errigora.eus

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke



FORD MUGARRI

42 urte bizirik eta 2 urte Grupo Easo Motor-en eskutik

*Askatasunez eta
segurtasunez
bidaiatu auto berrian*



Ospatzeko,
**ESKAINITZA
HANDIAK**
martxoaren 31 arte
4.000€ eta
10.000€ arteko
deskontu handiak!

**GRUPO
EASO
MOTOR**
www.grupoeasomotor.com



MUGARRI



San Andres Kalea 6, 20500, Arrasate. 943 79 07 44
grupoeasomotor.com

Herritarren pintzelkadak Kulturateko klaustroan

Datorren ostegunean, 19:00etan, irekiko dute erakusketa publikoa Arrasate Margo Taldeko kideek, eta apirilaren 23ra arte egongo dira euren koadroak ikusgai. Artisten kolektiboak garai berri bat hasiko du datorren urtean: "Gazteak xaxatu nahi ditugu"

Hasier Larrea ARRASATE

Iaz egin ahal izan ez zuten publikoaren aurreko ekitaldia egin ahal dute aurten Arrasate Margo Taldeko kideek, Kulturateko klaustroko ateak parez pare zabaltu baitizkie Udalak, urtean zehar garatutako sormen prozesuaren emaitzak herritarren aurrean erakusteko. Zehazki, martxoaren 18tik apirilaren 23ra bitartean jarriko dituzte euren koadroak ikusgai, baina apirilaren 1etik 11ra itxita egongo da eraikina, oporrenegatik. "Ondorioz, lau astez egongo gara bertan; astelehenetik ostiralera, arratsaldero", aipatu du Amaia Aranzabal margolariak. AMTko kideak ez du ezkututzen erakusketa irekitzeko "desiratzen" daudela, pasa duten "urte lehorra" tarteko.

Hori horrela, "esperantzaz" begiratzen diote, baita ere, maiatzeko azken zapatuan Seber Altube plazan egin ohi duten hitzorduari, eurek marraztutako koadroen azoka antolatzen baitute bertan, kale giroa lagun.

Bi ekimenen artean desberdintasunik badagola aipatu du Aranzabalek: "Kulturatekora koadro selektiboagoak eramaten ditugu, tamaina handikoak, eta guretzat erakusleho baten antzekoa da; Seber Altubekoan, berriz, mota guztietako lanei egiten diegu tokia, ikusleak ere aukeratzeko marjina handiagoa izan dezan".

Izan ere, margolariak saiatzen dira beraien obrei etekina ateratzen, eta enkargu bategatik egiten ez badute, salgai jartzen dituzte koadrook. "Prezio onargarriak jartzen dizkiegu pinturrei, 20 eta 300 euroren bueltakoak, gazteek ere izan dezaten aukera gustuko dutena eramateko", dio Aranzabalek.

Euren tokia marrazten

Kulturateko erakusketaren gainean, margolariak azaldu du



Arrasate Margo Taldeko zenbait kide, Zalduspeko lekalean, lanerako prest. H.L.

ARTISTA BAKOITZAK BERE OBRA BERRI ETA GUSTUKOENAK ERAMANGO DITU ERAKUSKETARA

Udalak "begi onez" ikusten duela herriko taldeek egiten dituzten lanei difusioa ematea, eta, duela urte batzuk "zailagoa" bazen ere, orain "toki bat" egiten diela Kulturateko urteroko programazioan.

Erakusketak ez ezik, ikastaroak ere antolatzen dituzte marrazkilariek: "Jose Manuel Mendez mutrikuar artistarekin saio pare bat egingo ditugu orain, eta irail ingururako Jorge Lopez akuarelista gasteiztarrekin egin dugu hitzordua". Gauza berriak ikusi eta entzuteko grinarik ez zaiela falta nabarmendu du Aranzabalek, baina "arduratuta" daude, era berean, "kuadrilla inportante bat" jubilatutak direlako. 24 kide inguruk osatzen dute taldea, eta 40 urtetik beherako "lau kide inguru" daude: "Adin horrekin batzuek utzi egiten dute taldea, lanegatik edo

amatasunagatik. Baina datozen urteetan gazte gehiago erakartzeko esperantza dugu".

Zalduspetik Kulturolara

Esperantza hori 2022tik aurrera euren izango den Kulturola eraikineko lekalean oinarritzen dute. Jadanik badakite zein izango den euren lan esparrua, eta gustura daude espazio aldatuarekin: "Zalduspeko eraikinak ez ditu baldintza duinak betetzen, ura sartzen da teilatutik, ez dago berogailurik, eta kokapen aldetik ere nahiko abandonatuta dago". Kontrara, "itxura ona" hartzen diote Zaldibar parke pareko instalazioari: "Udalari baldintza bakarra jarri genion, lokala iparraldera begira egotea, eguzkiak zuzenean ez jotzeko".

Etorkizunari baikor begiratzen diote, beraz, Arrasate Margo Taldeko kideek, eta, beharbada, euren koadroek hori adieraziko dute, edo, agian, ez. Ziurra da, gutxienez, teknika aldetik olio-pinturak, akrilikoak eta akuarela, eta gai aldetik paisaiak, erretratuak eta figura abstraktuak ikusi ahal ditzate, datorren ostegun arratsaldetik aurrera, Kulturateko klaustroan.



Alfontso Etxegarai itsasora begira dagoen filmaren une bat. CAMINHO LONGE

Deportazioa jorratzen duen dokumentala Amaia antzokian

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, 'Caminho Longe' pelikula emango dute asteartean, 19:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Josu Martinez eta Txaber Larreategi gidolari eta zinema zuzendariak Alfontso Etxegarai etakide ohia protagonista duen dokumentala ondu dute, *Sagarren denbora* aurkeztu zutenetik 10 urte pasata. Donostia Zinemaldiko Zinemira sailean eta Fipadoc jaialdiko sail ofizialean parte hartu du ikus-entzunezko piezak, eta Afrikako Sao Tome uhartea aurkezten du lokalizazio nagusi gisa.

Hain zuzen, uharte horretan egon da 33 urtez Etxegarai erbesteratuta, Espainiako eta

Frantziako gobernuen aginduz, eta kontaktak etxera itzultzeko erabakia hartzen du abiapuntu-tzat, bere adiskide Kristina Etxaluz alboan daukala. Honako galdera honi erantzunak aurkitu nahi dizkio dokumentalak: *Nola itzuli etxera, 33 urte badaramatzazu Afrikan deportatuta?*

Sareren gonbidapena

Arrasateko Sareko kideek deportazioaren gaia jorratzeko "dinamika aproposa" dela adierazi dute, eta "herritarrei gerturaztea" garrantzitsutzat jo dute. Sarrerak salgai daude jada.

Haurrek irudimenaz gozatu ahal dute Eneko Haritzarekin

Ipuin kontalari esperimentatuak Kulturateko bibliotekan eskainiko du saioa datorren asteartean, 18:00etan

H.L. ARRASATE

Eneko Haritza ipuin kontalariak 5 urtetik gorako haurrentzat moldatutako ipuinak eroango ditu Kulturateko bibliotekara martxoaren 16an. Ordubete inguruko saioan, "ondarea, kolorea eta zaporea biziberritzeko" proposak diren euskal ipuin herrikoak eta munduko herri ipuinak kontatuko ditu.

Hitzen jolasarekin arreta piztea maite du Haritzak; erritmoz eta doinuak kontuak "kantatzea", hitzekin irudiak imajinatu eta modu horretan entzuleak ipui-

nari bizia ematea, istorioari, hizkuntzari eta ahotsari "garrantzia emateaz" ahaztu gabe.

Euskal Herriko mito, ipuin eta kondairen jakitun da kontalaria, eta izaki guztien larruan jartzea gogoko du; laminek, Basajaunen, Tartaloren eta Mariaren berri izango dute, beraz, hitzordura gerturatzen direnek.

Horretarako, aurrez eman beharko dute izena haurrek, udal bibliotekaren webgunean. Santa Marinako auzo bibliotekan ere izango da entzuteko aukera, hilaren 24an.

"Kulpa bako plazera aldarrikatu nahi dugu"

VIRGINIA IMAZ PAILAZOA

Inma Merino sexologoak eta Virginia Imaz pailazoak 'tuppersex' eta ipuin erotikoen saioa eskainiko dute bihar, udaletxean, 10:30ean. Aurrez eman behar da izena

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Bihar, zapatua, *tuppersex* eta ipuin erotikoen saioa eskainiko dute Merinok eta Imazek. Izena aurrez eman behar da, 680 33 78 70 telefono zenbakian.

Tuppersex saioan zer eskaintzen duzue?

Inma Merino sexologoa aspaldiko laguna dut. Ahalduntze eskoletan, genero indarkeriaren inguruan... lan egin izan du. Behin, bere saio bat ikusten egon nintzen eta hain polita iruditu zitzaidan... elkarrekin zerbait egin genezakeela iruditu zitzaidan; izan ere, nik ipuin erotikoa kontatzen ditut. Hala, sortu dugu lau atal dituen saio bat; atal horien tarteetan, nik ipuinak kontatzen ditut.

Zer aldarrikatzen duzue?

Azken finean, aldarrikatzen dugu kulparik gabeko plazera sentitzea, gure gorputzarekin adiskidetzea, fantasiak... Konturatu gara herri txikietan zaila izaten dela jendeak galderak egitea, edo komentarioak... Azken finean, euren intimitatearen inguruan askorik jakin ez dadin. Baina konturatzen gara saioan aurrera egin ahala giroa aldatu eta lasaitu egiten dela.

Nolako jarrera izaten dute?

Jende askok sufritu egiten du gai horiekin. Horregatik, ona



Inma Merino eta Virginia Imaz. V.I.

"PLAZERAK ETA BARREAK BIZITZAREKIN KONEKTATZEKO BALIO DUTE"

da barre egitea. Bestalde, uste dugu jende gaztea aurreratuagoa dela, baina ez da horrela. Mito asko dituzte, azken finean, gai tabua delako. Sexua pornografiaren bitartez jasotzen dute, eta fikziozko sexualitate bat bizi

dute. Generoaren rolak ere indar handia du hor. Horregatik, oso garrantzitsua da dibulgazio lana egitea. Gure adinekoetan, aldiz, askok diote dagoeneko pertsiana itxita dutela... baina nork bere burua maitatzen ikasi behar du, mimoak eman, gorputza ezagutu... Aldarrikatu nahi dugu ez dagoela adinik. Nik umore puntua ipintzen dut saioan, eta horrek lagundu egiten du.

Plazera eta irribarrea, eskutik?

Hain zuzen, plazerak eta barreak bizitzarekin konektatzeko balio dute; buruarendako onak dira.

Kontrol sozialaren gaineko hitzaldia egingo dute bihar

Gazte Asanbladak antolatuta izango da, martxoaren 13an, zapatua, 17:00etan, kultura etxean

A.E. ARAMAIO

Aramaioxoko Gazte Asanbladak hitzaldia antolatu du biharko, zapatua. Pandemia garaian kontrol sozialaren eragina eta polizia izan duen jarrera izango dute berbagai: *Kontrol soziala pandemiaren garaian* izango da hitzaldia. Gaian arituak diren hizlariak etorriko dira Aramaio-ko kultura etxera.

Modu horretan, Aramaioxoko Gazte Asanbladak kontrol sozialaren zein polizia-lan- ketarekin jarraitu nahi du. Azaldu dute hitzaldiak alde

teorikoa bakarrik ez, praktikoa ere izango duela. "Poliziaren inguruan zelan jokatu" azalduko dute, besteak beste.

Azken urte honetako geldialdiaren ondoren, ATGA berriro ere martxan jarri da. Besteak beste, sare sozialetan kontua zabaldu dute, eta euren helburuen eta ekitaldien berri ematen dute han.

Bihar 17:00etan izango da hitzaldia, kultura etxean. Udal eraikinerako ezarritako edukiera muga eta segurtasun neurriak errespetatu beharko dira.



ERREZ KOOPERATIBA

San Kristobalgo pagadian lanean

Aramaio Udalak Errez kooperatiba kontratatu du San Kristobalgo pagadiaren azterketa egiteko. Hainbat pago kaltetuta daudela azaldu dute, eta, segurtasuna bermatzeko, arrama sikuak moztu ibili dira asteon. Modu horretan, gainera, pagoak saneatzeko aukera egon daitekeela azaldu dute Errez kooperatiba kideek.

OHARRAK

Esne bilketa Lesbosko errefuxiatuen alde

Egubakoitzean, 17:00etatik 21:00etara, eta zapatuan, 09:00etatik 14:00etara, esne kaxak jasoko dituzte Kintelenan. Behi esnea eskatu dute, osoa, eta iraungitze data luzea duena.

Formakuntza eskaintza nekazaritza sektorean

Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako Fundazioren (HAZI) formakuntza eskaintza modu digitalean dago ikusgai. Udaletxeko atari digitalean kontsulta daiteke.

Zineziklo feminista domekan: 'Carmen y Lola'

Ikusiz Gozatu zineklubak antolatuta, *Carmen y Lola* filma ikusteko aukera egongo da, kultura etxean, 18:45ean, domekan.

Asteleheneko manifestazioko doinua

Martxoaren 8a ospatzeko eta aldarrikatzeko manifestazioa kultura etxean hasi zuten.

Musikariak gogoan

Musika etxearen aurrean, Larraitx Arriolabengoak hainbat emakume musikari ekarri zituen gogora. Plazan, manifestazioa amaitzeko, June Ballesterosek eta Iraide Onaindiak eurek sortutako abestia eskaini zuten.



June Ballesteros Uribarren eta Iraide Onaindia Elexpuru. A.E.



Udalbatzako hainbat kide, ohiko osoko bilkuren aretoan, eguaztenean; gainerako zinegotziek etxetik jarraitu zuten. MIRARI ALTUBE

Batzordeak berrantolatu egin ditu Udal Gobernuak

EH Bilduko zinegotziak ez dira egongo Gobernu batzordean eta EAJko laugarren kide bat sartuko da; era berean, Ogasun batzordea sortu dute, eta horren buru Unai Elkoro alkatea da. Osoko bilkuran onartu zuten hori, Gobernuak kideen aldeko botoekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Agintaldi hasieran EAJren eta EH Bilduren artean adostutako Gobernu batzordearen lankidetzaren eredu apurto egin zen orain dela aste batzuk. Horren ondorioz, Gobernu batzordea berrantolatu du Udal Gobernuak, eta hori onartu zuen eguaztenean egin dako ohiko osoko bilkuran; EH Bilduk aurka bozkatu zuen.

Lau lagun Gobernu batzordean

Gobernu batzordean bost lagun egon daitezke, gehienez, eta agintaldia hasi zenean adostu zuten EAJko hiru izatea –Unai Elkoro, Karmele Uribarri eta Koldo Zubillaga– eta EH Bilduko bi –Ion Albizu bozeramailea eta Mikel Uribeztebarria–. Udal gobernuaren erabakiz, baina, aurrerantzean lau izango dira ordezkari jeltzaleak, eta bakarria EH Bildukoa. Alkatearen esanetan, lanerako erosotasun falta dago euren erabakiaren atzetan: "EH Bilduri esan genion bozeramailea ez genuela onartzen

batzorde horretan eta besteren bat jartzeko. Erantzunik ez dugu jaso. Guk laugarren kide bat sartu dugu: Xabi Otxoa. Baina bosgarrenarendako lekua hutsik utzi dugu, noizbait sartzea erabakitzen badute haiek".

EH Bilduko ordezkariak ez dute begi onez hartu udal gobernuaren erabakia. "Nahiz eta gehiengorik ez izan eta erabakigarriak ere ez, batzordean egoteak Udalaren gorabeheren gainean ematen digun ezagutza askoz aberatsagoa da. Uste dugu gardentasun eta elkarlan ikuspegitik ere hobe dela", dio Mikel Uribeztebarria zinegotziak. Kide bat sartzeko aukera, oster, ez dute onartu: "Baldintza bat jarri dute, eta ulertezina da erakun-

**UDAL PLANEAMENDUA
BATZORDEAREN
ARDURA ALKATEAK
IZANGO DU, ION
ALBIZUREN ORDEZ**

de batean beste batek aukeratzea alderdi baten ordezkaria zein izango den".

Ion Albizuren dedikazioa %75etik %50era murriztea ere onartu zuten –aho batez–, eta haren soldata gordina urtean 18.470,54 euro izango da orain.

Ogasun batzordea sortu dute

Aldaketa horren ondorioz, beste batzorde bat sortu dute: Ogasun batzordea. "Gobernu batzordean landu izan ditugu ogasunari dagokion gaiak, baina alderdi guztiak ez egotera, bosgarrena sortu da", dio alkateak. Hain zuzen, bera izango da batzorde horren burua, baita Udal Planeamenduarena ere, Albizuren ordezkari; eta Hirigintza Sailarena Otxoak hartuko du Elkororen ordezkari.

Gizartegintza alorrean ere aldaketa bat egin dute: Karmele Uribarrik jarraituko du izaten Ongizate eta Berdintasun sailen buru, eta Gazteria azpi-batzorde bat sortu dute, Ainhoa Caberoren ardurapean.



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA

Musikariek gabeko dantza

Futbola eta zaleak, zaleak eta futbola. Betidanik lotuta joan diren bi kontzeptu izan dira, amaiezina dirudien pandemia hau hasi arte.

Amodiozko erlazio bat balitz bezala, bakoitzak bere bidea hartu zuen COVID-19a gure bizitzaren parte izatera pasa zenetik; egia esateko, ez bata ez bestea ez dira zirenera izatera itzuli.

Grina asperdura bilakatu da, pasioa desilusio, itxaropena etsipen, plazera samintasun eta baikortasuna ezkortasun. Ongi etorri errealitate berri eta apetatsu honetara, non futbola ez den hain futbol. Denbora-pasa honen funtsa zaleak dira, Johan Cruyffek bere bibliografian azpimarratu zuen bezala: "Helburua zaleei gozaraztea da; azken finean, beraiek pozik egotea da garrantzitsua".

Zer da futbola zale gabe, eta alderantziz, zer da zale bat igandero futbol zelaira gerturatu gabe? Jende gabe jokatzeko musikariek gabe dantzatzearekin alderatu daiteke: ez du inolako zentzurik.



ANABEL DOMINGUEZ

Gidaliburua oparitu die Satsek

Satse erizainen sindikatuak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen zaintza profesionali buruzko gidaliburua banatu du udaletxean: *Atención y cuidados profesionales a mujeres víctimas de la violencia de género*. Udaleko Berdintasun batzordeko kideek argitalpenaren ale bana jaso zuten joan den egubakoitzean.

Literatura solasaldietan izena emateko azken eguna

Literatura solasaldiei ekingo diete Udal liburutegian apirilean eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Liburutegira jo behar da horretarako zein argibideak eskatzeko: 943 08 10 01. Gaztelaniazko saiok izango dira eta Monica Leivak zuzenduko ditu. Hilabetearen behin elkartzeko dira eta liburuak liburutegiak lortuko ditu.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

XIV. Huhezinema jaialdiari ekiteko gertu

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Fakultateko ikasleek Arkupen izango dute topagune martxoaren 17an eta 18an; hamalagarren jaialdirako sailkatutako film onenak erakutsiko dituzte bi egunetan, eta bukaera emateko sariak banatuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Euskal film laburren hamalagarren jaialdia hastear da. Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Fakultateko ikasleek azken kontuak lotu dituzte egunotan, eta gogotsu daude datorren astean filmak erakutsi eta sariak banatzeko.

Epaimahaia, osatuta

Eguaztenean, hilaren 17an, MU Saileko filmak erakutsiko dituzte Arkupen (15:00-18:30); Mondragon Unibertsitateko ikasleek egindakoen artetik hautatutako hamar film onenak hain zuzen ere. Eta egunean, martxoaren 18an, Sail Ofizialerako hautatutako beste hamar filmak (15:00-18:30). Ondoren, sari banaketa ekitaldia etorriko da (19:00-20:00). Arkupeneko edukiera mugatua izanik -50 lagunendako lekua dago-, *streaming* bidez ere emango dute jaialdia Huhezinemaren webgunean: huhezinema.eus.

Epaimahaia dagoeneko lotu dute, eta zinemaren bueltan eskarmentu handia duten lau lagun izango dira film onenak hautatuko dituztenak: Aizpea Goenaga (Donostia, 1959) aktore eta zuzendaria; Arantza Santes-teban (Iruñea, 1979) ikertzaile, hezitzaile eta zuzendaria; Erika Olaizola (Azpeitia, 1989) aktorea;



Ikasleak Arkupen orain dela bi urte, jaialdiari ongietorria egiten. IMANOL SORIANO

eta Irati Crespo (Errenteria, 1996) Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua. Lau horiek online hartuko dute parte.

Nobedadeen artean, Komedia saria dago; umore ukitua duten filmak txalotzea da asmoa. Mundukide saria -giza eskubideen eta justizia sozialaren gaia egokien txertatuta dituen film laburra- eta Vertigo saria -Muko ikasleek osatutako epaimahaia- ere banatuko dituzte, beste urte batez. "Film asko jaso ditugu. Sail Ofizialerako, 73, eta oso ezberdinak. Esperimentalak

dira asko", adierazi du antolatzaille taldeko Nerea Alonsok.

Egindako lana borobildu

Kultur ekitaldien antolaketa ikasgaiaren ikasleek "lan handia" dagoela jaialdiaren atzean diote eta hori borobildu gura dute: "Dirua lortzea kosta egin da; izan ere, ezjakintasun egoera honetan ezezko asko jaso dira. Baina aurrera egin dugu", dio Alonsok, eta gaineratu: "Gainera, jaialdia Arkupen bertan ezingo dute jarraitu gura duten guztiek, baina bai online bidez".

'Cholitas' dokumentala emango dute hiru egubakoitzetan

Glu Glu antzerki taldeak 'Erbia eta dortoka' antzezlanaren eskainiko die neska-mutikoei, domekan

M.A. ARETXABALETAKO

Martxoaren 8aren bueltako egitarauarekin jarraituko dute Arkupen, eta, gaur hasita, *Cholitas* (Espainia, 2019, 80 minutu) dokumentala eskainiko dute hiru egubakoitzetan (19:00). Boliako bost emakume indigenak ia 7.000 metro dituen Amerikako tontorrik garaienera igotzea dute helburu, Jaime Murciegok eta Pablo Iraburuk zuzendutako dokumentalean. Emakumeen ahalduntzea eta askatasuna irudikatu nahi dituen filmak sari ugari jaso ditu nazioartean.

Neska-mutikoei, osterar, *Erbia eta dortoka* antzezlanaren izango dute domekan (17:00), Glu Glu antzerki taldearen eskutik. Aski ezaguna den kondairaren moldaketa eroango dute Zazpik aretoan oholtzara 3 eta 7 urte arteko umeei eskaintzeko.

Pintura erakusketa

Erakusketa aretoa ere zabalik dago eta Maria Antonia Ugarte Garai arrasatearrak margotutako olioak, pastelak eta akuarelak daude bertan ikusgai, hilabetea bukatu artean.

'Bestelako baso kudeaketa' hitzaldia dago astelehenean

Errez kooperatibako kide Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebeste gonbidatu ditu Aretxabaletako EH Bilduk *Bestelako baso kudeaketa* gaiaren gainean jarduteko. Martxoaren 15ean, astelehenean, izango da hitzaldia, 18:00etan, Arkupen.

Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egingo dute lehenengo; basoak kudeatzeko eredu ezberdinak aurkeztuko dituzte gero; eta baso kooperatibaren sorreraren berri emango dute bukaran. "Gaiaren inguruan herri-tarrek duten iritzia entzun nahiko genuke, aretxabaletarren nahiak jasotzen dituen proposamena lantzeko", adierazi dute EH Bildukoek.

Binakako frontenis txapelketa antolatu du Sarek martxorako

Izan Bidea ekimenaren baitan, binakako frontenis txapelketa antolatu du Aretxabaletako Sarek. Martxoaren 27an eta 28an izango dira partidak, Iturri-igorri pilotalekuan, eta izena emateko epea zabalik dago, hilaren 21a arte -debalde da-. Posta elektronikoki bidez egin daiteke: atxabaltakosare@gmail.com; edo telefono bidez: 657 77 58 39.

Gari Atxabaltara! leloarekin egin dute lehiaketaren deialdia Sareko kideek, eta COVID-19aren aurkako neurriak errespetatuko direla txapelketak iraun bitartean adierazi dute antolatzailleek, eta herritarrek parte hartzera gonbidatu dituzte.

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa

Endodontzia

Inplantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

Goya baten balioa duen zigilua, Sergio Somerena

'Akelarre' filmak bost Goya irabazi ditu sarien 35. edizioan, eta horietako bat Jantzien diseinu onena izateagatik izan da. Zuzenean ez bada ere, Sergio Some eskoriatzarrak egin zuen filmerako zigilu bat, eta, beraz, bere aletxo ere jarri du Goya horren lorpenean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Sari hauek jaso zituen Pablo Agüero zinemagile argentinarrak zuzendutako *Akelarre* filmak: jantzien diseinu onena, efektu berezi onenak, makillaje eta ile-apainketa onena, jatorrizko musika onena eta zuzendaritza artistiko onena.

Horietako batean bere aletxo jarri du Sergio Some eskoriatzarrak. Hain zuzen ere, Jantzien diseinu onenaren Goya sarian. Arlo horretan saria Nerea Torrijos diseinatzaile bilbotarrak jaso du, eta bera izan da Sergio Some bitxigile eskoriatzarrari *Akelarre* pelikularako zigilueraztuna egitea eskatu ziona. Somek adierazi duenez, saria ez da berea, baina, nolabait, bere aletxo jarri du, eta, horregatik, oso pozik dago.

Aitortzarekin "pozik"

"Pozik eta hunkituta nago Nerea Torrijosek jaso duen Goya sariarekin. Bere lanak jarraitzen



Sergio Some bitxigile eskoriatzarra lanean. 'SERONOSER'

ditut, eta maiteminduta nago horietaz. Profesional peto-petoa da, eta eskerrak eman nahi dizkiot, Pierre Rosteguy De Lancré *Akelarre* pelikulako protagonistetako batentzat enkargatu zidan eraztun-zigilua egiteko aukera

emateagatik. Izan ere, bitxigile artisauek gisa nire aletxo jarri ahal izan dut horrela, eta aurrera begira bide berriak zabaltzeko lan honen bitartez...", dio Sergio Somek, Madrilen bizi den bitxigile eskoriatzarrak.



Akelarre filmerako egindako zigilueraztuna eta protagonista piezarekin. AKELARRE

Bere estiloarekin bat egiten duen lana gauzatzea ederra izan dela adierazi du, eta, emaitzaz gain, prozesuan ere gozatu dela dio. "Aukera aparta sortu zitzaidan, film baterako lan bat jasota, eta esan beharra daukat mimoz egindakoa izan dela. Egin nuen zigilueraztuna pantaila handian agertzearekin nahikoa nuen, baina pelikulak Goya sarietan izan duen arrakasta izugarria izan da. *Akelarre* filma 1609an girotuta dago, eta sorginkeria du ardatz. Euskal mitologiak zoratu egiten nau, eta garai hartako jantziak, bitxiak... pila bat gustatzen zaizkit. Oso inspiratzailea izan da niretzat gai hau lantzea, eraztun-zigiluhonez gain nire beste zenbait

lan egiteko", dio bitxigile eskoriatzarrak.

Akelarre filmerako zigilueraztuna eskuz landutakoa da, argizaritan, eta urre horiz egindako akaberarekin. Hala ere, lan horrez gain, goi mailako pasareletan jarri ditu ikasgai bere lanak, eta une honetan ere badiu beste hainbat proiektu esku artean.

'Seronoser' izenpean

Besteak beste, Francisco de Goyaren pintura beltzetan oinarritutako bilduma bat garatzen ari da momentu honetan, laster ikusgai izango duena. Egindako bestelako pieza eta lanak ikusi gura dituenak *seronoser* Instagram kontuan bila ditzake.

Udal aurrekontuari egindako erreklamazioa hizpide

Eskoriatzako udal aurrekontuak erreklamazio bakarra jaso du, Goiena Komunikazio Taldearena

I.B. ESKORIATZA

Martxoko ezohiko osoko bilkura telematikoa izan zuten martitzenean Eskoriatzako udalbatzako kideek. Gai bakarra izan zuten berbagai: aurkeztutako alegazioei buruzko eta 2021erako udal aurrekontuaren behin betiko onarpenari buruzko erabakia hartzea.

Horren baitan, erreklamazio bakarra izan du Eskoriatzako Udalak: Goiena Komunikazio Taldeak jarritakoa. Eta hori izan zuten hizpide. EAJren eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen

baiezko botoekin eta Bilduren ezezkoekin, bere horretan behin betiko onartu zuten 2021eko udal aurrekontua.

Erabaki beharreko puntua zein izango zen adierazteaz batera, honako hau adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJko bozeramaileak: "Ogasun batzordean onartutako irizpena onartzea tokatzen da eta gure aldetik baiezkoa izango du".

Erreklamazio bakarra

Hori esanda, eta norbaitek hitza hartu nahi ote zuen galdetuta,

honako hau adierazi zuen Nestor Aranak, EH Bilduko bozeramaileak: "Ulertzen dugu Goiinak erreklamazio bat egin dela. Joan den urtean beraiei esleitutako dirua eta aurtengo aurrekontuetan jarri ez dena erreklamatzeko dute, adostutakoa eta historikoki orain arteko datua –diru kantitatea– betetzea. Azken urteko urteak errepasatuz gero, diru kantitate bat esleitu da, eta bete izan da. Tamalez, hiru aldiz izan ezik. Aipatu genuen orain dela sei urte %40ko deskontu bat egin zela, eta iaz eta aurtun ere jaitziera bat izan da. Bestela, bete egin da, ez bakarrik Eskoriatzan, bailarako udal guztiek bete dute eta betetzen jarraitzen dute, ez da hutsegiterik egon, aipatu ditudan hiru kasu horietan izan ezik. Orduan, ulertzen dugu Goiena-

ren eskakizuna zilegi dela. Are eta gehiago, aurrekontuetan kontenplatuta zegoen, eta berarekin adostasunera heldu gabe egin da murrizketa".

Adostasunaren beharra

Aldaketarik egongo balitz adostasunetik egon beharko litzakeela azpimarratu zuen Aranak, udalak Goiengo Kontseilu Errektorean daudelako: "Herriko proiektu bat da, bailarakoa, eta euskararen aldeko apustu bat egiten da, mantendu beharrekoa dena, euskararen aldeko komunikabideak ez direlako horrenbeste. Orduan, erabaki hau euskararen kalterako dela uste dugu. Horregatik guztiagatik, Goiengoaren eskakizuna zilegi dela eta itzuli egin beharko litzatekeela orain arte adostutakoa uste dugu".

Dantza, hitzaldia eta antzerkia M8aren egitarauaren baitan

Asteburuan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren aldarrikapenei segida emateko zenbait hitzordu izango dira Eskoriatzan. Gaur, egubakoitza, *Ser mujer migrada en la sociedad vasca* hitzaldia izango da, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Hizlaria Tarana Karin izango da, Azerbaijanen jaioa eta Tolosan bizi dena. Zapatuan, aldiz, *Esnatu naiz* antzerkia izango da, Zaldibarren, 19:00etan. Identitate, giza harremanak eta sexualitatea izango dituzte hizpide, besteak beste. Amaitzeko, domekan, *Emakumeak mugimenduan* dantza tailerra izango da, frontoian, 18:00etan. Sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian daude salgai.



Martitzenean Fernando Eskoriatza plazan egindako elkarretaratzean batu zirenak. SARE ESKORIATZA

Torturatuak aintzat hartu ditu Marixol Iparragirrek

Auzitegi Nazionalen aste honetan hasi dituzten Marixol Iparragirrerren epaiketen aurkako elkarretaratzeak egin zituzten martitzenenean eta eguaztenean, 'Konponbidea orain, Marixol askatu!' lelopean, Fernando Eskoriatza plazan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Marixol Iparragirrerren aurkako bosgarren eta seigarren epaiketen baitan, elkarretaratzeak izan dira asteon Fernando Eskoriatza plazan, *Konponbidea orain, Marixol askatu!* lelopean. Ez soilik epaiketen harira; Iparragirre bizi izaten ari den isolamendu egoera ere nabarmendu gura izan dute antolatzaileek.

Auzitegi Nazionala martitzenean hasi zen epaitzen Iparragirre, 1985eko ekainean Estanislao Galindez Amurrioko postariaren hilketan parte hartu zuelakoan. Eguaztenekoan, berriz, 1994an Bilboko NAN bulegoan izandako atentatuan polizia nazional bat hiltzea eta

beste bat larri zaurituta uztea egozten diote. Amurrioko postariaren hilketaren auzian, Ministerio Publikoak 39 urteko kartzela-zigorra eskatu du, eta 60 urtekoa Bilboko NAN bulegoaren aurkako atentatuagatik.

Torturatuak gogoratuz

Eguazteneko Auzitegi Nazionalaren epaiketan, torturen inguruko isiltasuna salatu zuen Iparragirrek, eta biktima guztien aitortza prozesu bat eskatu. "Beharrezkoa da prozesu bat irekitzea, mundu guztiak askatasunez hitz egin dezan, eta biktima guztiak aintzat hartu behar ditugu, gatazka errepika ez dadin". Honen aurrean, Manuela Fer-

nandez Prado epaileak hitza eten zion, halako eztabaidetan sartzeko unea ez zela egokia esanez. Horrekin batera, honako hau ere adierazi zuen Iparragirrek: "2019an amaitu nuen nire kondena, baina oraindik epaitu egiten naute, eta ehun urtetik gorako zigor bat dut dagoeneko, kondena berri bat hasi dut".

Egoerarekin kezkatuta

Marixol Iparragirrerren egoerarekin kezkatuta agertu dira euskal presoek giza eskubideen aldeko zenbait eragile, eta bizi izaten ari den isolamendua jendartearen artean zabaltzea da elkarretaratzeak egitearen arrazoiak, besteak beste.

Kulturari balioa eman eta landa eremu bizia aldarrikatzeko

'Bideak' izeneko dokumentala proiektatuko dute hilaren 21ean, Zaldibar antzokian, 19:00etan

I.B. ESKORIATZA

Artzaintza ardatz hartuta, ibilbide horretan zehar hamaika ahots eta lekukotza jasotzen dira *Bideak* izeneko dokumentalean, eta guztiek helburu bera dute: landa eremuari eta kulturari

balioa ematea eta landa eremu bizia aldarrikatzea, hiriaren eta landa eremuaren arteko zubiak eraikitzea. Artzain baten hasierako ideia xume batetik sortutako proiektuaren fruitua da dokumental hori, eta protagonisteta-

ko bat Aritz Ganboa da, ETBko *Biba* zuek programan ezagun egin dena, Arruazun duen Albi etxaldetik egiten dituen zuzenekoengatik.

Proiektzioa martxoaren 21ean izango da, Zaldibar antzokian, hizkuntza originalean, azpitu-luekin, eta sarrera hiru eurotan erosi daiteke. Gainera, dokumentalaren ondoren solasaldia egiteko, Xabier Unanua *Bideak* dokumentalaren zuzendaria eta Aritz Ganboa lan horretako protagonista izango dira.

LEINTZ GATZAGA

Larreak ustiatzeko lanetan, ekintza plana prest dago

Usokoitz abeltzain elkarteak larreen kudeaketa jasangarria egiteko helburua du, eta horretan ari da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Joan den egubakoitzean banatu zituen Landaola Federazioak IV. Landaola Sariak. Gipuzkoako landa garapenerako proiektuei aitortza emateko asmoz, erakunde pribatuak eta publikoak zeuden hautagaien artean, eta horietako bat izan zen Usokoitz abeltzain elkarteak. Saririk ez jaso arren, elkarteak osatzen duten bederatzi kideak pozik agertu dira aitortza horrekin, eta aurrera begirako ekintza plana adostu dute.

Gatzagako Udalaren, herriko abeltzainen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean kudeaketa iraunkorra egiteko helburua du taldeak, eta Aitziber Gorosabel Usokoitz abeltzain elkarteak kideak eman du egiten dutenaren berri: "Larreen kudeaketa zuzena egiten dugu. Hain zuzen ere, elkarteak 2014an sortu zen, baina lantaldeak

lehenago hasi ziren bilerak egiten, egin beharrekoak gauzatu ahal izateko".

Beharretara egokitutako lanak

Larreen kudeaketa Foru Aldundiak egin arren, abeltzainen beharretara egokitutakoak izaten direla adierazi du Gorosabelek: "Soinketa lanak, ongariak, hesiak jausi egiten dira, ur askak ere ondo mantendu behar dira... Lan horiek guztiak abeltzain elkartetik errazago egiten saiatzen gara; gure, Udalaren zein Aldundiaren beharren arabera".

Larreez gain, basoetan ere beharrak dituzte, eta, baserri-tarren laguntza ezinbestekoa dela nabarmenduta, Landaola sarietan hautagai gisa egotearen aitortza Usokoitz abeltzain elkarteak kideentzat eta baserri-tar guztientzat dela azpimarratu du Gorosabelek.



Ahuntzak Leintz Gatzagako belardi batean. I.B.

M8ko ekintzekin jarraituz, kontzertua eta antzerkia

Sorgiñak Emakume Elkarteko kideek deituta, Emakumeen Nazioarteko Egunean, astelehenean, elkarretaratzea egin zuten Leintz Gatzagako plazan. Horrekin batera, azken urteotan egin moduan, zinta moreekin apaindu zuten herria, eta, egunerako prestatutako bertsoa kantatzeaz batera, dantza egin zuten plazan batutakoek.

Hala, Martxoaren 8aren baitan, asteburu honetan ere izango dituzte hainbat ekintza. Gaur, esaterako, Indai talde bergararren emanaldia izango da, 19:00etan, plazan. Beste talde batzuen bertsioak eskainiko dituzte emakume bergararrek.

Domekan, berriz, martxoaren 14an, *Luze edo motz* bakarrizketa izango da, kultura etxean, 18:00etan. Ikuskizun horretan edukiera mugatua izango da, eta bertara joateko izena eman beharko da, Labidean.

Monzon gogoratu, eta Olaso zabaldu

Telesforo Monzon hil zela 40 urte bete direla-eta Olaso dorrea irekiko dute bihar, hainbat urtez publiko orokorrari itxita egon ostean, eta hilaren 20rako omenaldi bat antolatu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

"Alkate jauna, bergararrok: hemen duzue gaur, zuen begien aurrean, munduko gizonik zorionsuena". 1977ko abuztuaren 6an, jaioterrira itzuli zenean eta udaletxeko balkoitik plaza goraino beteta zela, hitz horiekin hasi zuen Telesforo Monzonek bere hitzaldia. Izan ere, 40 urtez jaioterritik kanpo bizi izan ostean, 1977ko udan Askatasunaren Ibilaldiarekin batera itzuli zen Monzon Bergarara.

Lo-zakuekin, Olason lo egin

Orduko alkate Jose Luis Elkorok ondo gogoratzen du nola bueltatu zen bere jaiotetxean bizi izatera, Olaso dorrera: "Telesforo kanpoan egon zen bitartean Olaso dorrea frankistek eta euren aldekoek okupatu zuten, eta ez zen inor arduratu etxea bera zaintzeaz. Amorratuta bizi izan zuen Telesforok bere jaiotetxea oso egoera kasarrean zegoela ikustea... Lehen gaua gure etxean pasatu zuten Telesforok eta bere emazte Josefak, baina hurrengo egunean lo-zakuekin joan ziren Olasora; arratoiak ere izango ziren bertan... eta han egin zuten lo. Garbiketa eta konponketa lan batzuk auzolanean egin ostean, Monzonen familiak diru asko jarri behar izan zuen dorrea txukun eta dotore uzteko".

Olaso dorrea zabalik, gaurtik

Elkorok Goiena telebistan asteen emandako elkarrizketan aipatutako Olaso dorrearen atearak gaur irekiko dituzte, bisita gidatuen bidez bergararrek eta kanpotik datozen bisitariak horren berezia den ondarea bertatik bertara ezagutu dezaten. Gutxienez, maiatzera arteko itxarote-zerrenda luzea dago bisita horietarako, ikusmin

handia piztu duen seinale. Hain zuzen ere, ikusmin hori azpimarratu du bisiten aurretik Monzonen etxeko txoko batzuk erakusteko GOIENARI atearak ireki dizkion Olaso dorreko zaindari eta bisita gidatuetako gidari izango den Javier Lazkanok: "Etorriko diren bisitatiek hainbat sorpresa aurkituko dituzte; espero dugu herritarren gustukoa izatea".

Lorategitik hasiko dira bisitak: "Olasotarrak Bergarara nola etorri ziren, eraikinak zein historia izan duen kontatuko dugu bisiten hasieran". Lorategian hasitako bisitak Telesfororen anaia Isidoren etxebizitzan izango du amaiera. "Isidro beti egon izan da Telesfororen itzalean, baina azkeneko urteetan badakigu oso pertsonaia inportantea izan zela arkitekto bezala. Elgetako frontean egon zen borrokan 36ko gerran, eta, gerra galdu ostean, Venezuelara joan zen ihesi. Caracasen dirua egin ostean, mundu osoa zeharkatzen ibili zen, eta hamasei milimetrotan grabatutako filmazioak Euskal Filmetokan daude artxibatuta. Gerora, Iparraldera bueltatu zenean, hainbat eraikin altxatu zituen, eta, gaur egun, Monzon estilo moduan izendatzen da modu ofizialean", zehaztu du Lazkanok. Hain justu ere, Olaso dorreko bisitariak bertatik bertara ikusiko dugu Isidro Monzonen etxebizitzako dekoratua oso bestelakoa dela: "Igartzten da gizon hura arki-

BISITEK IKUSMIN HANDIA PIZTU DUTE, MAIATZERA ARTEKO ITXAROTE-ZERREND DAGO-ETA, GUTXIENEZ

tektoa zela eta mundu zabalean ibili zela; hala, bisita gidatuak hemen bukatuko dira". Eta lorategitik eta Isidro Monzonen etxera bitarteko tartean, hainbat bitxikeria eta kuriositate ezagutzeko aukera izango da. Bisitak ordu eta erdikoak izango dira; edozelan ere, Olaso dorreko txoko guztiak ez dituzte erakutsiko: "Goiko solairuan artxibategia eta liburutegia daude, baina horiek ez dira irekiko bisita gidatuetan; bost minutuko bideo baten bidez erakutsiko eta azalduko zaie bisitariei artxibategi eta liburutegi horretan dagoena".

Frankistek okupatua urte luzez

Lazkanok gogoratu du Telesforo Monzonek erbestera ihes egin ostean, 1937an, Olaso dorrea frankistek okupatu zutela: "Konfiskatu egin zuten, eta urte luzez izan ziren hemen. Lehen solairuan El Circulo Carlista izeneko taberna bat ireki zuten eta bigarren solairuan falangisten egoitza egokitu zuten. Altzari asko, esaterako, Aieteko jauregira eroan zituzten, Francoren udarako egoitzara. Oso mingarria izan zen Telesfororentzat bere etxea nortzuek okupatu zuten jakitea".

Frankistek konfiskatutako guztia ez da dagokion lekura itzuli, Lazkanok argitu duenez: "Pazo de Meiras-en inbentarioa publiko noiz egingo den zain gaude, Olaso dorreko zerbait eroan zutenaren deskribapen nahiko zehatza dugu, baina ez dakigu; Pazo de Meirasen zerbait egonez gero, ea berreskuratzerik dugun". Dorretxeko hainbat altzarik konfiskazio-zigilua dute itsatsita oraindik; Franco hil ostean, ondasunak berreskuratzen ziren.



Ezkerrean eta goialdean, Juan Antonio de Lizasoain pintore bergararraren koadroa.



Olaso dorreko ataria; tartean, 1977ko Askatasunaren Ibilaldiko argazkia ageri da.

"Pozik egongo zen; bide onetik doa gure helburuak lortzeko borroka"

JOSE LUIS ELKORO MONZONEN LAGUNA ETA ALKATE OHIA

Goiena telebistan izan da asteen Elkorok, "lagun handia" hil zela 40 urte bete direla eta.

Biziko balitz, nola baloratuko zukeen egungo egoera politikoa Monzonek? Pozik egongo zen. Ezker abertzalearen sortzaileetako bat izan zen, eta ezker abertzalea indartsu dago gaur egun. Bide bat ireki zuen eta bide horretan ez dugu atzerapausorik eman. Oztopen gainetik aurrera doa, eta bide onetik, gainera, gure helburuak lortzeko borroka.

Eta zer ez zitzaion gustatu? 1977ko hauteskundeak aurretik Xibertan abertzaleen batasunik lortu ez izana porrot handia izan zen berarentzat. Euskal Herriko indar guztiak batzea eta Madrili aurre egitea bere ametsa zen; Xibertako elkarrizketek esker piztu zen itxaropena ez zen posible izango Telesfororen itzalpeko lanagatik ez balitz.



J.B.

Zure bizipenetatik, zerk egin zuen huts Xibertan?

Espainiako hauteskundeak planto egitea zen asmoa, frankismoko presoei amnistiarik ez bazieten ematen. ETAk baldintza moduan jartzen zuen hori, eta gehienok geunden ados. Oso presente daukat EAJko Xabier Arzallusi ilusio berezia egiten ziola Xibertak, baina atzera bota zuten. EAJk erabaki zuen aurkeztuko zirela; gainerakoak ez geunden ados. Penaz bizi izan zuen Telesforok.



Telesforo Monzon ageri den koadroa, balio handiko beste artelan eta altzari batzuekin, beheko solairuan. ARGAZKIAK: JULEN IRIONDO

Martxoaren 20an omenaldia

Telesforo Monzonen heriotzaren 40. urteurrenaren barruan hainbat ekitaldi antolatu dira. Martitzenean, efemeridearen egunean, banatu zuten lehen *Monzon-Ganuz*a saria, eta bihar, martxoak 13, irekiko diote publiko orokorrari Olaso dorrea.

Baina egitaraua ez da hor amaitzen. Izan ere, martxoaren 16an, Telesforo Monzonek idatzitako *La voz del pueblo* liburuaren gaineko solasaldia egingo dute Jose Luis Elkorok eta Mikel Zubimendik, Olaso dorrean (18:30). Eta egitarauari amaiera emateko, martxoaren 20rako, Bergarako Ahaztu Barik taldeak omenaldi-jaialdia antolatu du, udal pilotalekuan, 17:00etan hasita: *"El jarrón roto"* idazlanetik tiraka *Loreontzia berreraikiz* izeneko omenaldi-jaialdia antolatu dugu. Monzonek *El jarrón roto* idatzian bere mina adierazi zuen Espainiako Estatuak euskal lurraldeen zatiketa inposatu zuelako; euskal lurraldeak, loreontzia izango zirena, apurtuz. Jaialdian loreontzia berreraikiko dugu, herri ikuspegitik eta ikuspegi kulturaletik".

Kultura ukitu nabarmena izango duen ekitaldia izango da, beraz: "Ikuskizun oparoa antolatu dugu. Alde batetik, Ipar zein Hego Euskal Herriko kultura sortzaileak izango dira gurekin; betiere, epizentroa Bergaran jarrita, bertako kultur-sortzaileen protagonismoa

handia izango delako. Hala, Euskal Herri osoa irudikatzen duen puzzlea, loreontzia, osatuko dugu puskaz puska". Hori baino gehiago ere antolatu dute, eguazten iluntzean Olaso dorreko lorategian egindako prentsaurrekoan azaldu zuten: "Monzon hil zenetik 40 urte pasa diren honetan, euskal kultura biziberrituz eta eraldatuz joan da, kultura bizirik dagoen seinale. Horregatik, euskal kulturaren adierazpide anitzak batuko ditugu jaialdian, musikari tarte berezia eginez: Monzonen letra eta abestietatik abiatuz, ikuspegi kulturaletik hamaika adierazpide taularatu dugu, klasikoak eta modernoak; atzokoak, gaurkoak eta biharkoak".

Frontoiko oholtzara igoko diren artean egongo da Gotzon Barandiaran kultura sortzailea, euskal kulturaren transmisioaz eta biziberritzeaz arituko dena. Olaso Dorreko Urko Aiartza, berriz, Telesforo Monzonen ondare kultural eta politikoaz arituko da: "Hitz gutxitan, Euskal Herriak eta euskal kulturak bi estaturen menpe eta mundu globalizatuan bizirik jarraitzen duela ospatu eta etorkizuna

MARTXOAREN 20KO OMENALDIRAKO SARRERAK SALGAI DAUDE POL-POL ETA ARRANO TABERNETAN

bermatzeko, Monzon gogoan, gure proposamena plazaratuko dugu". Honako talde hauek hartuko dute parte jaialdi-omenaldi horretan: Moises Azpiazu Dantza Taldeko eta Bergarako Musika Eskolako dantzariak, Bergarako marrazkilari eta grafiti-egileak, Brigade Loco musika taldea, La Basu eta Chill Mafia. Jaialdia borobiltzeaz arduratuko dira Maddi Ane Txoperena eta Sustrai Colina. Sarrerak salgai daude dagoeneko Pol-Pol eta Arrano tabernetan, hamar eurotan. Sarre-



Telesfororen anaia zen Isidro Monzonen etxean amaituko da bisita gidatua.

retatik lortutako diru guztia euskal kultura sustatzera bideratuko dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Bergarako EAJren salaketa

Bestalde, Bergarako EAJk ez du begi onez ikusten Udalak Olaso Dorrea Fundazioarekin adostutako hitzarmena, eta, otsailaren 22ko osoko bilkuran egin moduan, ohar bidez berretsi dute akordioarekin zantzak dituztela: "Hitzarmenak hainbat eta hainbat hutsune ditu. Edozein elkarterekin edo fundazioarekin hitzarmen bat sinatu aurretik, guztia ondo lotu beharra dago; bergararren diruen kudeaketa zintzotasunez eta arduraz egin beharra dago".

Jeltzaleek salatu dute Bergarako Udalak 20.000 euroko dirulaguntza emango diola Fundazioari urtero, eta beste hain-

bat galdera bideratu dizkiote Udal Gobernuari: "Nola da posible aktibitate edo emergentzia planik gabe martxoaren 13an bisitak zabaltzea? Edozein ekintza, taberna edo komertzio zabaltzeko ezinbestekoa da... Zergatik Fundazioarekin ez? Nola da posible Udalak turismo plana izan gabe lau hilabete barru jasoko da horrelako dirulaguntza bideratzea, planaren emaitza ezagutzeke? Hitzarmenak ez du jasotzen bisitariak ikusiko duena zer den, eta, gainera, Udal Gobernuak otsailko osoko bilkuran ez zuen erantzuten jakin bisitariak zer ikusiko zuen eta nola gauzatuko zen bisita. Ez du inongo planik jasotzen. Gainera, hitzarmena bilkuran onartu aurretik, webgunean, prentsan... publikatuta zegoen, Udalaren ikur eta guzti".

Banatu dute lehen 'Monzon-Ganuz' saria

Martxoaren 9an, Monzon hil zela 40 urte bete ziren egun berean, banatu zuten Olaso Dorrea Fundazioak eta Udalak sortutako lehen *Monzon-Ganuz*a saria. Seaskako ikastolen lehen andereño izan zen Libe Goñi Garatek (Oteitza, 1947) jaso zuen saria, "biziki eskertuta"—ikus elkarrizketa 10. orrian—. Gorka Artola alkateak "urte luzez isilean" egindako lana aitortu zion Goñiri: "Azken 50 urteotan, Libe Goñi bezala, beste ehunka lagun, isilean, egunez egun, eskuz esku aritu dira euskararen, euskal kulturaren, euskal jendartearen alde, elkartasunez... Eta, agian, saritzen ditugun Goñi anderearen balioetan daude datozkigun garaietarako



Aurrekua dantzatu zioten Goñiri; atzean, Zaloa Ipiñaren artelana. J. BEREZIARTUA

konponbideen errezetak: lana, lana, eta ahal dugun guztietan elkarlana". Olaso Dorrea Fundazioko presidente Iratxe Esnaolak sariketa bera goraipatu zuen: "Hori da martxoaren 9ari

eman nahi diogun esanahia: Euskal Herriari, bere lurralde guztiei, euskal kultura zein hizkuntzari eskainitako bizi oparoa izan dutenen eguna izatea nahiko genuke".

Pentsioen alde egindako lanagatik omenduak

Bizkaitarra da Pilar Kamiruaga eta Extremaduratik etorritakoa, berriz, Kontxi Tena; ia bizitza osoa eman dute Bergaran lanean: hain zuzen ere, Kamiruagak zaintza lanak egiten eta Tenak Soraluzeko eta Mekolaldeko, fabriketan

H.L./J.O. BERGARA

Bergarako pentsiodunen mugimenduak omenaldi berezia egin nahi izan die emakume pentsiodunei, eta, bereziki, azken hiru urteetan hutsik egin gabe kalera atera diren Pilar Kamirugari eta Kontxi Tenari. Biek iritzi bera partekatzen dute, "lan asko eginagatik ere pentsio duintik" ez daukatela, eta "belaunaldi berriei borrokan jarraitzea" tokatzen zaiela.

Omenaldiagatik hunkituta agertu dira. 13 urte zituela hasi zen lanean Kamiruaga: "Ez baduzu ezer egiten, hemen ez da ezer lortzen, denak lapurretan, besterik ez dute egiten". Eta haxe esan zuen Tenak asteleheneko omenaldian: "Mundu osoari eskertu nahi diot; bereziki, bergararrei. Nire jaioterriari ez diot ukorik egiten, baina oso gustura nago hemen".

Eskaerak, bizimodua hobetzeko
Pentsiodunen mugimenduko kideek, bestalde, "milaka emakume pentsiodunek bizi duten miseria" salatu dute, eta "genero-arrakala desagerrarazi nahi duen neurritik" ageri ez dela nabarmendu. Izan ere, pandemiak desberdintasun horiek "areagotu" egin dituela uste dute, emakumeen aitortu gabeko lanaren



Kamiruaga eta Tena, astelehenean egindako omenaldian. HASIER LARREA

kontura arreta lanak areagotu egin direla eta.

Emakume pentsiodunen borroka "hamarkadetan zehar lan merkatutik kanpo utzi dituen sistema patriarkalaren aurkako borroka eta aliantzak eraikitze-ko espazio" gisa definitu dute emakume pentsiodunek.

Eskubideetan eta pentsioetan benetako berdintasuna lortzen ez den bitartean adineko emakumeek euren bizitzaren amaiera "larrituta, bakardadean, pobrezian, abandonatuta eta gizar-terte-bazterkerian" bizi beharko

dutela argi dute pentsiodunen mugimendukoek, gainera.

Genero-arrakala ezabatzea


Horrexegatik, besteak beste, eskatzen dute 1.080 euroko gutxieneko pentsioa izatea, genero-arrakalaren desagertzea, zainketa lanen aitortzea soziala eta ekonomikoa, ordaindu gabeko lanaren gaineko eztabaida publikoa eta alarguntza pentsioa bat etortzea kotizatzailearen ezkontideak adin mugarik gabe kobratutakoaren ehuneko ehunarekin.

Mariaren Lagundiko ikasleak, Yune Nogueirasekin berbetan

Martxoaren 17an —eguztina— egongo da ikusgai saio osoa, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean

J.O. BERGARA

Bergarako Mariaren Lagundia ikastolako ikasleek Yune Nogueiras aktore eta musikari bergarra elkarrizketatu zuten joan den otsailaren 26an. *Galdegazte* saioaren zazpigarren denboraldiaren baitan, martxoaren 17an egongo da saioa ikusteko aukera Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.



Yune Nogueiras, saioko platoon. I.S.

Saioa barrutik ezagutzen

Bergarar aktore gaztea hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain, telebista plato bat, errerealizazio gela bat eta erredakzio bat ezagutzeko tartea izan dute ikasleek. Ikastetxe bakoitzeko lau ikasle hartzen dute parte saio bakoitzean, modu zuzenean; Mariaren Lagundiko ikasleen kasuan, Aitor Arzelus eta Elene Mendizabal aritu ziren kazetari lanean, galderak egiten.

Ekai Kortabarriak eta Elene Mendizabalek, aldiz, saioa nola errerealizatzen den zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Jokin Bereziartua *Galdegazte*-ko aurkezlearekin elkarlanean elkarriketa prestatzeaz arduratu dira ikasle bergararrak.

Agorrosingo arauak bete egin behar direla gogorarazi du Udalak

Udal Gobernuak gogora ekarri du gaur egungo osasun egoeran kirol eskaintza mantentzeko arauak betetzea "ezinbestekoa" dela. "Erabiltzaileei gogorarazi nahi zaie maskara une oro eraman behar dela, baita intentsitate handiko ariketetan ere. Dutzatzeko unean baino ezin da erantzi". Hain zuzen, gogorarazi dute aldageltan aldiko per-

tsona bat dutxatu daitekeela: "Aldageltan ezin da ezer utzi, takiletan sartu behar dira arropa, zapatak eta ekarritako guztia; lekutik kanpo utziz gero, ezin da garbiketa edo desinfektzio-lana behar bezala egin; ondorioz, ingurunea kutsatuta egon daiteke", gaineratu dute.

Txanda errespetatzea eta elementuak desinfektatzea norberaren ardura dela gogoratu dute: "Pertsonaren bat kutsatuta badago, beste pertsonaren bat kutsatu dezake".



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Erramu Zapatura begira, txorimaloak egiteko deialdia

Goiena komunitatea

Jardun Euskara

Azken 26 edizioetako leloen eta txorimaloen irudiekin erakusketak antolatzen dabilta. Aurten egindako edo aurreko urteko argazkiak bidaltzea animatu nahi izan dituzte herritarrek. Hilaren 22ra arte bidali daitezke; 605 71 24 69 telefonora edo: gaztejardun@topagunea.eus.



Lidl supermerkatuari salduko dioten Amillagako Soraluze enpresaren pabilioia, atzo goizeko irudian. JONE OLABARRIA

Soraluce enpresarekin hitzarmena, moldatuta

COVID-19ak Soraluze S. Coop enpresaren ohiko jardunean izan dituen ondorio ekonomikoek eta aurtengo aurreikuspenak eraginda sinatu dute Udalak eta enpresak ezarritako ordainketa epeen atzeratzea onartzen duen hitzarmen moldatua

J.O. BERGARA

COVID-19ak eta horrek eragindako pandemiak ekonomian "eragin zuzena" izan du, baita makina-erremintaren alorrean ere. Hala zehaztu zuen Soraluze S. Coop. enpresak iazko azaroan udal erregistro-sarrerarekin idatzia aurkeztu zuenean: "2020ko Kudeaketa Planean aurreikusten zen fakturazioan % 20ko jaitsiera izan da, eta eskaeretan %30eko jaitsiera. Pandemiaren bigarren olatuak ere 2021eko aurreikuspena iluna izatea ondoriozta dezake".

2019an adostutakoa

Bergarako udalbatzak hitzarmena onartu zuen 2019an Soraluze enpresarekin, enpresak Osintxun duen planta egonkortu -beste pabiloi bat eraikiko dute- eta Amillagako lantokian Lidl supermerkatu bat zabaltzeko. 2020ko azaroko ohiko osoko bilkuran jada eztabaida sortu zuen hitzarmen berriak. Bere momentuan EH Bilduk izandako jarre-

ra salatu zuen orduan EAJk: "2019an hitzarmen hau udalbatzara etorri zenean, EH Bilduk bere abstentzioa aurkeztu zuen. Ez zen batere ausarta izan, ez zuen Soraluceren aldeko apusturik egin".

Egoera aldatzean gauzatzeko

Egoera ekonomikoak eraginda, eta kontuan izanik Lidl-i egingo dioten Amillaga poligonoko pabiloien salmentak "ezin izango duela estali Osintxun eraiki behar duten pabiloi berriaren inbertsioa", hirigintza-hitzarmeneko ezarritako ordainketa betebeharren epeak atzeratzea eskatu zuen Soraluze.

Hala zehaztu zuten Udaletik: "Bigarren estipulazioko epeak

"COVID-19AK ERAGIN DUEN EGOERARI BUELTA EMATEAN EGINGARRIA IZANGO DA HITZARMENA"

luzatzea eta Lidl Amillagako pabiloian ezarri ahal izateko abian dagoen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldatetarekin jarraitzea eskatu zuten. Soraluze kooperatibak bere aktibitatea Bergaran finkatzea helburu duen hitzarmen honetan moldaketa batzuk egin behar izan dira pandemiagatik; egoera honi buelta ematen diogunean egingarria izango da hitzarmena".

Aho batez onartua

Udal arkitekto zerbitzuburuaren txostenari eta Lurraldeko batzordearen proposamenari jarraituz, udalbatza osatzen duten 17 udalkideetatik bertaratutako 16k aho batez onartu zuten otsailaren 22ko ohiko osoko bilkuran Soraluze S. Coop. enpresarekin garapen industrialerako adostutako hirigintza-hitzarmenean eskatutako aldateta onartzea.

Hala, asteon sinatu dute hitzarmena Gorka Artola alkateak eta Soraluze Rafael Idigorasek.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zalantza egoiliarren eremuko erabileran

Herriar batek galdetu du ea Errekalde jauregiko lorategiko eremua ez den Mizpirualdeko egoiliarrendako: "Egoiliarrendako eremua bada, zergatik erabiltzen dute egoiliar ez direnek?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Bizipoza elkartearen jaiaren baitan, ekintza ugari asteburuan

Bihar, hilak 13, egingo dute *Mundu berri bat guztiontzat* ekitaldi irekia, frontoian, 18:00etan hasita. Bizipoza egitasmoaren baitako lau elkarteen eta bertako kide diren bergararren esperientziak ezagutzeko aukera izango da. Ekitaldian, Indai talde bergararrak emanaldia eskainiko du eta Aroa Elortzaren poesiak ere izango dira gozagai. Doako ekitaldia da eta sarrerak Seminarioko webgunean eskuratu daitezke. Domekan, martxoaren 13an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek etxeko txikienendako emanaldia egingo dute, Udal Pilotalekuan, 11:30an. Sarrerak agortuta daude dagoeneko.

OHARRAK

Ohiko batzar nagusia

Martxoaren 23an, asteazkena, Bergarako Musika Eskolako ohiko batzar nagusia egingo dute, 19:00etan eta 19:30ean.

St. Patrick's kontzertua

Shane Curleyk eta Azkaiter Peloxek eskainiko dute, hilaren 18an, Seminarioan, 19:00etan. Zortzi euro da.

Zinekluba gaur

Dynamo zineklubak eta Angiolillo liburutegiak elkarlanean antolatu duten transexualitateari buruzko martxoko zine zikloaren baitan, *El último verano de la boyita* filma egongo da ikusgai gaur, 18:30ean, kartzela zaharrean.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

121
 KALITEA
 Empresa Registrada 1100/025



Kaxeta inguruko bide berde zatian emakume bat txakurrarekin. MAIDER ARREGI

Basolanek pare bat aste iraungo dute, oraindik

Martxa onean doa Irimoi eta Lizarraga auzo artean egiten ari diren basolana. Eguraldia lagun izan dute, eta, horregatik, bide berdeak kalte gutxi izango ditu; dena den, lanok amaitzean, enpresak bidea txukundu egingo du erabiltzaileendako

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako trenbide zaharreko bide berdea beste pare bat astez itxita egongo da erabiltzaileendako aste barruan. Izan ere, Irimoi auzotik Lizarragarainoko tartean, *Kaxeta* inguruan hasita, basolanetan dihardute eta kamioendako pasoa dago bertan. "Pinuak botatzen dihardute, eta, lanok errazago egite-

ko, trenbidean bertan lan egiteko baimena eskatu zuten. Hilabete eta erdiz egongo da itxita bide berde zati hori. Eguraldi ona lagun izan dute, eta kalte handirik egin gabe aterako dituzte pinuak", azaldu du Ion Aranguren, Nekazaritza eta Ingurumen zinegotziak.

Basolanak amaitutakoan, enpresa bera arduratuko da bidea

txukuntzeaz. Bien bitartean, asteburuetan dute antzuolarrek trenbide zati horretan paseatzeko aukera. "Herritarrei eskatu gura diegu pazientzia pixka bat; elkarbizitza egoera hau ulertzea, alegia. Hala, zapatuan eta domekan sarrera erabilgarri egon dadin, txukuntzeko eskatu diegu enpresari, eta hala egiten ari da", argitu du zinegotziak.

Jauregiko tuneleko obra, geld

Martxoan hastekoak ziren bide berdeko eta Jauregiko tunelaren obrak. Enpresak, ordea, lanei ez ekitea erabaki du azken unean, Diputazioarekin daukan desadostasuna medio. "Beste behin, herritarra da kaltetua. Enpresa berri bat kontratatzeko prozesuak luze jo dezake, gainera. Lanekin lehenbailehen hasteko borondatea eskatu gura diegu Diputazioari".



Jauregiko tunela hondatuta. M.A.



Antzuolako zentroko erabiltzaile bat txertatzen. ANTZUOLAKO EGUNEKO ZENTROA

Pfizer txertoa jaso dute Eguneko Zentroko hamaika erabiltzailek

"Pozik" hartu dutela txertoa eta lasaitasuna ekarri diela aitortu dute familiek eta Eguneko Zentroko arduradunak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Eguneko Zentroko hamabi erabiltzaileetatik hamaikak jaso dute Pfizer etxeko txertoa. Txertaketa azkarra eta erraza izan dela aitortu du zentroko arduradun Beatriz Guelbenzuk: "Erabiltzaileek oso pozik hartu dute txertoa; lasaitasuna ekarri digu. Hamabi erabiltzaile daude, baina batek ezin izan du etorri. Hala, ordezkoren zerrendan zegoen langileari jarri diote poteko azken txertoa". Gaineratu du bakarren batek besoko min pixka bat izan arren guztiak daudela ondo,

albo-kalterik gabe. Bigarren dosia hemendik hiru astera hartuko dute.

Ordezkoen zerrenda

"Erabiltzaileen eta langileen zerrendak Diputazioak ditu; adinaren arabera txerto ezberdina jarriko digute. Hala, 55 urtetik beherakoei AstraZeneca jarriko diete. Erreserba zerrenda ere badugu, eta, aipatu dudana bezala, langile batek jada hartu du txertoa. Gainontzekook, aldiz, oraindik ez dakigu noiz txertatuko gaituzten eta zein irizpide jarraituko duten".

GORA ETA BEHERA



Garbi jokatzeko eskatu du, beste behin, Udalak

Antzuolako Udalak berriro herritarrei eskatu die garbi jokatzeko. "Azken hilabeteotan, behin baino gehiagotan, eta askotariko ikuspegietatik, ingurua garbi mantendu beharraz hitz egiten da. Oraindik badugu, ordea, zer ikasi", adierazi du Antzuolako Udalak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



"Txinako azaloreak propietate asko ditu"

TOMAS LARRAÑAGA BASERRITARRA

Ohiko barazkiez gain, Tomas Larrañagak badu bere ortuan jatorri txinatarra duen barazkia ere; pixkanaka gure azoketan lekua egin, eta arrakasta ere baduela dio

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Pak choi deritzon azalore txinatarra, *kale* azalorea, *tirabeque* lekalea... Horiek guztiak azokatan ikusten eta saltzen hasiak dira. "Begetariano, begano nahiz krudiboroendako aproposak dira; haragiak dituen propietateak eskaintzen dituzte", kontatu du Tomas Larrañagak.

Ohiko barazkiez gain, bereziak direnak ere landatuta dituzu ortuan.

Denak modu ekologian ekoiztutakoak dira. Geroz eta barazkizale gehiago dago eta guk aukera ezberdinak ematen dizkiegu. Misuna (mostaza) gorria eta berdea, erremolatxa gorria, zilantroa (martorria), *pak choi* aza... zaporean aberatsak dira. **Jatorri txinatarra duen azalorea ere moda-modan jarri omen da.**

Globalizazioak ekarritako hainbat produktu aurki daitezke Japonia edo Txinakoak. *Pak choi*-a aza txinatarra da, modan jarri da eta gero eta gehiago ikusten eta saltzen da azoketan. Baita misuna (mostaza) gorria eta berdea ere; entsaladan dastatzen diren hainbat belar dira. Osasungarriak eta propietate handikoak.

Beganoen elikaduraren osagarri dira belar horiek?

Ez beganoena soilik; baita ere dena gordina jaten duten krudiboroendako zein begetaria-



Larrañaga, ortuan, eskuetan hainbat sustrai dituela. MAIDER ARREGI

"OSASUNTSU EGOTEKO, PATATA GUTXIAGO JATEA ETA SUSTRAIAK JATEA GOMENDATZEN DUT"

noendako. Haragiak dituen mineralak eta propietateak eskaintzen dituzte belar hauek. *Kale* izeneko aza hostoak, adibidez, badauka ezberdina den B bitamina; haragiak daukan berdina, hain zuzen.

Osasuntsu egoteko, sustraiak jatea gomendatzen duzu.

Bai. Patata alde batera utzi eta mineralak eta bitaminak beterriko sustraiak jatea: azenarioa, erremolatxa, arbi zuria eta mihi-lua, besteak beste.

Pandemiak nola eragin ditu?

Zure burua ondo elikatuta eta emozioak ondo landuta, arazoak saihestuko dituzu. Pandemian, azokara jende gehiago etorri dela sumatu dugu. Orain, egoera normaldu egin da. Ez dugu arazorik izan, azokak pandemia garaian irekita egon direlako.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. LANKU

Hilerokoa eta emakumeen masturbazioa, umoretik jasoak

'Luze edo motz' feminismoa eta euskara oinarri dituen antzezlanak ikusgai izango da bihar Torresorora aretoan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bakean dagoena bakean utzi emankizunaren haritik jarraituz, *Luze edo motz* ikuskizunean generoa hartuko dute umore gai, gizartea zertan den luze eta zertan geratzen den motz galde-tzeko Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak.

Horretarako, hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izango dituzte hizpide, besteak beste.

Kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak zirikatzen jarraitzeko bueltatu direla aitortu dute.

Feminismoa eta euskara dira Martiarena eta Torregarai umoristen ardatza.

Umorea serio eta plazerez hartzen dutela diote agertokian konplizitate handia erakusten duten bi emakumeek.

Aitortza

Arrakasta eta ikusleen aitortza jaso du jada *Luze edo motz* antzezlanak. Hala, antzularrek Torresorora aretoan izango dute ikuskizunaz gozatzeko aukera, bihar, zapatua, 18:00etan. Sarre-rak liburutegian eta online bidez eskuratu daitezke.



MIKEL OLABARRIA

Pentsiodunak, M8arekin bat

Astelehen eguerdian, pentsiodunek bat egin zuten emakumeen aldarrikapen eta borrokarekin. "Emakumeen Nazioarteko Egunean, herriko feministek ere gure aldarrikapenarekin bat egin nahi izan dute eta jendetza batu gara plazan; 135 lagun inguru", adierazi dute Antzuolako pentsiodunen eta erretiratuen elkarteko kideek.

Ilarren garaia iristear da

Lapatza baserriko berotegian ilar berdea loretan dago. Bizpahiru astean batzeko gertu egongo dira ilar aleak.

Lapatzan, baina, Mediterraneon oso ezaguna den lekalea landatzen dute: *tirabeque*-a. Ilarra eta leka batera daramatzan barazkia da. "Erraz prestatzen da *tirabeque*-a, eta zaporez oso fina da", dio Tomas Larrañagak.



Ilarrak, loretan, berotegian. M.A.

Txertatu dituzte Egunekeo Zentroko erabiltzaileak

Pfizer txertoaren lehenengo dosia jarri zieten sei erabiltzaileei eta txertoa jasotzeko geratu dira langileak. Zentroko arduradunak dio ez dutela albo-ondoriorik izan eta mugarrria izango dela; "pozik" daudela bai erabiltzaileak eta baita familiartekoak ere

Arantzazu Ezkibel Galdos ELGETA

Elgetako Egunekeo Zentroko erabiltzaileak martitzenean txertatu zituzten. Pfizer etxeko txertoa jaso zuten gaur egun egunekeo zentroa erabiltzen duten sei erabiltzaileek; txertatzeko geratu dira langileak.

Zazpi erabiltzaileendako tokia

Elgetako Egunekeo Zentroak zazpi lagunendako tokia dauka: gaur egun, sei erabiltzaile ditu; horietatik bi elgetarrak dira eta beste laurak, eibartarrak. Egunekeo Zentroko arduradun Beatriz Guelbenzuek azaldu du otsail erdialdean bidali zituztela zentroko erabiltzaileen datuak. Diptuzia: "Uste genuen guztiok txertatuko gintuztela, baina ez da horrela izan".

Pfizer etxeko txertoa jarri die nagusiei –adinari dagokionez ez du mugarik; izan ere, AztraZeneka 55 urtetik beherakoei ematen diete–, eta langileak ez txertatzeko arrazoia antolaketa izan da: "Pote bakoitzetik sei txerto ateratzen dituzte eta ez dute potea zabaltzen, ez badaude sei pertsona txertatzeko; AztraZenekarekin ere berdin: 10 lagunendako potetxoak direnez ez baldin badaude 10 pertsona, ez dira poteak zabaltzen". Multiplo hori gertatu ez zenez, langileak txertatu barik geratu ziren –zazpi langile dira, eta horietatik bi txertatuta daude, beste zentro bateko langileak ere badirelako–. Txertoa jaso dutenek ez dute arazorik, minik edo bestelakorik izan: "Dena ondo joan zen, inor ez zen kezatu. Normalean, Pfizerren txertoak ez du arazorik ematen; beharbada, bigarren dosian... Hiru aste barru jarriko diete bigarrena".

Txertoa, mugarrria

Beatriz Guelbenzuek dio Elgetako zentroan inork ez duela eragozpenik izan txertoa hartzeko.



Egunekeo zentroko bi erabiltzaile elgetarrak. EGUNEKEO ZENTROA



ERABILTZAILEEK HIRU ASTE BARRU JASOKO DUTE PFIZER ETXEKO BIGARREN DOSIA, ZENTROAN BERTAN

"Uste dut txertaketa mugarrria izango dela gure egunerokoan. Alde horretatik, oso pozik daude bai erabiltzaileak eta baita familiak ere. Lasaitasuna eman die txertaketak".

Azken urteko balorazioa

Azkeneko urtea berezia izan dela aitortu du Guelbenzuek; hala ere, urte osoan itxi beharrik ez dute izan, eta pozik dago pandemiaren inguruan egin duten lanarekin. Gaineratu du: "Zentro txikia denez, erabiltzaile gutxi dituen, antolaketa arazoak izatea ohikoa da gurea moduko zentro batean. Hori kontuan hartuta, pandemiak ez du eragin handirik izan gure egunerokoan, esango nuke izan dela gutxien sufritu duen zentroa. Funtzionatzen genuen, eta dugu, familia baten moduan. Uste dut daukagun kasuistatik gu-

txien sufritu dugula pandemia-egokitzerakoan". Garraiorako txandak, jangelarako txandak, ordutegi bereziak... ez dute horrelakorik egin behar izan, sei erabiltzaile basterik ez dutelako. "Alde horretatik, aldaketa handirik ez egin izatea ere onuragarria da erabiltzaileendako", dio arduradunak. Hala ere, pandemiak berak eskatzen dituen segurtasun arauak zorrotz bete dituzte: irteerak eta sarre-arak kontrolatu, higieena... "Egia da, orain, ariketa indibidualak gehiago egiten ditugula, eta ez horrenbeste taldeko ariketak", dio. Gainera, familien lana nabarmendu du: "Etxean PCR probaren bat izan dutenean, emaitza jakin arte ez dituzte zentrori ekarri". Hori horrela, itxierarik ez izateak asko lagundu duela dio; izan ere, bai psikologikoki eta baita zentroko antolaketan ere lagungarria izan da: "Trastorno kognitiboak dituzten nagusiengan asko igartzen da itxiera bat". Elgetako zentroan bi pertsonak pasa dute COVID-19 gaixotasuna, eta ondo daude, zentroan berriro ere. Orain arte moduan jarraitzea da Guelbenzuek nahia.



Herritar bat hondakinak edukiontzi horira botatzen. L.Z.L.

Poliki bada ere, txarrera doaz gaikako bilketa datuak Elgetan

Errefusera botatzen direnen artean bada zer hobetu, eta baita ere plastikoen frakzioan zein frakzio organikoen

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Urte hasieran argitaratu ditu Mankomunitateak 2020ko herriz herriko bilketa datuak. Elgetaren kasuan, aurretik ere atzemandako beheranzko joera baieztatu egin da; izan ere, lau urteotan sei puntu egin du behera gaikako bilketak. Horri gehitu behar zaio inpropio kopuru esanguratsua agertzen dela oraindik ere organikoaren edukiontzi marroian, ontzi arinen edukiontzi horian eta, batez ere, errefusaren edukiontzi gisean.

Akats nagusiak

Mankomunitateak duela gutxi egin du hondakinen karakterizazioa herrikoa. Datu horien arabera, frakzio organikoaren %3,88 inpropioak dira. Zabor-poltsak (%2,30), pixoihalak, konpresak, tanpoiak zein muziapiak (%1,19) daude bertan.

Edukiontzi horira botatako %30,05 ere inpropioak dira: edukiontzi ez diren plastikoak (%5,39), ehunkiak (%5,04), pixoihalak, konpresak zein muziapiak (%4,96), film komertzial-industrialak (%3,44) eta materia organikoa (%2,48) aurkitu dituzte. Azkenik, errefusaren edukiontzira botatako %73,54 inpropioa da, eta datu kezagarria da hori. Aurkitu dira ontzi arinak (%7,05), materia organikoa (%6,14) eta bestelakoak (%60,36). Bestelakoetan sartzen dira, esaterako, ehunkiak, lurra eta obra hondakinak, fluoreszenteak...

"Ahalegintzea dagokigu"



IBAI LARRAÑAGA
ZINEGOTZIA

"Erlaxatzen joan gara Elgetan eta garbi ikusten da badagoela hobetzeko tarte. Bailarako herri guztietan joera antzerakoa da eta herritar guztiok dagokigu ahalegina egiten jarraitzea. Egia da azkenekoak garela kontsumo katean eta badaudela katean beste maila bateko ardurak ere, baina gure esku dagoena egitea dagokigu".

Bilketa datuak

2014	%43,65
2015	%77,56
2016	%81,20
2017	%79,74
2018	%75,60
2019	%75,77
2020	%75,43

ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Danon artian Elgeta 2030 parte hartze prozesuaren bigarren herri batzarra, aurreko egunean. L.Z.L.

Iraganera barik, aurrera begira jartzeko unea

Hilaren 4an egin zuten, Espaloian, 'Danon artian Elgeta 2030' parte hartze prozesuaren bigarren batzar irekia. Aurreko saioan identifikatutako erronkei aurre egiteko proposamen zehatzak lotu, eta idatziz jasotzeko unea izan zen

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Bigarren herri batzarrean ere 24 herritar elkartu ziren, eta Amaia Zarrabeitiaren eta Idurre Zuazagastiren gidaritzapean egin zuten lan-saioa.

Lehen saioko egitekoa izan zen inkesta bidez jasotako erantzunak eta proposamenak aztertzea, eta horien arabera erro-

kak identifikatzea. Hala, bigarren saioko egitekoa izan zen erronka horiei aurre egiteko proposamen zehatzagoak egitea eta baliabideak, lankidetzak zein eredu inspiratzaileak identifikatzea. Nork bere gustuko alorra aukeratu, eta tamaina txikiko sei taldetan egin zuten gogoeta bertaratutakoek.

Kirola eta aisialdia

Kiroldegia zaharkituta dagoela eta eremu horretarako kirol jardura handia dagoela nabarmendu zuten batzarrean. Proposamen artean irten ziren gaztetxea berritzea bi gela berri lortzeko eta kiroldegia beste solairu bat egitea. Ondo baloratu beharreko gaia izanik gaur

egungo kiroldegian oinarritzea akatsa izan daitekeela ere aipatu zuten; izan ere, duela 40-50 premietatik eraikitako kiroldegia da.

Kirol eskaintza egokitzeko eta modernizatzeko premia ere ikusten zuten bertaratutako herritarrek. Premien inguruko kontsulta egitea proposatu zuten, eta alor horretan aipamen berezia egin zioten nagusien aktibazioari.

Herriak natura-eremu oso zabala izanik kanpoko jarduerak bultzatzea premiazko zat jo zuten, eta proposatu zuten mendizaletasuna bere modalitate guztietan bultzatzea, PR edo GR markak osatzea, eta bidegorriak egiteko aukerak lantzea. Asentzio natura-gune izateko lanke-ta egiteko beharra ere ondorioztatu zuten, eta autoak, parrilak eta suak aipatu.

Kultura erronkak

Antzokia izanik inkestetan txar-toen baloratutako elementuetako bat, gaiaren inguruan gogoeta egiteko elkartutako herritarrek azpimarratu zuten kontinentea badagoela baina edukia dela indartu beharrekoa.

Iraganeko eredu atzean utzi eta etorkizunari begirako zerbait eraikitzearen alde agertu ziren, eta horrelako erabakiak hartzeko hausnarketa prozesu bat antolatzea ez zuten okertzat eman. Hain zuzen ere, adierazi zuten erabakitze dagoela

Elgetak kulturalki zertan inbertitu nahi duen.

Antzokia sorkuntzarekin lotzeko aukeraz egin zuten berba: herritarrek erabiltzeko, Euskal Herriko taldeek entseguak egiteko... Intxortarekin eta Mendi Federazioarekin lotzeko aukera ere aipatu zuten. Eta hori guztia, euskara zein komunitatea ardatz hartuta. Ikuspegi zabaletik pentsatzeko gaia dela baloratu zuten, eta inguruko herriak kontuan hartuta egin beharreko gogoeta.

Bestelako alorrak

Enplegua, osasuna eta herri identitatea ere landu zituzten batzarrean. Askotariko proposamenak irten ziren alor horietan ere, baina hurrengo artikuluan batean lantzeko geldituko dira, oraingoz.

Elhuyarrek, orain, txostena aurkeztuko dio Elgetako Udalari, *Danon artian Elgeta 2030* partaidetza prozesuak emandakoarekin. Gogoeta horretan irtendakoak oinarri hartuta landuko ditu Udalak aurrera begirako lan-lerro nagusiak eta idatziko du hurrengo plan estrategikoa.

TAMAINA TXIKIKO SEI TALDETAN BANATUTA EGIN ZUTEN GOGOETA BERTARATUTAKO 24 HERRITARREK

"Egungo gizarte ereduaren energia maskulino gehiegi dago"

CARLOTA ALFARO IDAZLEA

'Mujer salvaje' hitzaldia egin zuen liburutegian

A.E. ELGETA

Carlota Alfaro donostiarrak energia femeninoen eta maskulinoen gainean jardun zuen Elgetako hitzaldian.

Nolako erantzuna izan du hitzaldiak?

Oso ondo egon da; liburutegiko edukiera bete egin da, 15 bat lagunekin. Jendeari kosta egin zaien parte hartzea; animatu direnerako, denbora agortu zaigu.

Zer esan nahi duzu, zehazki, *mujer salvaje* diozunean?

Termino hori *Mujeres que corren con los lobos* liburuan irakur daiteke. Emakumearen indarrak

dihardu; kondaira zaharrekin konektatu eta barruan dugun sena, sortzailea eta jakituria ateratzea da. Orain dela 10.000 bat urteko Europan ez zegoen sistema patriarkaturik; esaten da sistema matristikoa zela; hau da, emakumeak eta gizonezkoak baldintza berekoak zirela. Gizarte horien ezaugarriak ziren: biolentziarik eza, berdintasuna, errespetua, abegikoak izatea... Garrantzitsua zen nondik zetozen eta nor zinen, eta ez zer zenuen, patriarkatuan gertatzen denaren alderantziz.



Carlota Alfaro. LARRAITX ZEBERIO

Zergatik da garrantzitsua energia maskulinoen eta femeninoen oreka?

Jendearengan zalantzak sortzen dituen gaia da, baina ez dago dudarik aurkako poloez osatuta gaudela. Energia femeninoak dira enpatia, anaitasuna, elkar-

tasuna, intuizioari kasu egitea... eta energia maskulinoak, aldiz, akzioa, indarra, helburuak lortzea. Gaur egun, zigortuta dade energia femenino handia duten gizonezkoak; eta, aldiz, emakumeek arrakasta lortuko dute energia maskulino handia izanez gero.

Diozu benetako berdintasuna lortu nahi bada bestelako gizarte eredu bat eraiki behar dela.

Bai; egungo gizarte ereduaren energia maskulino gehiegi dago. Horren eredu garbia da gaur egun GKEetan lanean dabilen emakume kopurua handia. Orain dela urte asko izan genuen matristika eredu bat sortzen baldin badugu, jakina garaia aldatuko direla eta ez dela berdina izango, garrantzia hartuko du zu nor zaren eta nondik zatozen, eta ez zer duzun.

OHARRAK

Ipuin kontaketa

Ipuinak HH-3 eta HH-4 mailetako neska-mutikoei zuzendutakoak izango dira. Udal liburutegiak antolatuta izango den arren, boluntario taldeko kideetako bat arituko da. Parte hartu nahi duenak aurrez eman beharko du izena. Gaur, barikua, izango da, 17:20tik 18:00etara bitartean.

Podologo zerbitzua

Martxoaren 15ean, astelehena, kultura etxean, 15:00etatik aurrera. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea, 652 74 82 33 telefono zenbakira deituta. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatzen du, hilero.

Aste Santurako lo-toki eta bisita asko, hartuta

Herriko hainbat ostatuan dagoeneko ez dute ia tokirik Aste Santuko egunetarako eta Turismo Bulegoan eta Arrikrutz kobetan ere dei asko ari dira jasotzen informazio eske eta bisitak lotzeko. Turismoaren plan estrategikoaren bigarren fasea ere hasi da

Oihana Elortza OÑATI

Jendeak badu irteteko gogoia, eta hori ondo igarri dute Oñatiko ostatuetan, Turismo Bulegoan eta Arrikrutz kobetan. Itxiera perimetrala EAera zabaldu zutenetik telefono dei asko izan dituzte herriko turismo zerbitzuetan, eta erreserba asko egin dira dagoeneko.

Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak

Turismo Bulegoan eta Arrikrutz kobetan, esaterako, dei asko izan dituzte informazioa eskatzeko, eta hainbat erreserba ere lotu dituzte. Herriko ondarea zein kobak ikusteko txanda asko hartuta daude.

Gauza bera ari da gertatzen herriko ostatuetan ere. Zumeltzei dorrean, esaterako, ez dute tokirik hurrengo hiru asteburuetarako, otsailaren 19ko aste-buru luzea barne. "Ikaragarria izan da. Mugak zabaldu eta gutxira hasi zen jendea deitzen eta tokia hartzen. Datozen hiru



Uztalean Oñatiko unibertsitatea bisitatzera etorri zen turista talde bat. O.E.

asteburuetarako beteta ditugu logela guztiak eta baita Aste Santurako ere. Pazko asterako ere ari gara deiak jasotzen. Ikusten da jendeak ateratzeko gogoia duela", dio, pozik, Edurne Gorostidik.

Arantzazuko Goiko Bentan ere hartuta dituzte logela gehienak dagoeneko. "Urteetan bezero berdinak hartzen ditugu Aste Santuan, eta aurten ere horiek izango dute lehentasuna, baina dei asko izan ditugu, eta ari gara

denei zerbitzua eskaintzeko lanean, bai. Aste Santurako ez ezik, datozen asteburuetarako ere baditugu erreserbak eginda, eta pozik gaude, bai. Aste barruan ere nabaritu dugu jendea ateratzeko gogoz dagoela, kanpoan dezentetik ikusi ditugu, eta paseoan Arantzazun egun hauetan. Baita, gainera, autokarabana edo furgonetekin ere jendea etortzea datozen asteburuetan ere; eguraldi ona egiten badu, behintzat. Igarri dugu mugimendua, bai; ona da hori", dio bertako Ana Maiztegik.

Erreserba eginda duten bezeroen artean, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak dira ia denak. Arabar gutxi etortzen da Oñatira, eta Aste Santuan ere berdina gertatuko dela dirudi.

Ekintza plana zehazten hasita

Pisu nabarmena du turismoak Oñatin, eta datozen urteetarako plan estrategikoa martxan du Udalak. Sektorearen diagnostikoa egin zuen joan den urtean Lurdes Romano oñatiarra buru den Beinke enpresarekin batera, eta arlo horren indarguneak eta ahultasunak identifikatu zituzten. Orain, ekintza plana definitzen hasi dira.

Joan den astean egin zuten bigarren fase horren aurkezpena. Alde batetik, topaketak eta elkarrizketak izango dira eta sektorearen garapenean eragiten duten eragile publiko eta pribatuak kontuan hartuko dituzte:

Udala, ostatuak, jatetxeak, enpresak eta zerbitzu desberdinetako profesionalak, adibidez. Bestetik, Oñatiren azken urteetako bilakaerak eta etorkizuneko ikuspegiak aztertuko dira herritarren partaidetzarekin.

Helburu horrekin, udalerriko turismo plan operatiboa eta errealista egin gura dute, adostua eta partekatua, beharrezkotzat jotzen diren beste administrazioak inplikatu eta Oñatiko turismo garapen jasangarrira egokituta. Hain zuzen, joan den astean hasi ziren sektoreko ordezkariekin lanean. Lehen landinamika eraman zuten aurrera, eta diagnostikoa definitutako 64 puntuen bueltan jardun zuten, lehentasunak zehazteko. Oñatik dituen ezaugarri eta aukeren arabera, ahalik eta orekatuena den egitura turistikoa bultzatzea izango da helburua.

Udara arte iraungo du estrategia faseak, orduan markatuko da, eta lehentasunen arabera sailkatutako ekintzak aztertuko dituzte gero, zeini garrantzi handiagoa eman eta zer lantzen erabakitzeke. Aurten jarriko dute martxan denen artean erabakitako lehen ekintza.

SEKTOREAREN LEHENTASUNAK AZTERTUKO DITUZTE ETA LEHEN EKINTZA MARTXAN JARRIKO

200.000 euro pasa gizarte larrialdietako dirulaguntzetara

laz, 2019an baino %29 gehiago izan ziren laguntza eskatu zutenak, eta aurten, diru gehiago bideratu dute

O.E. OÑATI

Guztira, 205.400 euro bideratuko ditu Oñatiko Udalak gizarte larrialdietako dirulaguntzetara, iaz baino gehiago. "Azken urte honetan egoera zaurgarrian dauden egoera are latzagoa izan da, eta, kasu batzuetan, orain arte laguntza hauek eskatu ez dituzten herritar edo familiak eskatu behar izan dute dirulaguntza", dio Ongizateko batzordeburu Susana Altunak. Hain zuzen ere, iaz, kasuen %29 espediente berriak izan ziren 2019arekiko. Datuekin azalduz,

2020an 93 familiak jaso zituzten laguntzak eta 2019an, 74k.

Joan den urteko eskaeren %60 emakumeek eginak ziren; urteik urtera gora doa kopuru hori. Hauxe dio Altunak: "Datu positibotzat har dezakegu, gizarte-langileek hainbat egoeratan emakumeak ahaldundutzea eta zerbitzura gerturatzaren direnak emakumeak izan daitezen lan-keta egiten saiatzen direlako".

Dirulaguntza horren eskaera epea zabalik dago dagoeneko. Ongizate bulegoetara joan daiteke informazioa eskatzera.

OHARRAK

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, da martxoko odol ateratzea, ohiko ordu eta tokian. Odola eman gura duenak 943 00 78 84 deitu dezake txanda hartzeko.

Hotz Oñatiren azoka

Bihar jarriko du Hotz Oñatik hileko azoka txikia, plazan. Eskuz egindako produktuak egongo dira salgai eta hiru sortaren zozketa egingo dute.

Ezkiztan da landaketa

Ingurumen Jardunaldien barruan, Aloñako zuhaitz landaketa Ezkiztan egingo dute domekan, Aloñako Lagunak taldekoekin batera. Fernando Maiztegiren tailerrean eman daiteke izena.

GORA ETA BEHERA



Konpondu beharra duen kalea

Euskadi etorbideko zoladura "penagarri" dagoela esanez bidali du argazki hau GOIENARA herritar batek. Egunean zehar ibilgailu dezentetik pasatzen dira erdiguneko kale horretatik, eta zoladuran zuloak daudela dio; konpondu beharra dagoela uste du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



"Zentzuz jokatu behar da mendira joaten garenean"

PATRI ESPINAR MENDI ORIENTAZIO IRAKASLEA

Jabetze Eskolaren barruan arrakasta izaten duen ikastaroetako bat izaten da mendi orientazioarena; aurten ere taldea osatu da eta Patri Espinar da, beste behin, irakasle

O. Elortza / M. Bikuña OÑATI

Oñatiko Jabekuntza Eskolaren baitan mendi orientazioari buruzko ikastaroa ematen dihardu Espinarrek. Mendira joateko orduan kontuan hartu beharreko jardun du Araotzen, *Uraren bidea*-n zehar.

Beharrezkoa da orientazioari buruzko oinarritzko ezagutza mendira joateko?

Lagungarria da oso, hori bai. Orain, esaterako, jende asko hasi da mendira joaten, batzuk formakuntzarik gabe, eta istripu batzuk ere gertatu dira, nekearen edo orientazio faltaren eraginez, adibidez. Gabonetan, esaterako, elurra egin zuenean, jende ugari joan zen mendira, baina asko, orientazioari buruzko oinarritzko ezagutza ezagutu barik, eta horrek erreskateko profesionalen laguntza behar izatea ekar dezake.

Zer da, hortaz, ezinbestekoa?

Zentzuz jokatzeari. Eta hor sartzen da: nora zoazen jakitea, inguruak ezagutzen dituzun ikustea, prest zaudela ziurtatzea, eguraldia kontsultatzea, terrenoa edo ingurua begiratzea eta orientazioa gutxienezko ezagutza izatea.

Nondik hasi, orduan?

Diziplina asko ditugu mendiko kirolen barruan eta horietako bat praktikatzeko beharrezkoa da orientazioa, behintzat, naturak berak eskaintzen diguna, hau da: eguzkia nondik aterata eta sartzen den eta puntu kardinalak non dauden. Mapak irakurtzen ere jakin behar da, desnibelak nolakoak diren eta bideak dauden edo ez, esaterako. Hori jakinda, bizikletarekin edo oinez joan zaitezke, eta eskalada, haitz jaitsierak edo zehar-kako eskia egitera joaten bazara, bestelako ezagutzak ere behar dira; materialarena, esaterako. Formakuntza handiagoa behar du gure kirol horietarako.

**Zer erakusten duzu ikastaro haue-
tan?**



Patri Espinar mendi gidaria, Araotzen. IMANOL SORIANO

"NATURA ETA MAPAK IRAKURTZEN ETA IPARRORRATZA ERABILTZEN JAKITEA GARRANTZITSUA DA"

Batetik, naturari begira orientatzen ikasten dugu. Bestetik, iparrorratza erabiltzen jakiten eta mapak irakurtzen. Eta, noski, bi elementu horiek elkarrekin nola erabili.

GPSa, telefono mugikorra... Egun, badaude hori egiten duten gailuak.

Bai, baina nire ustez, lehen aipatutako ezagutzak dira orientazioarenak, ez gailu horiek. Bateria gabe geldituz gero, galduta gaude eta egoera zailean amaitu dezakegu. Benetan garrantzitsua dena da natura, terrenoa eta mapak irakurtzen eta iparrorratza erabiltzen jakitea. Oinarritzkoa da hori, nire ustez, eta ikastaro hauetan saiatzen naiz emakumei hiru arlo horiek erakusten.

Formakuntzaz gain, esperientziak ere lagunduko du, ezta?

Bai. Esperientziak asko balio du, eta horren bidez ikasten da.

Noiz eta nola hasi zinen honelako ikastaroak ematen?

Mendi ertaineko gidari hasi nintzen lanean herri ezberdinetako jabetze eskola edo berdintasun sailetan. Bizitokian, Hernanin, hasi nintzen, eta toki gehiagotara iritsi naiz gero. Oñatin, eskaladako hastapenak erakusten hasi nintzen, eta, haren ostean, mendi orientazioaren ikastaroak eta eskaladaren beste batzuk ere egin ditut.

Pilotaria ere bazara. Zer moduzkoak izan dira azken hilabeteak zuretzat?

Oso urte zaila ari da izaten guztiondako, baina emakumeen pilotan ez da erraza izaten ari, ez. Eskupilotan, pare bat txapelketa baino ez dira aurrera aterata, eta pribilegio moduan hartu behar dugu; pala, esaterako, geldi dago. Oso zaila da motibazioa mantentzea, entrenamenduetara joatea, jakinda txapelketa ofizialak bertan behar gelditu direla. Hala ere, saiatu naiz astero frontoira joaten, eskuak errekupeperatzeko eta indartzeko, eta fisikoa lantzen ere banabil, mendira joanez korrika egitera. Baina uste dut emakume pilotariok momentu kritikoa gaudela.

Ponentziari buruzko herri batzarra egingo du bihar EH Bilduk

Oñatiko EH Bilduk herri batzar telematikoa egingo du bihar, zapatua, martxoak 13. Alderdia egiten ari den II. Kongresuaren harira antolatutako herri batzarra da eta ponentzia politikoaren eta antolatzailearen aurkezpena eta eztabaida izango dira batzar horretako gai nagusiak. Unai Urruzuno izango da gonbidatua, eta berarekin batera egingo dute azterketa.

Batzarra 10:00etan hasiko da eta online, telematikoa, izango da; hona hemen batzarrerara konektatzeko esteka: <https://bbb.ehbildu.eus/b/igo-tfn-3f3>. EH Bilgunean ere eskatu daiteke kongresuaren gaineko informazioa eta ekarpenak egin.

Desfibriladoreak nola erabili erakusteko saioa egingo dute

Desfibriladoreak nola erabili erakusteko dute datorren astean, herritarrei zuzendutako saio batean. Lehen sorospenetan adi-tuak diren hiru oñatiarrek egingo dute erakustaldia: Gema Bikuña, Larraitx Legorburuk eta Ixiar Usandizagak. Beharra dagoenean herrian dauden bost desfibriladore publiko eta automatikoak zelan hartu, ireki eta erabili azalduko dute, erakustaldiak zuzenean eginda. Saioa irekia izango da eta jendearen zalantzak eta galderak ere erantzungo dituzte.

Erakustaldi hori datorren astean izango da, eguaztenean, martxoak 17, Santa Ana aretoan, 18:30ean.

Izena aldatu du institutuak

Zuazola-Larraña Oñati Bigarren Hezkuntzako Institutu Publikoa izango da hemendik aurrera. Eraikin bakoitzak bere izena mantenduko du, baina, kanpora begira, izen berri hori erabiliko dute. Aurreko izenarekin kokapenarekin eta identifikazioarekin endredoak sortzen zirelako aldatu dute institutu publikoaren izena.



ZUAZOLA INSTITUTUA



NIRE USTEZ

CAROL PALACIO

Neoliberalismoa eta pandemia

Egungo erregimen neoliberalak norbanakoarekiko menderatze mekanismoak aplikatzeaz arduratzen da, norbanakoaren jarrera eta ekintzak askeak balira bezala interpretaraziz. Une oro geure burua hobetu nahian bizi gara, eta norbanakoaren esfortzu hauek bat datoz sistemaren optimizazioarekin. Jarrera honek, ordea, autosuntsiketara garamatza, inoiz ez baikara asetzen. Sistemak geroz eta emankorrago izatera behartzen gaitu etengabe, eta, ondorioz, inoiz ez dugu behin betiko helburu bat lortzearen sentsazioarik; gabezia eta erru sentimenduz bizitzera kondenatuta baikaude. Ondorioz, porrotaren ardura guztia nork bere gain hartzen dugu, sistema dudari jarri beharrean. Pandemiaren ondorioz bizi ditugun ezjakintasun eta inpotentzia garai hauetan, arriskua ez da norbanakook bizitza sozialean eta politikoan parte hartzeari uko egitea soilik. Gure arazoak norberaren esfortzu pertsonalekin edota erresilientzia gaitasunarekin besterik konponduko ez dela sinisten dugun bitartean, oso zaila izango zaigu modu kolektiboan borrokatzea eta aldaketa sozialak lortzea.

Dantzarien jantziak daude ikusgai kultura etxean

Oñatz Dantza taldearen 50. urteurrenaren baitan, dantzarien jantziak izango dira martxoko protagonista, eta, horri lotuta, erakusketa jarri dute kultura etxean, eta baita herriko zenbait komertziotan ere; bestetik, hilaren 16rako hitzaldia antolatu dute

Maialen Santos OÑATI

Koronabirusaren pandemia iristeaz bat, bertan behera geratu ziren iaz Oñatz dantza taldearen 50. urteurrenako ospakizunak. Urtebete geroago, ekintza batzuk antolatzeari ekin diote berriro, eta martxorako egitarau zabala prestatu dute.

Dantzarien jantzien bueltan

Jantziak izango dira hilabete honetako protagonista, eta, hain zuzen, horiei buruz berbetan arituko da Ramon Garcia, dantzetako jantzieta aditua, martxoaren 16an 18:30ean kultura etxean egingo duen hitzaldian —ez da sarrerarik beharko—.

Horretaz gain, astelehenaz geroztik ikusgai dago Oñatzek kultura etxeko beheko solairuan jarritako erakusketa, eta hilaren 26ra arte izango da bisitatzeko aukera, asteen zehar, 18:00etatik 20:00etara. Dantza taldeko kide Jon Irizarrek azaldu duenez, berrogei jantzi bildu dituzte,



Oñatz dantza taldeak kultura etxean jarritako erakusketako jantzi batzuk. OÑATZ

orotara, eta baita dantzarako materiala ere: "Euskal Herriko dantza talde ezberdinetako 30 jantzi utzi dizkigu Ramon Garcia, eta gainontzeko hamarrak dira Oñatzen jabetzakoak. Arkuak, ezpatak edota otzarak ere

badaude, besteak beste". Zehaztu du dantzari moduan erabiltzen dituzten arropak direla, eta horietan "inbertsio handia" egin dutela urteetan zehar. Hori bakarrik ez, jantziak "eguneratzen" ere joan izan direla azaldu du

Irizarrek, eta dio taldearen "ondararik garrantzitsuenak" direla gaur egun.

Hala, dantza espezifikoa eta tradizional askoren bereizgarri diren jantziak daude erakusketan: besteak beste, Inauterietan egiten dituzten Luzaideko dantzetako jantziak, Jaurrietakoak, zein Bizkaiko eta Gipuzkoako propioak direnak.

Ospakizunei, jarraipena

2020ko hilabete bakoitzean gai bana jorratzeko asmoa zuen

Oñatz dantza taldeak, eta, bi hilabetetako egitaraua bete ostean, bertan behera utzi behar izan zuten gainontzekoa. Hori horrela, hilabetero ekintzak antolatzeari ekin gura diote berriro, hemendik eta irailera bitartean, egoeraren eboluzioa "hilabetez hilabete" aztertzen joango diren arren. Datozen hilabeteetan jorratu gura dituzte honako hauek, besteak beste: kanpoko dantza taldeen emandalak, musika eta Oñatz dantza taldearen emanaldia.

Dendetako erakusleihenotan ere bai

Kultura etxeko erakusketa gelan ez ezik, herriko komertzioetako erakusleihenotan ere ikusgai jarri dituzte Oñatzi lotutakoak.

Gehienetan, dantzarako erabiltzen duten materiala ikus daiteke, eta material hori dantzarekin nola uztartzen duten erakusten duen argazkia ere jarri dute, gainera. Leku handiagoa eskaini dioten dendetan jantziak ere jarri dituztela azaldu du Irizarrek.

"Erakusleihenotako dantza zehatz baten itxura eman gura izan diogu", zehaztu du. Era horretan, jende gehiagorengana iritsi gura izan dutela aitortu du, eta dantza harago jantziek duten balio materialean jarri gura izan dute azpimarra. "Herriko komertzio askotan onartu dute erakusleihenotan Oñatz Dantza taldeari lotutako atala jartzea, eta, ildo horretatik, taldetik eskerrak eman gura dizkiegu euren prestutasuna erakutsi duten dendariei", esan du.



Jantzi bat, Luar dendan.

Oñatiko Inguma taldea bihar estreinatuko da agertokian

Antixeneko gaztetxean izango dira, 17:00etan hasita, eta Bergarako Barne Guda taldea izango dute lagun

M.S. OÑATI

Duela urte eta erdi inguru sortu zuten Inguma taldea Oñatiko lau gaztek: Ibon Perez (abeslaria), Alex Markuleta (baxu-jolea), Xabier Albistegi (bateria-jolea) eta Beñat Leturiaga (gitarra-jolea). Osasun krisiaren eraginez, ezin izan dute kontzerturik eskaini, eta lehenbiziko aldiz bihar, zapatua, igoko dira agertokira.

Zazpi kantu propio

Emanaldirik eza aprobetxatu dute gazteek lanean jarraitzeko, eta entseguak egiten aritu dira

azken hilabeteetan. Hala, denbora horretan zazpi kanta propio sortu dituztela azaldu du Beñat Leturiaga taldeko kideak: "Hain zuzen, horiek dira oholtzara eramango ditugunak, eta baita landuta ditugun bost kantaren bertsiok ere". Oi! musika estiloa dute ardatz eta euskaraz abesten dute. Abestien ezaugarriak buruz galdetuta, azaldu du historiko-politikoak direla horietako batzuk: "Hiruzpalau abestitan egin dugu Nafarroako historian atzera; erreferentzia asko egin dizkiogu".



Ezkerretik eskuinera, Markuleta, Albistegi, Perez eta Leturiaga. JONE MARKULETA

Leturiagak aitortu du "gogo handia" dutela herritarrei "taldea aurkeztu" eta eskaintzeko duten guztia "erakusteko".

Kontzertu bikoitza izango da Antixeneko gaztetxekoa; izan ere, talde oñatiarraz gain, Ber-

garako Barne Guda taldea ere igoko da agertokira.

17:00etan hasiko dira kontzertuak, baina aurrez, 16:30ean eskuratu ahal izango dira horietarako sarrerak, gaztetxean bertan, hiru euroren truke.

Martitzena ezker, martxan da berriro eskola-kirola

Osasun Sailaren semaforoaren sistemaren arabera, eremu gorritik laranja pasa zen martitzenean Oñati, eta eskola-kirola martxan jarri ahal izatea ekarri du horrek. Baita kirol-eskola ere. Hala, eta etena gehiago ez luzatzeko, martitzenean bertan hasi dira gaztetxoak eskola-kirola egiten, bakoitza lehengo talde, toki eta orduetan. Pilotakoak eta orientaziokoak izan dira eskola-kirolari berrekiten lehenak, eta atzo hasi ziren eskubalo-jokalariak, txirrindulariak, saskibalo-jokalariak eta gimnastak. Gaur, karatekoak, eta datorren astean, igerilariak, futbol eta tenis jokalariek eta atletismoan ari direnak.



DEBAGOIENeko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Irilabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe

943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA -

NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3

943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.

943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g

943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

Xabier Urzelai ARRASATE

Martin Perezek (Eskoriatza, 23 urte) elite mailako gainontzeko kirolariek bezala igarri zuen saskibaloiaren hutsunea etxeratze agindua indarrean egon zen bitartean. Baina ekainerako, entrenamendu saioetan zen osterera ere, eta urrian normal hasi zuten liga txapelketa. Azken urteotan moduan, maila gore-nari eusteko lehiak dago Gas-teizko Zuzenak taldea, eta Ma-drilgo Las Rozas taldeari eta Vigori irabazi izanak arnasa eman die. Kantxan, berriz, bes-teei baino gehiago kostatzen zaie hauspoa errekuaratzeko, maskararekin jokatzeko erabaki dute eta.

Zer moduz doa urtea?

Ba, arraro; imajinatzen dut gainontzekoendako moduan. Dagoeneko urtebete pasa dugu pandemia egoeran eta oraindik gogoan dut iaz mailari eusteko borrokan genbiltzala zelan geratu ginen gehiago jokatu barik. Kategoriak bere horretan utzi zituzten, inor ez zen mailaz jait-si, eta ekainerako entrenatzen ginen osterera ere. Baina saski-baloian hutsunea igarri egin nuen, bai.

Gainera, saskibaloia pasioz bizi-tzearekin batera kirol jarduerak egitea lagungarri da sasoi onean mantentzeko. Eta aulki gurgildunak ibilita, hori ezinbesteko izango da.

Bai, baina hori entrenatzaileak bidalitako ariketekin konpondu genuen. Egia da Zuzenak Fundazioak baduela errehabilitazioa bideratutako arloa, eta egia da duela urte asko ni ere horregatik hasi nintzela saski-baloian jokatzeko, baina gaur egun gure fokua lehiaketan dago, maila goreneko saskibaloian. Hala, nik konfinamenduan horixe igarri dut faltan, saski-baloian jokatzeko.

Lehenagoetakoak izan zirenean osterera ere txapelketetan modu ofizialean esku hartzen.

Bai; lehen aurreratu dudanez, ekainean entrenatzen hasi ginen, osterera ere baloiarekin kontaktua izaten... Ondoren, abuztuko atsedendia izan genuen, baina urrian normal hasi genuen liga. Eta ez genuen etenaldirik izan, azaroan zazpi taldekidek positibo eman genuen arte. Ordura arte, maskara barik ibili ginen jokatzeko. Hamabost egunean behin proba serologikoak egiten dizkigute, kanpoan jokatu behar dugun bakoitzean, baina kantxan

"Positiboan ostan, maskararekin jokatzeko erabaki genuen"

MARTIN PEREZ ZUZENAK TALDEKO KAPITAINA

SASKIBALOIA Espainiako aulki gurgilduneko maila gorenean jokatzeko du eskoriatzarrak; azaroan zazpi taldekidek positibo eman eta gero, neurriak zorroztu zituzte

Federazioak ez zigun maskararekin jokatzeko derrigortasunik ezarri, eta azarora arte horrela ibili ginen.

Positiboan ondoren, neurri zorroztagoak hartu zenituzten.

Bai, hala da. Taldekide batek positibo eman zuen lehenengo, eta, badaezpada, gainontzeko testak egin zizkiguten. Eta hor antzeman zituzten beste sei positibo. Egia esan, nik konturatu barik pasa nuen koronabirusa; akaso, goizean apur bat nekatuago ibili nintzen egun haietan, baina horraino. Eta, ordutik, bi talde gaude maskararekin jokatzeko dugunak, beste kasu batzuk ere egon direlako beste talde batzuetan.

Zer moduz moldatzen zarete maskararekin kantxan?

Ni dagoeneko ohitu naiz. Egia da bizkarrezurrean daukadan lesioagatik beste pertsona batek baino izerdi gutxiago egiten dudala, kosta egiten zait izerdia botatzeko. Eta, maskararekin jokatzeko, gorputzeko tenperatura gehiago igotzen zait. Baina ohitu naiz.

Espainia osoan ibiltzen zarete aurrera eta atzera partiduetan jokatzeko. Hor koronabirusak ere eragin zuena izango zuen...

Normalean, bidaiak autobusez egiten ditugu, Galiziara, aurre-

"MAILARI EUSTEKO BORROKAN ARI GARA; TALDE GEHIAGO DAUDE AURTEN, BAINA LEHIA ESTUA DUGU"



Martin Perez Zuzenak taldeko partidua batean, aurtengo denboraldian. JULIO ROCA / ZUZENAK

koan Malagan izan ginen... Bide batez, luzapenean egindako saskiratze batengatik galdu genuen partidua, zelako pena! Eta hegazkina hartzen dugun momentu bakarra da Tenerifera joateko. Bada, hegaldiekin arazo dezente izan dira, bertan behera utzi izan dituzte, partiduetan horren arabera antolatu izan dituzte... Han jokatu genuenean, uste dut partidua bukatu eta korrika batean joan behar izan genuela aireportura, eta Tenerifeko taldea Gasteizera etorri zenean ere gorabeherak izan ziren.

Ariznabarran jokatzeko dituzue etxeko partiduetan. Baina etxeko zaleen babes barik jokatzeko ari zarete.

Izugarri igartzen da, gainera; izan ere, Zuzenak partiduetara jende asko etortzen da. Harmailak, normalean, bete egiten dira, *Sillas Bravas* izeneko zale taldea ere badugu... Oso giro ona egoten da kantxan; tamalez, hori aurtengo denboraldian, behintzat, galdu egin da.

Ze helbururekin ari zarete aurtengo?

Aurreratu moduan, iazko denboraldian inork ez zuen kategoria galdu, baina bi talde mailaz igo ziren. Horrenbestez, aurtengo gehiago gara, baina borroka estua dugu atzaldeko postuetatik ihes egiteko, azken urteotan moduan. Orain momentuan, Fundacion Las Rozas eta Getafe BSR gure atzetik doaz, baina tarteak ez da handia, eta hemendik eta maiztzerako arteko jardunaldiak oso garrantzitsuak izango dira. Egia da, baita ere, koronabirus kasuak tarteko jokatzeko partiduko kopurua ez dela berbera kasu guztietan, eta oraindik badugu zer jokatu.

Eta talde barruan duzun rol-aren gainean, nahiz eta 23 urterekin oraindik oso gaztearen, geroago eta beterranoago, eta geroago eta garrantzi handiagoa duzu.

Pozik nago, bai. Agurtzane Egiluz taldekide gasteiztarra eta biok gara taldeko kapitainak, eta, kantxan jokatzeko minutuei dagokienez, iaz baino gehiago jokatzeko nabil. Egia da ez naizela taldean gehien jokatzeko duen jokalaririk horietakoa, baina partiduko hamar minutuz egoten naiz kantxan, eta ahalegintzen gara gure ekarpena egiten. Soka luzea geratzen zaigu oraindik.



Korrikalariak Arrasate-Udalatx lasterketaren lehenengo kilometroetan, artxiboko erretratu batean. GOIENA

Arrasate-Udalatx ez, eta Aloñako Igoera kolokan

MENDI LASTERKETAK Mondraitz taldeko lagunek gaur, egubakoitza, eman dute aditzera bigarren urtez jarraian bertan behera utziko dutela proba. Aloñako Igoerakoek ez dute behin betiko erabakirik hartu: "Baina ia segurua da apirilean ez dugula antolatuko"

Xabier Urzelai ARRASATE

Iazko lepo beretik datoz aurren ere gauza asko. Eta horietako bat da lasterketa asko eta asko 2021eko udaberri honetan, behintzat, bertan behera uzten dabil-tzala. "Akaso, izango da beste lehentasun batzuk daudelako, baina antolatzaile gehienoi gertatzen zaiguna da inork ez duela garbi esaten pandemia egoera honetan mendi lasterketa bat antolatzeke ze baldintza bete behar diren, eta, egoera honetan, edozer antolatzeke gogo kentzen zaigu denoi", dio Aloñako Igoera antolatzeke arduraduenetako batek, Pablo Arejolaleibak.

Eta ildo beretik mintzatu dira Mondraitz kirol klubeko lagunak ere. Oñatiarrek oraindik ez dute azken erabakia hartu, baina arrasatearrek bai, 2021ean ez da Arrasate-Udalatx lasterketarik egongo: "Tamalez, oraindik egoera kezagarria da, eta, azken aste hauetan lasterketa egiteko aukerak aztertzen ibili ondoren,

2021ean lasterketa ez egitea erabaki dugu. Apiril honetarako ekintza berezi bat egin nahi dugu, birtuala izango da, baina ez da lasterketarik izango. Oraindik ere zuhurtziaz eta arduraz jokatzeko dagokigula uste dugu. Etorriko dira garai hobeak, eta momentua heltzen denean gogotsu helduko diogu lanari", adierazi dute.

Hala, arrasatearrek zehaztu dute datorren urteko izen-ematea zabaltzen dutenean aurreko urteko irizpideak mantenduko dituztela. Alegia, izena emanda duten guztiek lehentasuna izango dute 2022an. Ezohiko izen emate prozesu bat zabalduko dute eta 2020an dortsala zutenek aurretiaz izena emateko aukera

OÑATIKOEK BALITEKE UDA PARTEAN PROBA ANTOLATZEKO BESTE SAIKERA BAT EGITEA; ERABAKITZEKO DUTE

izango dute. Horrekin batera, ekintza bereziren bat egingo dute, modu birtualean, baina oraindik ez dute zehaztasun gehiagorik eman.

Oñatiarrek ez dute erabaki

Egutegian, Aloñako Igoera Arrasateko lasterketaren ondoren etorri ohi da, baina 2021 honetarako antolatzaileek oraindik lasterketako data zehaztu gabe zuten. Eta *Arejo*-k onartu dio GOIENARI oraindik behin betiko erabakia hartzeko dutela: "Egoera honetan, gure artean batzartzeko ere arazoak izaten ditugu, pentsa... Ia segurua da apirilean ez dugula lasterketarik egingo, baina ikusteko dago lasterketa 2022ra atzeratuko dugun ala uda partean beste saiakera bat egiten ahaleginduko garen. Izan ere, akaso, egoera dezenteko hobe izango da orduan. Baina posible da denbora tarte batean lasterketak betiko formatuan antolatzeke aukerarik ez egotea, ikusiko da...".

Arrate Bergara: "Partidu ostean etxean geratu nintzen, haserre"

PILOTA Emakume Master Cup hastearekin batera kanporatu dute bergarra; gairitu du haserrealdia

X.U. ARRASATE

Beste edizio batzuetan nabarmentzeko moduko txapelketak egin izan ditu Arrate Bergarak, baina zapatuan Emakume Master Cup hastearekin batera, kanpoan geratu da bergarra. "Kanporaketa formatua izan du aurtengoak, eta bai, atzelari nahiko segurua naizela uste dudana arren, zapatuan ez nuen halakorik erakutsi", adierazi zuen Bergarak, umorez, asteleheneko *Harmailatik* saioan.

Saioko gonbidatuak pandemia egoera honetan bizi izan duenaren errepasoa ere egin zuen. Eta, alde horretatik, munduko pilota txapeladun Patri Espinar pilotariak saioan bertan esandakoak berretsi zituen; alegia, gogorra eta zaila izan dela txapelketak izan ez dituzten urte honetan entrenamenduetako dinamizari eustea: "Nik, alde



Arrate Bergara. GOIENA

horretatik, zortea izan dut; izan ere, Antiguoko taldean jokatzeko eta entrenatzaileak lagundu egiten dit motibatuta egoten". Horrekin batera, bere kirol ibilbidean Reyes Azkoitiak izan duen garrantzia ere nabarmendu zuen Bergarak.

ZIKLISMOA Lokatzak martxoaren 20an egingo du aurkezpena

Amateur mailako txirrindulariak hasi dira lasterketetan esku hartzen, eta oraingo asteburuan hasiko dituzte beste kategoria askok ere. Kadeteek Beasainen izango dute hitzordua bihar eta juniorrek, Azpeitian. Hala, Lokatza ziklismo eskolakoek martxoaren 20an egingo dute taldeen aurkezpen ekitaldia, segurtasun neurriak errespetatuta.

SASKIBALOIA MUK Tabirakoren bisita izango du domekan

EBA mailan lider dagoen Mondragon Unibertsitateak Durangoko taldearen bisita izango du domekan Iturripen -18:30, publiko barik-. Ardoiren kantxan irabazi eta gero, arrasatearrek lehenengo postuan jarraitzen dute tinko, eta Tabirako zortzigarren postuan dago, jokaturako hamabost partiduetatik bost irabazita.

FUTBOLA Aretxabaletak eta Mondrak derbia jokatu dute bihar

Ohorezko Erregionalean derbia jokatu dute UDAk eta Mondrak bihar, zapatua -16:30, Ibarra, publiko barik-. Bi taldeetako ordezkariak launa puntu dituzte eta *pla-yoff*-etarako sailkatzeke lehian dabilta biak ala biak. Bergara ere helburu berberarekin dabil, eta mahoneroek Elgoibar hartuko dute bihar Agorrosinen (15:30).

ESKOLA-KIROLA Gorri dauden herrietan ez dute jarduera etengo

Aurreko hilabeteotan ez bezala, martitzena ezkerro, eremu gorrietan sartuta dauden herrietan ez dute eskola-kirola etengo. Eta LEKek oso balorazio positiboa egin du horren bueltan: "Jakitun gara zein egoeratan gauden, eta, horregatik, gure gazteek kirol jarduera egin dezaten segurtasun neurriak eta protokolo guztiak errespetatzen ditugu".

"Publiko berria ari da antzokietara etortzen"

KEPA ERRASTI AKTOREA

Aretxabaletako aktoreak sortutako Xake Produksioak taldeak XXI. Donostia Antzerki Saria jasoko du 'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlanarengatik, martxoaren 27an

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Iaz Donostiako aretoetan eskainitako euskarazko antzezlan onenari ematen diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostia Kulturak sari hori. **Zorionak! Pozik, ezta?**

Oso pozik eta lanean jarraitzeko indarberrituta. Antzezlan gustatu den sentsazioa dugu, eta oso pozgarria da hori. Alde ekonomikotik ere badu sariak, 12.000 euro ematen dizute-eta hiru urteren bueltan euskarazko beste lan bat egiteko. Diruaz gainera, Juan Luis Goenagaren artelana ere jasoko dugu.

Bigarren Donostia Antzerki Saria duzue honako hau; izan ere, 2018an, Mami Lebrun antzezlanarekin jaso zenuten lehenengoa. Zertan lagun-du dizue aurrekoak?

Lana gehiago entzuteko edo zabaltzeko bidea ematen du sariak, eta aipatzekoa da *Fadoak entzuten zituen gizona* egiteko aukera eman zigula *Mami Lebrun*-ekin irabazi genuenak.

Zer garrantzi du, zuretzako, orokorrean, Donostia Antzerki Sariak?

Erreferentzia sari bat da. Orokorrean, asko gustatzen zaizkit Donostia Antzerki Sarietan goraipatu izan dituzten lanak, eta, horregatik, oso pozik gaude gurea ere zerrenda horretan dagoelako.



Kepa Errasti aktore aretxabaletarra. MIKEL MARTINEZ ETXEZARRETA

Zure ideia batetik abiatuta, Txarli Andradek idatzi eta Getari Etxegaraik zuzendutako maskulinitateari buruzko obra da. Gaia lantzeko originaltasuna da epaimahaiak azpimarratu duena. Zertan asmatu duzuela uste duzu?

Xake Produksioak-en lan guztiekin gertatu den moduan, oraingoan ere, antzezlan berean emozioak dantzan jartzen saiatu gara, eta horrek funtzionatzen duela ikusi dugu. Momentu surrealista bat bat-batean goxo jartzen da, ideia indartsu batzuk datoz gero, eta, segidan, hunki-

tu egiten zara eta barre zoro horretara heltzen zara... Hori da guri gustatzen zaiguna eta horregatik egiten dugu, eta poetekoa da publikoari ere gustatzen zaiola ikustea.

Gizon batek fadoak abestea ere goraipatu dute epaimahaiakideek.

Orokorrean, sozialki fadoak emakumeekin lotzen dira, nahiz eta Portugalen badauden gizonetzko fado abeslari asko. Gai horrekin lotutako artikulua bat irakurri nuen eta fadoak istorioan txertatzeko gogoia piztu zidan horrek. Testua idazten

hasi nintzenetik, hasieratik, konfliktu handiak izan nituen, eta zalantzarik handiena sortzen zidan aktore bakoitzari ze profil jartzeak. Argi nuen maskulinitateari buruz berba egin gura nuela, baina ez nuen argi zelan, eta zalantza horiek guztiak antzezlanean txertatu nituen geroago. Istoriok nik antzeztzen dudana Ander eta Mario [Iñigo Aranbarri] daude; fado lehiaketa amateur batera doan Anderrek aspaldiko ezagun duen Mariorekin egingo du topo eta bien arteko elkarriketetan askotariko gaiak aterako dira. Hirugarren pertsonaia bat ere bada, *Masku* [Ane Gabarain], eta uste dut asmatu egin dugula horrekin. **Gai serioa da, baina umoretik heldu diozue, eta gustatu da hori ere.** Hala da, bai, eta itzela da hori! Gaur egun, maskarekin, ez dugu irribarrerik ikusten, baina barre asko eta ozenak entzun ditugu areto guztietan!

Zer da taularen gainetik sumatzen duzuna?

Publikoak antzerki gosea duela eta ikusle berri asko hasi dela antzokietara etortzen, eta sekulako poztasuna ematen dit. Egin ditugun emanaldietan, nahiz eta jakin edukiera mugatua dela, sarrera guztiak saldu ditugu. Normalean oso jende gutxi etortzen zen herrietan ere bai.

25 emanalditik gora egin dituzue; sariaren eraginez emanaldi gehiago lotzeko aukerarik ikusten duzue?

Udaberrirako, oraingoz, bi ditugu, eta itxaropena dut udazkenerako gehiago aterako direla, baina, horretarako, aretoetara deitu beharko dugu; izan ere, sari bat jasotzea ez da nahikoa izaten, eta komertzial lanak egiten jarraitu beharra dago.

Sariaren baldintzen artean dago euskarazko beste lan bat egitea;

hortaz, Keparen makineria martxan dago dagoeneko?

Ez dakit posible izango den egitea edo ez, baina primizia moduan kontatu dizuet aspalditik dudala bakarrik luze bat sortzeko gogoia; baina ez ETBko *Barre libre*a saioan egiten ditugun estilora, baizik eta ordubete pasako aktore bakar bateko saioa. Miretsi egiten ditut bakarriketak egiten dituztenak, oso zaila iruditzen zait. Publikoari ahan-tzarazi nahi nioke bakarriketa bat ikusten ari dela. Aspalditik dut erronka hori.

Urtebete pandemiarekin, egoera ez da ona, baina, batetik bestera saltoka, lanean ari zara zu.

Pribilegiatua sentitzen naiz, bai. Egia da urte asko daroala lanean, eta lanak lana ekartzen duela, baina orain da lehenengo aldia hainbeste gauza batera eta nik egindako lanek horrenbesteko oihartzuna izan dutela. Kultur-gileen egoera ez da erraza, eta, horregatik, ezin naiz ni kexatu. **Euskal aktore asko Madrilera joan izan dira lan bila, baina ez da hori zure kasua.**

Madridik deituko balidate, gus-tura egingo nuke lan han ere, ez daukat inongo trabarik, baina egia da konturatu naizela hemen baino hobeto ez naizela inon bizi. Garbi daukat nire lekua hau dela eta kanpora joateko aukera sortuz gero bueltatzeko asmoz izango dela. Sortzaile profesional asko eta onak gaude Euskal Herrian, azken Goya sariak erakutsi moduan.

"SARI BAT JASOTZEA EZ DA NAHIKOA; KOMERTZIAL LANAK EGITEN JARRAITU BEHARRA DAGO"

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

YUNE NOGUEIRAS

BERGARAKO MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEAK
AKTOREARI EGINDAKO ELKARRIZKETA
JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTA 'GALDEGAZTE' SAIOAN
MARTXOAREN 17AN, EGJAZTENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

"Zoritxarrez, Bilbon, kalean,
komentario matxista itsusiak
entzun behar izan ditut; guztioi
dagokigu horri aurre egitea"



goiena
Zu hemen zaude.

Garai bateko rock-and-rollari, kutsu modernoa

Olatz Ugarte bergararra kide den Eibarko The Mood Rings taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Bergaran, Seminarixoan, 19:00etan; sarrerak zortzi eurotan eros daitezke, 'Seminarixoa.eus' atarian, baina dagoeneko ia guztiak agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Gitarra eskuetan duela bakar-kako kontzertu batzuk egin izan ditu Olatz Ugarte bergararrak; orain dela hiru urtetik, baina, gitarra beharrean mikrofona da taularen gainean erabiltzen duen tresna, bera da-eta Eibarko The Mood Rings taldeko abeslaria. "Xabier Badiola gitarra-jolea ezagutu nuen parranda batean, eta hark kontatu zidan *jam session*-ak edo inprobisazio musika saioak egiten zituen talde bateko kide zela, eta euren aspaldiko gogoia zela emakume abeslari bat taldera batzea. Egun batean, bada, Eibarrera, euren entsegu-lokalera, joan nintzen; han frogatxo bat egin, denak pozik, eta hala bilakatu nintzen The Mood Rings taldeko abeslari. Andoni Lopez da baxu-jolea eta Markel Corral bateria-jolea, eta ez dakigu noiz lortuko dugun, baina bosgarren lagun baten bila ari gara, teklatu-jolea hori", dio Olatz Ugartek.

"Rock-and-roll zaharra"

Gazteak dira, baina 70eko hamarkadako musika dute gustuko. "Jendea harritu egiten da eta sarritan galdetzen digute ea nolatan egiten dugun zaharren musika; esaterako, Led Zeppelin, Allman Brothers Band, Cream,

Janis Joplin, Fleetwood Mac, Jefferson Airplane... Betidanik entzun izan dugunak utzitako aztarna da hori, eta oso eroso sentitzen naiz. Egia da beste estilo batzuen arteko nahasketatik sortzen ditugula kantuak, ukitu modernoagoa emanez. Gaur, ordubete pasako emanaldian, gure hamar kantu eta hiru bertsio eskainiko ditugu".

'The arrival' diskoa

Iaz irailean grabatu zuten estreinako diskoa, Mutrikuako AME estudioan "Sei kantu ditu, inge-

lesez abestuta. Sare sozialetara igotako bi kantuek ez dute esperotako harrerarik izan. Egia da kontzertu bakarra egin dugula; hortaz, oso gogotsu gaude Seminarixoko agertokira igotzeko. Sekulako ilusioa dugu, eta oso eskertuta gaude eman diguten aukeragatik; bergararra izanik, presioa ere sentitzen dut herrian abesteagatik, baina goan dut Seminarixoan kontzertu bat ikusi nuen lehen aldian 'nik hemen gura dut abestu' pentsatu nuela, eta hala egingo dut; areto paregabea da!".



Olatz Ugarte bergararra da The Mood Rings taldeko abeslaria. AINHOA GARALDE

Bulego taldeak bi kontzertu emango ditu Oñatin, gaztelekuan

Bihar, zapatua, 17:00etan eta 19:00etan izango dira emanaldiak; bigarrenarako, sarrerak agortuta daude

A. Aranburuzabala OÑATI

Passepartout taldea osatzen zuten Tomas Lizarazuk, Xabi Arrietak, Jontxu Apek, Itziar Beitiak eta Ruben Lizarralde Bulego proiektua abiatu zuten 2019an. "Erreferentzia musikal zein kul-

tural berrien eraginez proiektu berri baten aldeko apustua egi-tea erabaki zuten. Taldearen bihotza eta funtsa musika da, baina diziplina askotariko proiektu moduan ulertzen dute taldekideek. Bi lan dituzte argitara-

tuta; azkena, joan den abenduan, *Ilun dagoen arren* EPa. Energia positiboz beteriko pop dantzarria egiten dute eta euren freskotasun eta abestiekin zuzenean gozatzeko aukera izango dugu", diote antolatzaileek.

19:00etarako, sarrerarik ez

Azken hilabeteetan bina emanaldi egin dute kontzertu bakoi-tzeko, eta hala egingo dute bihar ere, 17:00etan eta 19:00etan. Lehenengo emanaldirako sarre-rak, *Oñati.eus* atarian.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko sariak!

Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATIKOAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.bazkideetza.eus
Bulego Merkataritza proiektuak

PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 17RA ARTE

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA, "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazteagatik OFD 5/2016 legearen arabera, jazarritako datuak datu pertsonalaren kategoria gisa hartzen dira. Datuak ez dira salmentarako erabiltzen eta ez dira salmentarako erabiltzen. Datuak ez dira salmentarako erabiltzen eta ez dira salmentarako erabiltzen. Datuak ez dira salmentarako erabiltzen eta ez dira salmentarako erabiltzen.

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Beginatu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 15a

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€

Deltur: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserría Oñatin. Bikote gazte bat gara Oñatin baserría erosteko prest dagoena. Interesatuak jarri gurekin harremanetan. 600 34 87 13

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. San Anton kalean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 30 93 48

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bi pertsona nagusirendako etxebizitza behar dugu errentan. Iggogailuarekin edo beheko solairuan. Pentsiodunak gara. 645 72 92 87

Eskoriatza. Kaixo! Gutxienez bi logela dituen etxebizitza bila gabilta. Eskerrik asko. 686 24 42 34 edo 676 44 14 68

2. GARAJEAK

204.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartuko nuke errentan. Erguin kalean edo inguruan. Telefonoa: 688 61 28 38

3. LOKALAK

304.ERRENTAN HARTU

Arrasate. "Kontzentzia Zentroa" sortzen ari gara eta gure ekintzetarako 120 metro koadro baino gehiagoko lokal bila gabilta. Harremanetarako: kontzentzia.zentroa@gmail.com edo 617 24 29 95 edo 688 81 65 07

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia daukat. Geriatria titulazioa eta Jaurilaritzako agiria. Etxean bertan bizi izaten, edo bestela. Telefonoa: 633 12 85 30

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Adinekoen zaintzarako gertu nago. Goizean edo eguerdian kalera lagundu edota gauez zaintzeko ere bai. 642 98 98 06

Arrasate. Asteburuetarako lan bila nabil. Soziosanitario eta garbiketa titulazioak daukat. Legezko agiriak ere bai. Telefonoa: 632 83 32 44

Arrasate. Emakume eskalduna gertu pertsona nagusiekin egon eta kalera laguntzeko. Telefonoa: 656 77 53 37

Bergara eta Arrasate. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Legezko agiriak daukat. 677 00 90 26

Bergara. Emakume eskalduna, soziosanitario titulua duena, arratsaldetan edo asteburuetan lan egiteko eskaintzen da. Telefonoa: 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Bergara. Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke, orduka, gaueetan, asteburuetan edota ordezkapenak egiten. Legezko agiriak eta formazioa daukat. Telefonoa: 688 74 00 14

Debagoiena. Asteburuetan, orduka edo jardun osoz, lan egingo nuke. 632 25 27 26

Debagoiena. Bergarako neska adinekoak zaintzeko eskaintzen da. Titulua dauka eta esperientzia ere bai. 688 72 88 97

Debagoiena. Denetarikoko garbiketarako gertu nago: etxeak, atariak, tabernak edota baserriak. Baita nagusiak laguntzeko ere: erostetarako egitera, medikuarenera, ibiltzera eta abar. Autoa daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Egunean zehar orduka edo gaueetan zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 659 90 85 1

Debagoiena. Emakumeak nagusiak zaintzen lan egingo luke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 627 03 16 40

Debagoiena. Erizain laguntzailea naiz eta nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen neska adinekoak zaintzeko edo garbitasun lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. 9:00etatik 13:00etara, baita asteburuetan ere. Autoa daukat. Telefonoa: 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo gaueetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Legezko agiriak eta Jaurilaritzako ziurtagiria daukat. Telefonoa: 602 12 79 79

Debagoiena. Garbiketa lanetan zein pertsona

BERGARA

Estetika zentroa eta lurindegia eskualdatu egingo dugu, erretiroagatik. 32 urte irekita eta errendimendu osoan. 656 74 83 37 943 00 03 14

nagusien zaintzan lan egin nahi dut. 658 11 46 66

Debagoiena. Garbiketan eta nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. 632 12 42 42

Debagoiena. Garbiketan eta zaintza lanetan aritzeko gertu nago, orduetegi arazo barik. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Hainbat lanetan jarduteko prest nago; pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiketa lanetan eta abar. Telefonoa: 641 44 16 30

Debagoiena. Lan bila nabil garbitasunean edota haur eta zaharren zaintzan. Egun osoan zehar prest. 698 91 18 63 (Andrea)

Debagoiena. Lan egingo nuke garbitasunean eta haur eta zaharren zaintzan. Egunez zein gauez prest. Telefonoa: 604 13 19 79 (Jordi)

Debagoiena. Lan egiteko prest nago: pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiketa edota zerbitzari lanetan. 603 35 53 37

Debagoiena. Legezko agiriak eta titulazioa daukat eta egunean zehar nagusiak eta umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Mutila gertu erakuntza peo moduan, margotzen, denetarikoko garbiketarako egiten edota nagusiak zaintzen lan egiteko. 631 47 14 11

Debagoiena. Mutila gertu etxeak garbitzen eta nagusiak zaintzen jarduteko. 643 14 38 75

Debagoiena. Mutila gertu etxeko langile moduan aritzeko. Baita erakuntzan, arropa josten, bodegan zein bestelako lanetan ere. 612 28 05 29

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. 679 45 97 18

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago,

baita gaueetan eta baserrietan ere. Autoa daukat. 631 37 49 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita baserrietan lan egiteko ere. 672 55 67 35

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan edota ospitalean orduak egiten lan egingo nuke. 641 51 13 06

Debagoiena. Nagusien eta umeen zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka, egunka edota etxean bertan bizi izaten. 631 19 75 84

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena gertu nagusiak eta

umeak zaintzen edota garbiketarako egiten lan egiteko. 603 34 85 01

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxe eta atariak garbitzeko edo nagusi eta umeak zaintzeko. Erizain laguntzaile moduan eskarmentua dut. 747 40 45 49

Debagoiena. Okindegian, sukalde laguntzaile, mezulari, igeltsero edota zaintzaile moduan esperientzia duen mutila lan bila. 603 28 34 98

Debagoiena. Ospitalean edo etxean zaintza lanak egingo nituzke. Arratsalde zein gauez. Esperientzia daukat eta soziosanitario ikastaroa egiten ari naiz. 631 95 04 42

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Telefonoa: 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke, orduka, asteburuak, ... Legezko agiriak daukat. 643 59 76 06

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusien zaintzan jarduteko prest nago; orduka, gauez, asteburuetan. 631 98 15 50

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, baita etxean bertan bizi izaten ere. 647 51 48 07 edo 602 42 04 81

8. DENETARIK

802. EROSI

Oñati. Basoko lur sail bat erosiko nuke, pinuarekin edo gabe. Norbaitek saltzeko interesa izan ezke-ro, harremanetan jartzeko telefonoa: 664 37 44 19

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Baserría Aretxabaletan. Bikote gazte bat gara eta Aretxabaleta inguruan baserri bat erosteko beste familia edo norbanako baten bila gabilta. Harremanetarako telefonoa: 660 37 55 92

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'URTEBETE PANDEMIAREKIN'

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA

MONDRATEREN ENTRENATZAILEARI ELKARRIZKETA

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 12

09:00 Kantari Aretxabaleta 9
09:30 Kantari Arrasate 3
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 EKT: Amaia Alvarez
11:30 Hala Bazan: Gizartea 2
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Hemen da Miru 18
13:30 Elkarrizketa: Gaizka Insunza
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 EKT: Amaia Alvarez
16:00 Albisteak
16:30 Elkarrizketa: Gaizka Insunza
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 15
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Ahotsekoa: Patxuko Nice
19:30 EKT: Amaia Alvarez
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Galdegazte: Mariasun Pagoaga
21:30 Hala Bazan: Gizartea 3
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Elkarrizketa: Gaizka Insunza
23:30 Hala Bazan: Gizartea 3

ZAPATUA, 13

09:00 Kantari Arrasate 4
09:30 Kantari Arrasate 3
10:00 Kantari Arrasate 5
10:30 Hala Bazan: Gizartea 3
11:00 Hitzaldia: Xabier Barandiaran
12:00 Harmailatik
12:30 Harira: Asier Vitoria
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Elkarrizketa: Gaizka Insunza
14:30 Asteoko errepasoa
15:30 EKT: Amaia Alvarez
16:00 Hemen Debagoiena
17:00 Harmailatik
17:30 Erreportajea: M8
18:00 EKT: Amaia Alvarez
18:30 Asteoko errepasoa
19:30 Hala Bazan: Gizartea 3
20:00 Galdegazte: Mariasun Pagoaga
20:30 Harira: Asier Vitoria
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Ahotsekoa: Patxuko Nice
22:30 EKT: Amaia Alvarez
23:00 Harira: Asier Vitoria
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 14

08:30 Hemen da Miru 18
09:00 Hemen da Miru 16
09:30 Kantari Arrasate 3
10:00 Kantari Arrasate 4
10:30 Kantari Arrasate 5
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Ahotsekoa: Patxuko Nice
12:30 EKT: Amaia Alvarez
13:00 Hitzaldia: Xabier Barandiaran
14:00 Galdegazte: Mariasun Pagoaga
14:30 Erreportajea: M8
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Hemen da Miru 16
16:30 Kantari Arrasate 4
17:00 Kantari Arrasate 3
17:30 Hemen da Miru 17
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Hala Bazan: Gizartea 3
19:30 EKT: Amaia Alvarez
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Erreportajea: M8
21:30 Hitzaldia: Xabier Barandiaran
22:30 Hala Bazan: Gizartea 3
23:00 Ahotsekoa: Patxuko Nice

MARTITZENA, 16

ELKARRIZKETA EUKENE BARRENETXEARI

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 17

YUNE NOGUEIRAS, KAZETARI GAZTEKIN

'Galdegazte'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldarmeneko qr kodea.

EGUAZTENA, 17



GOIENA

GAIZKA INSUNZARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

EGUENA, 18

'EKONOMIA ZIRKULARRA'

'Debagoiena Eraldatzen'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Inoiz minak irensten bazaitu,
beti irriz oroitu nazazu
ez da hilko eusten nauen arrazoi bakarra
ez da hilko maitasuna.

Arrasaten, 2021eko martxoaren 12an.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Zure izena gure buruan,
zure oroitzak gure bihotzean.

Zure kuadrilla.
Arrasaten (Garagartza), 2021eko martxoaren 12an.

OROIGARRIA

Julian Lezeta Ezkurra
2016ko martxoaren 1ean hil zen.

Juan Jose Garmendia Berezibar
1999ko martxoaren 10ean hil zen.

Zuekin pasatutako momentu onak gurekin gelditu dira.

Zuen lagunak.
Arrasaten, 2021eko martxoaren 12an.

OROIGARRIA

Aitzol Elkoroberezibar Gonzalez



2021eko martxoaren 4an hil zen, 19 urte zituela.

Aitzol,
ez dugu inoiz ahaztuko zure irribarra,
eskutik nola heltzen zenigun ere ez.
Gugan izango zaitugu beti.

Aitita, osaba-izebak eta lehengusuak.
Irunen, 2021eko martxoaren 12an.

OROIGARRIA

Miriam Arregi Ortiz de Luzuriaga



2020ko martxoaren 8an hil zen, 33 urte zituela.

Gogorapenak narama
Mirian, zure ondora,
zure irribarrearen
laxtan goxoen berora.
Aldamenean izanda
joatean edonora,
erakutsi zenidana

datorkit orain gogora.
Alferrik ipiniko da
bion artean denbora,
nere zure oroipena
ez da goiz bateko lora,
ez da egun batekoa
bizitza osorako da.

Jokin.
Oñatin, 2021eko martxoaren 12an.

OROIGARRIA

Marilu Kortazar Uribesalgo



2021eko martxoaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

Beti izango zara gure artean.

Zure betiko lagunak: Clarita, Rosarito, Mari Tere eta Mari Carmen.
Eskoriatzan, 2021eko martxoaren 12an.

URTEURRENA

Javier Zabala Suinaga



1948/10/04 - 2020/03/14

Urte gogor honetan gure alboan egon zareten guztioi
eskerrik asko, familia osoaren izenean.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 14an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean..
Bergaran, 2021eko martxoaren 12an.

URTEURRENA

Miriam Arregi Ortiz de Luzuriaga



1987/01/19 - 2020/03/08

Lehen urteurreneko meza larunbatean izango da, martxoaren 13an,
18:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian.
Hileta elizkizuna baldin badago, 19:00etara atzeratuko da meza.

Eredu bat izan zara guretzat.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Asko maite zaitugu, Miriam.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean..
Oñatin, 2021eko martxoaren 12an.

ESKER ONA

Elisabet Bergaretxe Mendaraz



2021eko otsailaren 28an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2021eko martxoaren 12an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 12 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 13 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 14 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 15 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 16 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 17 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 18 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 12 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 13 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 14 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 15 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 16 OIARBI: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 17 ESTELLA: Matxibategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 18 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ORATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 12 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 13 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 14 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 15 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 16 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 17 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 18 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKER ONA

Miguel Azpeitia Lazpiur



2021eko otsailaren 25ean hil zen, 66 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko martxoaren 12an.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Trikitiarekin eta panderoarekin**

Neomak taldeak doinu goxoeekin bete zuten Eskoriatzako Zaldibar antzokia. Zazpi emakume oholtzan, trikitiekin eta panderoekin, ikusleen gozamenerako.

3. Sasoibidekoen Lilatoi birtuala

50 bat lagun batu ziren lasterketa birtuala oinez egiteko. Arrasateko Monterrondik hasita, bost kilometroko ibilbidea egin zuten, nork bere erritmoan.

5. Etorkinei buruz hausnartzen

Eskoriatzako Luis Ezeizako adin askotariko ikasleek hausnarketa berezia egin zuten. Etorkinek euren herrialdeak zergatik uzten dituzten landu zuten.

2. Fruta landareak landatzen

Basoko sagarrondo eta madariondo landareak landatu zituzten aurrekoan Duruko inguruetan. Oñatiko Natur Eskolako kideen laguntzarekin ibili ziren mendian.

4. Iaz diplomen banaketa

Iaz bigarren mailako titulua eskuratu zuten hamaika musika ikaslek jaso zuten diploma Bergarako Mariaren Lagundia elizan. Osteko kontzertuan maila bikaina erakutsi zuten.

6. Artisautzari bultzada ematen

Oñatiko emakume artisauek ez zuten hutsik egin. M8aren harira, euren postuak kalera atera zituzten. Herritarrek eta erosleek ere ez zuten hutsik egin.

7. Bihar ezkonduko dira

Goiz eta Ander oñatiarrak udaletxean ezkonduko dira. "Disfrutatu zuen egunaz. Laster elkarrekin ospatuko dugu. Zorionak, kuadrillakoen partetik!".

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Sara Garcia Borrego
Martxoaren 17an, 8 urte. Zorionak, Sara! Ondo ibili zure egunean! Besarkada estu bat familia osoaren eta, batez ere, aita- amamen partetik!



ARRASATE
Uxue Belategi Galdos
Martxoaren 16an, lau urte. Zorionak, pitxintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta segi beti bezain pozik. Jaso ezazu muxu erraldoi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Libe Unamuno Lete
Martxoaren 15ean, 5 urte. Zorionak, maitxia! Konturatu orduko bost urte... Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat danon partetik. Asko maite zaitxugu!



ARETXABALETA
Luis Pacheco
Martxoaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Zure emazte Mariak eta alaba Larak izugarri maite zaitugu!



ARETXABALETA
Jasone Zabala Ibarra
Martxoaren 14an, 42 urte. Zorionak, amaxo, zure urtebetetzean. Besarkada eta patxo handi bat familia osoaren, eta batez ere, zure gizontxo Inarren partetik!



IDIAZABAL
Iraia Zabaleta Urteaga
Martxoaren 14an, 3 urte. Zorionak amama, aitona, tia Leire, aita-amak eta Ekaintxoren partetik! Muxu potolo bat!



OÑATI
Iraia Gil
Martxoaren 13an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik. Pila-pila maite zaitugu!



ARETXABALETA
Noa Olivenza Iturricastillo
Martxoaren 12an, 9 urte. Zorionak, txapelduna! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Familia osoaren partetik. Muxuak.



ARETXABALETA
Lara Pacheco Sopa
Martxoaren 11n, 4 urte. Zorionak, Lara! Etxeko bizipoza zara. Asko maite zaitugu. Luis eta Maria gurasoko, Marijo, Manuel, Yaiza, izeba-osabak eta amama.



ARRASATE
Ekhi Madinabeitia Lasa
Martxoaren 10ean, 4 urte. Zorionak, sagutxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo pila etxeko denon partetik!



ARETXABALETA
Maddi Nuñez Belategi
Martxoaren 10ean, 6 urte. Zorionak, *ti!* Asko maite zaitugu.



BERGARA
Irati Aperribai Mujika
Martxoaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo asko, etxeko denon partetik.



ARETXABALETA
Unai Idigoras Gonzalez
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak, Unaitxo! Egun ederra pasatu. Muxu potolo pila bat!



ARRASATE
Ane Etxebarria Alzola
Martxoaren 9an, 4 urte. Zorionak, Ane! Lau urte gure etxeko altxortxuak! Muxu erraldoi bat Eñauten, Irlarten eta maitxe zaitxugun guztixon partetik!



ARRASATE
Uxue Kortabarria Maskariano
Martxoaren 8an, 11 urte. Zorionak, Uxue! Primeran ospatu egun berezi hau: *#M8*. Zu izango zera beti gure etxeko *#8*-a. Segi horren berezi eta alala izaten. Asko maite zaitugu: Naroa, aitaixo eta amatxo.




ESKORIAITZA
Aner Orobengoa Nevado
Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Bazabitz handitzen eta heldu zara bi zifretara! Jarraitu holako alai eta atsegin. Besarkada handi bat etxeko guztien partetik. Batez ere, anaia Xabik bidaltzen dizuna.



ARRASATE
Olatz eta Ipar Axpe Aranzabal
Martxoaren 8an eta 10ean, zortzi eta lau urte! Aitxaitxa Juantxuren, amama Petra Mariren eta tia Liliren partetik, zorionak!



BERGARA
Amaia eta Raul Pozo
Martxoaren 8an, Amaiak 9 urte eta 10ean, aitaok 43 urte. Ederra izango da astea! Ondo-ondo pasatu etxeko partetik.



BERGARA
Julen Gartzaron Telleria
Martxoaren 8an, 2 urte. Zorionak, Julen! Jada bi urte! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Manex Lasagabaster Romero
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak, Manex! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Muxu potolo pila bat familixa danaren partetik.



ARRASATE
Jordan
Martxoaren 7an, 38 urte. Zorionak, aitaok!



ARRASATE
Nahia Rodriguez Baena
Martxoaren 7an, 5 urte. Gure printzesak bost urte betetzen ditu gaur! Zorionak etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Suhar eta Miren Ulezia Vitoria
Martxoaren 5ean, urtebete. Zorionak, *txispito* eta *txispita*! Mila esker etxeko eta familixakuen partetik urtebete dala gurera poztasuna ekartzarren! Patxo potolo.



ARRASATE
Maialen Fernandez Bellido
Martxoaren 5ean, 5 urte. Gure etxeko superheroiak bost urtetxo! Ondo pasatu eguna, pitxina! Muxu erraldoia!



BERGARA
Oihane Zabarte Arizabaleta
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak, polixi hori! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna! Patxo potolo bat danon partetik!



OÑATI
Malen Diaz Agirregabiria
Martxoaren 4an, 11 urte. Zorionak, Malen! 11 urte! Jarraitu beti bezain alai izaten. Ondo pasatu eguna. Patxo bat, familixa danaren partetik.



ARRASATE
Markel Bereziartua Zabala
Martxoaren 15ean. Zorionak, artista! Zortzi urte honezkero, denbora ihesi doala! Segi bizitzaz gozatzen eta gure bihotzak alaitzen, Markel!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 12

ARETXABALETA Literatura**solasaldiak: izen-ematea**

Gaur da apirilean hasiko diren saioetan parte hartzeko izena emateko azken eguna.

Liburutegian, 10:00etan.

OÑATI Odol ateratzea

Pandemiak eragindako beharrari laguntzeko aukera.

Enpresagintzan, 16:30ean.

DEBAGOIENA Esne bilketa**Lesboserako**

Arrasateko Hiper Eroskin; Aretxabaletako Erokin; Aramaioko Kintelenan; eta Antzuolako Amaia dendan, Aixa frutategian eta Eroskin.

Leku horietan, 17:00etatik 21:00etara.

ELGETA 'Ipuinen ordua'

HH-3 eta HH-4 mailetakoko neska-mutikoendako, kontalari boluntarioen eskutik.

Liburutegian, 17:20ean.

BERGARA The Mood Rings taldea

Eibarko taldeak 1960ko eta 1970eko hamarkadetako soinuak berreskuratuko ditu. Sarrerak, zortzi.

Seminarixoon, 19:00etan.

M8 ESKORIATZA 'Ser mujer migrada en la sociedad vasca' hitzaldia

Azerbaijanen jaio eta Tolosan bizi den Tarana Karinak egingo du berba.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

M8 ARETXABALETA 'Cholitas' dokumentala

Amerikako mendi-tontorrik garaiena igotzea erronka izan zuten Boliviako bost emakume indigenaren istorioa. Sarrera, hiru euro.

Arkupen, 19:00etan.

M8 LEINTZ GATZAGA Indai taldea

Yune Nogueirasek, Leire Moñuxek eta Nerea Aginagaldek osatzen dute taldea.

San Migel plazan, 19:00etan.

ZAPATUA 13

OÑATI Arantzazu errekarren**arroa ikusteko irteera**

Natur Eskolaren eskutik. Aurrez eman behar da izena, *natureskola@yahoo.es* helbidean.

Postetxeko geltokian, 09:00etan.

DEBAGOIENA Esne bilketa**Lesboserako**

Arrasateko Hiper Eroskin; Aretxabaletako Erokin; Aramaioko Kintelenan; eta Antzuolako Amaia dendan, Aixa frutategian eta Eroskin.

Leku horietan, 09:00etatik 14:00etara.

OÑATI EH Bilduren herri batzarra

Batzarra telematikoa izango da, *Ponentzia politikoaren eta organizatiboaren aurkezpena eta eztabaida* gaiarekin.

Online, 10:00etan.

BERGARA Olaso dorrean bisita gidatua

10:15ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Sarrerak erosteko: *Bergaturismo.eus*.

Olaso Dorrean.

OÑATI 'Ondo bereiztua, asko aurreztua!' kanpaina

Informazio-mahaia eta umeendako tailerrak eta jolasak, ontzi arinen bilketari buruz hausnartzeko.

Orduetgia: 10:30-14:00 eta 15:30-19:00.

Foruen plazan, 10:00etan.

M8 ARAMAIO Tuppersex eta ipuin erotikoak

Virginia Imazen eta Inma Merinoren emanaldia.

Osoko bilkuren aretoan, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria San Andresen

3-12 urte artekoendako.

Arimazubi plazan, 11:30ean.

OÑATI Barne Guda eta Inguma taldeak

Lehenak punk-rock doinuak joko ditu eta bigarrenak tekno mundura eramango ditu entzuleak.

Gaztetxean, 17:00etan.

OÑATI Bulego taldea

Azkoitiko taldeak *Ilun dagoen arren* diskoa aurkeztuko du, emanaldi bikoitzean.

Gaztelekuan, 17:00etan.

BERGARA 'Mundu berri bat guztiontzat' ekitaldia

Izen bereko kantu eta bideoklipak, Bizipoza elkarte osatzen duten hamaika elkarteentzako ekoiztutako lana da.

Seminarixoon, 18:00etan.

M8 ANTZUOLA 'Luze edo motz' bakarrikzeta

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai euskara, berdintasuna eta genero ikuspuntua jorratuko dituzte, umoretik.

Torresoroan, 18:00etan.

M8 ESKORIATZA 'Esnatu naiz' ikuskizuna

Identitatea, giza harremanak eta sexualitatea hizpide dituen eta musika eta dantza nahasten dituen ikuskizuna.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

DOMEKA 14

OÑATI Zuhaitz Eguna Aloñako lagunekin

Natur Eskolaren eskutik, Ingurumen Jardunaldien baitan.

Unaimendin, 10:00etan.

BERGARA Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Elkarte ezberdinetako familiekin kantuan eta dantzan egingo dute.

Udal pilotalekuan, 11:30ean.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.

Okendoko ludotekan, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Erbia eta dortoka' antzezlanak

Glu Glu antzerki taldearen lana 3 eta 7 urte arteko umeendako.

Sarrerak, hiru euro.

Arkupen, 17:00etan.

M8 LEINTZ GATZAGA 'Luze edo motz' bakarrikzeta

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai euskara, berdintasuna



MIRARI MARTIARENA

M8 LEINTZ GATZAGA eta ANTZUOLA 'Luze edo motz' bakarrikzeta

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai euskara, berdintasuna eta genero ikuspuntua jorratuko dituzte, umoretik.

Zapatuan, Antzuolako Torresoroan, 18:00etan, eta domekan, Leintz Gatzagako kultura etxean, 18:00etan.

eta genero ikuspuntua jorratuko dituzte, umoretik.

Kultura etxean, 18:00etan.

M8 ESKORIATZA 'Emakumeak mugimenduan' dantza tailerra

Oihane Vicente irakaslearekin eta Amaia Arantzabal eta Idoia Asurmendi musikariekin. Aurrez eman behar da izena.

Pilotalekuan, 18:00etan.

M8 ARAMAIO 'Carmen y Lola' filma

Ikusiz Gozatu zineklub taldekoen eskutik, Arancha Echevarriaren pelikula.

Kultura etxean, 18:45ean.

ASTELEHENA 15

ARRASATE Goienagusiren**batzar orokorra**

Bazkideendako.

Kulturaten, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen**elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen**elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen**elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia

Joxe Mari Iturralde gidatuta.

Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Bestelako baso kudeaketa' hitzaldia

Errez kooperatibako kide Markel Arriolabengoak eta Iñaki Etxebestek egingo du berba, EH Bilduk gonbidatuta.

Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Dantzarien jantzien erakusketa

Euskal Herriko dantza talde ezberdinetako 40 jantzi ipini ditu ikusgai Oñatzek, hilaren 26ra arte.

Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Noka ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baitan.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

OÑATI 'Koronabirusa eta konfinamenduaren ondorioak' hitzaldia

Norgara elkarteko Virginia Espinek egingo du berba. Aurrez eman behar da izena.

Santa Anan, 18:15ean.

MARTITZENA 16

OÑATI Noka ikastaroa

Jabekuntza Eskolaren baitan.

Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.



BULEGO

OÑATI Bulego taldea
Azkoitiko taldeak *Ilun dagoen arren* diskoa aurkeztuko du, emanaldi bikoitzean. Besteak beste, *Kantu bat* eta *Hegan* abestiak joko dituzte, ikus-entzuleen gozamenerako.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa saioa Eneko Haritzarekin
5 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena.
Kulturaten, 18:00etan.

M8 BERGARA Bergarako emakume artistak
23 emakumeren lanak ikusgai. Hilaren 21era arte.
Amaia antzokian, 19:00etan.

OÑATI Psikologia irakurle tailerra
David Ebershoff idazlearen *La chica danesa* liburuaren gaineko saioa, Silvina Fondrak gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA 'Telesforo Monzon, herriaren oihua' liburuaren aurkezpena
Ostean, solasaldia, Mikel Zubimendirekin eta Jose Luis Elkororekin.
Olaso dorrean, 18:30ean.

OÑATI 'Gaitasunen eta dohainen ekonomia' hitzaldia
Ekonomia, Aktuariotza eta Finantza Zientzietan eta Psikologia Klinikoan lizentziatu Nekane Juradok egingo du berba. Izena emateko: *osasunaetaeskubideakdebagoiena@protonmail.com*.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Caminho longe' dokumentala
Josu Martinezen lana, martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:00etan.

EGUAZTENA 17

ARRASATE 'Euskal Herria ezagutzen' hitzaldia
Goienagusiren irteera kulturalen arduradunek egingo dute berba.
Kulturaten, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Olioak, pastelak eta akuarelak' erakusketa
Maria Antonia Ugarte Garairen lanak ikusgai, hilaren 31ra arte.
Aroztegin, 11:00etan.

BERGARA Odol ateratzea
Herriar guztiendako.
Oxirondo azokan, 16:30ean.

OÑATI Bill Felstinerren hitzaldia
Our man in Chad: Reflections of a Fieldworker hitzaldia egingo du, ingelesez eta online.
Online, 17:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

M8 OÑATI 'Edertasun kanonak, lodifobiaren ikuspuntutik' solasaldia
Irati Garciak egingo du berba.
Zinema aretoan, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Valeria Luiselli idazlearen *Los niños perdidos* liburuaren gaineko saioa, Ane Zapaterok gidatuta.
Kulturaten, 18:15ean.

BERGARA 'Nuevo orden' pelikula
Jatorrizko bertsioan, azpтитuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 18:30ean.

OÑATI 'Irlandako gatazkaren historia abestien bidez' hitzaldia
St. Patrick's egunaren harira.
Gaztetxean, 19:00etan.

EGUENA 18

ARRASATE Sasoibide irteera
Arrasaten paseoa egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI 'Feminismoak bazterretik' irakurketa zikloa
Luciana Alfarak gidatutako saioa, gazteleraz.
Kultura etxeko atikoan, 18:00etan.

OÑATI 'La llorona' filma, zineklubean
Jayro Bustamanteren pelikula. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 19:00etan.

M8 ARRASATE M8: 'Salda badago' liburuaren aurkezpena
Edukiera mugatuarekin. Euskaraz.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Shane Curley eta Azkaiter Pelox
St. Patrick's egunaren harira kontzertua egingo dute.
Seminarixoan, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA
ANTZOKIA

La chica del brazalete
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.
Raya y el ultimo dragon
Zapatua eta domeka: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

El chico
Domeka eta astelehan: 18:30.
Gusanos
Domeka: 16:00.

OÑATI

KULTURA
ETXEA

Y llovieron pájaros
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.
Raya y el ultimo dragon
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

Non dago Mikel?
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 19:00.
Tierras altas
Zapatutik astelehenera: 19:00.
Akelarre
Zapatua: 19:00.
Domeka: 16:00, 19:00.
Non dago Mikel?
Domeka: 19:00.

GASTEIZ

GORBEIA

En guerra con mi abuelo
Domeka: 11:30, 11:45.
Los croods: una nueva era
Egubakoitza eta zapatua: 17:25.
Domeka: 12:00, 17:25.

Las niñas
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 19:20.
Domeka: 12:00, 19:20.
Elfkings
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.
Akelarre
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:25.
Eguaztena: 19:25.

La boda de Rosa
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 19:20.
Raya y el ultimo dragon
Egubakoitzetik domekara: 16:40.
Eguaztena: 17:20, 19:10.
Y llovieron pájaros
Egubakoitzetik domekara: 18:50.
Eguaztena: 16:55.
Pequeños detalles
Egubakoitzetik domekara: 17:15.
Eguaztena: 18:50.

Relic
Egubakoitzetik domekara: 19:25.
Eguaztena: 17:25.
No matarás
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 19:25.
Domeka: 12:00, 19:25.
Minari, historia de mi familia
Egubakoitzetik domekara: 17:10, 19:05.
Eguaztena: 16:50, 19:05.

Solo las bestias
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 19:00.
Eguaztena: 16:50.
Academia Cranston
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.
Raya y el ultimo dragon
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

KRITIKA

El chico ★★★★★
Zuz.: Charles Chaplin. **Herr.:** AEB (1921). **Aktoreak:** Charles Chaplin, Jackie Coogan, Edna Purviance. **Iraupena:** 68 minutu.

Historia eta artea

IÑIGO ZABALA

Agian, XXI. mende honetan, irudien berehalako kontsumoa egiten dugu. Plataformen bidez berehala ikusi nahi ditugu filmatu berri diren filmak eta telesailak. Lehenbailehen ikusi eta hurrengo kontsumitzera pasa. Berrikuntzak nahi ditugu, eta, askotan, ez ditugu kontuan hartzen duela urte batzuk egindako lanak. Hori horrela, zinema munduan, XX. mendean miretsitako artistak eta haien lanak ez ditugu ezagutzen. COVID-19arekin zinema estreinaldiak asko murriztu direnez, leku bat izan dugu Chaplinen *El chico* filmaren mendeurrena ospatzeko, eta aretoetan horren kopia berritua ikusteko. *El chico* ikustea historiari eta arteari lotutako ariketa egitea

bezala da. Filma ikusterakoan, zinemaren jatorrira hurbiltzen gara, eta ikusten dugu garai hartako egileek, irudien bitartez eta errotulu soil batzuen laguntzarekin, istorioa kontatzeko eta pertsonaien tirabirak bere osotasunean erakusteko zuten maisutasuna. Ikusi izan dugu nola Chaplinen filmak bere xarma mantentzen duen, eta irribarrea eta zirrara lortzeko ahalmena ere baduen. *Charlot*-ek, bere pertsonaia unibertsalak, 100 urte pasa arren, bizirik dirau. Eguneroko zailtasunei aurre egiteko trikimailuetan iaioa eta, aldi berean, bihozbera. Orain, gurasoek aukera dute belaunaldi berriei ezagutzera emateko pertsonaia eta artista unibertsal haren xarma etengabea.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Unai

Sorpresa handia eta oso atsegina hartu dut Unai Iparragirre ETBko zuzendari izendatzearekin. ATBren hastapenetan ezagutu nuen, Agustin eta Betirtze lagunekin bikain baliatu zuten emandako aukera. Gero jarraitu izan dut, gutxi asko, bai ETBn egindako ibilbidea eta baita atzerrikoa ere. Eta, ETB eraldatzea lan zaila izango dela aitortuta, uste dut Unai pertsona oso egokia dela ahaleginerako.

Ze ETB eraldatu beharra dago: bi kateen konfigurazioa, hizkuntza eredua eta lantaldea ez dira asko aldatu hiru hamarkadatan. Eztabaida irekia dago, eta bada konforme dagoenik, baina oso uste hedatua da ETBren ezaugarriak ez direla ondo egokitzen garaiotara. Zentzu horretan, Unai ezagutzen ditu errealitate aurreratuak eta izango ditu etorkizunari buruzko hainbat pista, eraldaketa gidatzeko lagungarri izango zaizkionak. Horren pare, Unai euskaltzalea da, eta eraldaketaren helburuen artean izango du ETBk euskararen biziberritzeari ekarpen handiagoa eta eraginkorragoa egitea. Norabide horretan badaki beste euskaltzale askoren laguntza eta babes izango dituela.

Apirilean hastekoa da Unai lan berrian. Zorterik onena opa diot, denon mesedetan.

BUKATZEKO

Ipuinak, baleko tresnak matxismoa ezabatzeko

Asun Casasola Ipuin Lehiaketara estreinakoz aurkeztu, eta seigarren aldiko helduen sarietako bat eskuratu du Saioa Varela Crespo oñatiarrak; atzo banatu zituzten sariak eta, gaurtik hasita, lan irabazleak 'Asuncasasolaipuinak.eus' atarian irakur daitezke

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Indarkeriarik gabeko jendarteak lortzeko bidean, belaunaldi gazteak aliatu bihurtzea du helburu Irungo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatzen duen Asun Casasola ipuin lehiaketak. 2008ko sanferminetan Nagore Laffage irundarra hil zuen Jose Diego Yllanese. Laffageren amak, Asun Casasolak, ordutik hona daraman borroka irmoaren omenez sortu zuten ipuin lehiaketa.

'Libreak ez ausarta' leloa

Hori da aurten antolatzaileek proposatu duten leloa. "Abiapuntu horretatik, epaimahaiak bereziki goraipatu ditu indarkeria matxistaren aurkako borroka ikuspuntu positibotik islatzen zuten ipuinak eta baita idazlanen kalitatea ere", azaldu dute bultzatzaileek.

Pozik daude lehiaketaren ibilbidearekin. "537 ipuin bildu ditugu eta gure mugak gainditu egin ditugu; horren erakusle da Euskal Herriko ez gain, Leondik eta Kolonbiatik jasotako lanak saritu ditugula. Eta bereziki pozik gaude gazteen atalean lortzen ari garen parte hartze handiarekin; gaztelarazko 63



Saioa Varela Crespo, Asun Casasola lehiaketako saria irabazi duen lanarekin. A. A.


ipuin jaso ditugu, eta 110 lan euskaraz. Ikastetxeak lehiaketa honekiko duten atxikimendua sendotzen ari dira".

Oñatikoak, helduen sari bat

Atzo, eguna, banatu zituzten, Irungo Oiaso Museoa, seigarren aldiko sariak. Helduen kategorian, Saioa Varela Crespo oñatiarraren *Azken erabakia* eta

izenbururik ez duen Miguel Paz Cabanasek idatzitakoa saritu zituzten -300 euroko saria-, eta gazteen atalean, Maria Jose Garcia Florensen *El refugio de la Grecia antigua* eta Oihana Fernandez de Larrinoak Ibarbiaren *Udazkenerokoak* -100 euroko saria eta erosketa-bonu bana-.

Anaia Anderrek eman zion Valerari lehiaketaren berri. "Ez



Irungo lehiaketaren irudia. IRUNGO UDALA

dut literatura sariketetan parte hartzeko ohiturarik, baina honako hau asko gustatu zitzaidan, oso aproposa iruditzen zaidalako hain garrantzitsua den gai bat ikustarazteko. COVID-19aren garaian, beste birus bati begiratu diot nik, matxismoaren birusari, hain justu. Egiten ari naizen Gizarteratze ikasketek asko lagundu didate testua osatzen, eta, zer esanik ez, anaiak emandako pistek".

Matxismoaren aurkako birusa

2019ko abenduaren 28an Pentagonoan, Ameriketako Estatu Batuetako defentsa egoitzan, kokatu du oñatiarrak bere istorioa. "Catherine izeneko emakume amerikarra da protagonista. Jatorri askotariko emakumeek osatutako kongresura joan da, ez dut esaten zertara, baina bukaeran argituko da; izan ere, kideekin elkartzean zera esango die: 'Aurreko urteko bezainbesteko hilketa datuak ditugu. Ezkutua uzteko garaia da. Ausartak gara, bai, baina ezkutuan. Goratzeko sasoia da. Askeak izateko'. Ukabila altxatu eta ozen oihukatu dute guztiek: 'Birus bat askatuko dugu. Matxismoa akabatuko duena'".

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

DEBAGOIENA ERALDATZEN

MARTXOAREN 18AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

"2020an, pandemia egoeran egon arren, lurak birsortu dezakeena baino gehiago kontsumitu dugu".

IDOIA URAIN
EKONOMIA ZIRKULARREKO IKERTZAILEA



goiena
Zu hemen zaude.